

JAKIN

LUIS MARIA LARRINGAN
EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK

KOLDO ZUAZO
EUSKALKIAK, ASKATU GABEKO KORAPILOA

ADOLFO AREJITA
BIZKAI EUSKARAREN EKARRIA BATASUNERA

BEÑAT OIHARTZABAL
EUSKARA BATUARI IPARRALDETIK BEHATUZ

XABIER MENDIGUREN
GURE LITERATURA GARAIKIDEA

EUGENIO PEÑAS
GIPUZKOAKO POPULAZIOAREN PROIEKZIOA

HASIER ETXEBERRIA
ALFONSO MARTINEZ LIZARDUIKOA
JENARO GARATE
BEGOÑA DEL TESO
EGUNEN GURPILEAN

76

MAIATZA-EKAINA 1993



JAKIN

76

MAIATZA-EKAINA 1993



Kultura eta Turismo Sailak diruz lagundutako aldizkaria

AURKIBIDEA

Z	ENBAKI HONETAN	7
G	AI NAGUSIA	11
	LUIS MARIA LARRINGAN EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK	41
	KOLDO ZUAZO EUSKALKIAK, ASKATU GABEKO KORAPILOA	63
	ADOLFO AREJITA BIZKAI EUSKARAREN EKARRIA BATASUNERA	79
	BEÑAT OIHARTZABAL EUSKARA BATUARI IPARRALDETIK BEHATUZ	93
G	AIAK	105
	XABIER MENDIGUREN GURE LITERATURA GARAIKIDEA	115
E	GUNEN GURPILEAN	141
	HASIER ETXEBERRIA ALFONTSO MARTINEZ LIZARDUIKOA JENARO GARATE BEGOÑA DEL TESO	
I	IBURUAK	141
	IDAZKARITZA JASO DITUGU	

© JAKIN

JAKINEKO IDAZLANEZ INON
BALIATZERAKOAN AIPA BEDI,
MESEDEZ, ITURRIA

JAKIN

ALDIZKARI IREKIA DA ETA EZ
DATOR NAHITAEZ IDAZLEEN
IRITZIEKIN BAT

ZUZENDARIA

JOAN MARI TORREALDAI

ERREDAKZIO-BATZORDEA

PAULO AGIRREBALTZATEGI - JOXE AZURMENDI - JOSEBA INTXAUSTI

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1. C - 20009 Donostia - Tel. (943) 21 80 92 - Fax 21 82 07

1993ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	4.200 pta.	—
Ale arrunta 700 pta.	1.050 pta.	
KANPOAN		
Harpidetza	4.750 pta. (235 FF)	—
Ale arrunta	790 pta. (40 FF)	1.200 pta. (60 FF)

SUMMARY

25 TH. ANNIVERSARY OF THE STANDARD BASQUE

VARIOUS AUTHORS

This year it is 25 years since the Basque Language Academy approved the scheme for the literary unification of the Basque Language. Although its social and cultural approval has been practically complete, it has recently been said that a new re-adjustment between the actual standard model and the dialects is necessary. Jakin would not like to enter into the polemics, but it does pretend to contribute thoughts and analyses the unification process and, above all, Jakin has the desire to propose concrete and efficient answers in order to enrich standard Basque, nowadays in force, considering the dia-

lects as a starting point. To do so, we have asked for the official opinion of four specialists on this theme, Doctors of Filology and linguistics and University teachers. Luis Maria Larringan and Koldo Zuazo give details about different factors that have influence on the complexity of the linguistic, sociolinguistic, didactic and pedagogic relations between standard Basque and the dialects. Adolfo Arejita, from Bizkaia, and Beñat Oihartzabal from the North Basque Country, analyze the evolution of the relations between standard Basque and its respective dialects and propose concrete contributions at different levels.

CONTEMPORARY BASQUE LITERATURE

XABIER MENDIGUREN

Contemporary Basque literature (post-modern?) has its starting point in 1975. It differs from that, which in reality is called modern literature, in for-

mal and thematic characteristics. In essay format, the author points out the formal characteristics, thematic preferences and the main characters' works.

INFLUENCE OF GIPUZKOA'S POPULATION

EUGENIO PEÑAS

Based on the data from the 1991 census of Gipuzkoa's population, the author works on new hypotheses to evaluate the

process of ageing in the population and to adapt the behavior of the political and health authorities to the new position.

ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 76. zenbakia da eta 1993ko hirugarrena.

Euskararen batasun-prozesuak Euskaltzaindiaren onespena jaso zuenetik 25 urte beteko dira udazken honetan. Hori dela eta, estandarizatzere-eredu honen eta euskalkien arteko harremanen gorabeherak eta egoera hurbilagotik ezagutzera eman-asmoz zenbait lan plazaratzea erabaki dugu *Jakin*-en. Aurretiaz azpimarra dezagun nekez uka ditzakeela inork 25 urteotan euskara batuak lorturiko onura eta abantailak. Ez dugu uste, halere, bide honetan beti asmatu denik. Aukerako parada dugu orain zertan garen jakiteko eta nondik jo asmatzeko, eztabaida-saltsa minduetatik at.

Lau lanez antolatu dugu gai nagusi hau. Lauak dira zehatzak, 25 urteotako prozesuari lotuak, lauak azterketaz gain proposamenez osatuak. Luis Maria Larringanek euskara batua-
ren eta euskalkien arteko harremanen konplexutasunaren arazo desberdinak aztertzen ditu berean. Koldo Zuazo eus-

kalkien erabilerari buruzko eztabaidan hizkuntza barneko zein hizkuntzaz kanpoko elementuak zehaztu ondoren, euskalkien ekarpenetara lerratzen da. Adolfo Arejitak Bizkai euskararen ekarria batasunera zein beharrezkoa den erakutsi eta ekar-bide konkretuetan nola gauza daitekeen proposatzen du. Eta, azkenik, euskara batuak Iparraldeko euskalki desberdinetan azken 25 urte hauetan segitu duen bidea aztertzen du Beñat Oihartzabalek.

Gaiak sailean bi lan-modu desberdin dakargu. Lehena, Xabier Mendiguren Elizegirena, azken urteotako euskal literaturaz: 1975ak markatzen duen aldi berriaren ezaugarriak, berezitasunak, ideiak, giroa, eragileak eta izen nagusiak aipatzen ditu bertan. Bigarren idazlana Eugenio Peñasena da: 1991eko erroldaren datuetan oinarriturik Gipuzkoako Populazioaren proiektzioa aurkezten digu.

Egunen gurgilean sailean zenbakiero bezala, hirugarrenez aurten, egungo kultura, zientzia, ikuskizunak, artea, ekonomia eta abar lantzen dituzte Hasier Etxeberriak, Alfontso Martinez Lizarduikoak, Begoña Del Tesok eta Jenaro Garatek. Oraingo honetan Andoni Egañak huts egin digu, zoritxarrez.

Eta bukatzeko, *Liburuak* sailean azken aldi honetan bulegoan jaso ditugun liburuen fitxa bibliografikoa argitaratzen dugu.

G AI NAGUSIA

LUIS MARIA LARRINGAN
EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK

KOLDO ZUAZO
EUSKALKIAK, ASKATU GABEKO KORAPILOA

ADOLFO AREJITA
BIZKAI EUSKARAREN EKARRIA BATASUNERA

BEÑAT OIHARTZABAL
EUSKARA BATUARI IPARRALDETIK BEHATUZ

EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK

Aintzat hartu beharreko praktikak

LUIS MARIA LARRINGAN

Euskara batua eta euskalkiak direla eta ez direla, gorabeherarik ez da falta izan gure artean. Denetariko iritziak izan dira gainera. Ez dakit gai tipiko horietarikoa denentz, gehi-gutxi, euskalari orok ekin baitio.

Ni ere saltsa honetara nator. Ez nator, baina, arazo honen aurrehistoria kontatzera, edota nondik-norakoa, ezta historia honen azken urteotako balantzea egitera ere. Zertara, bada? Ondorengo lerroetako gogoetak, «Euskara Batua/Euskalkiak» auziaz eta arazoaz irudikapen zuzenago eta juxtuagoak gauzatu asmoz burutu dira. Batua eta Euskalkiak, bi-biak, errealitateak ditugula, ukatzerik ez dago. Zaharragoa eta luzeagoa Euskal-

kiena; berriagoa eta laburragoa Batuarena. Dena den, Batua «indarrean» dagoen zerbait da, indarrean eta «eraginean» ere bai:

- Euskaltzaindiak proposatu duen estandarizazioa da;
- Batuaz eman den lan-produkzioa: kantitatea eta kalitatea;
- erabili ohi dituen eremuak;
- giza taldeetan eta hiztunengan duen eragina;
- kontrolatzen dituen hizkuntz industriak;
- euskalduntze-prozesuan erabili izan da neurri handi batean.

Halaz ere, gauzak sinpletu beharraren beharrez edo, Euskara Batua eta Euskalkien arteko harremanen pelikula, zuri-beltzez atera zaigu edota eskaini izan da: batuzaleak eta euskalkien aldekoak, aurrerratuak eta atzeratuak, «vaqueroak» eta indioak, zuriak eta beltzak. Gu eta gure aldekoak, eta beste guztiak. Azken batean, bi jarrera kontrajarrien historia.

Gauzak ez direla hain sinpleak edo hain erabat zuri eta beltz, uste baino konplexuagoak baizik: horixe da nire gaurko egitekoa. Arazoa bitan banatzen duen jokabide antzuz jabe-tzea, ez dugu kalterako izango, aurrerabideak aurkitzekotan. Bestalde, apologiarik onena, errekonozimendua dela uste dut, hala Batuarena, nola Euskalkiena. Horrela, bada, ez da nire asmoa Euskara Batua/Euskalkiak arazoan puntako mailarik irabaztea, *debate* baten parte hartzea baizik, lanari ekiteko eta aurrera egiteko hipotesi bat luzatuz: arazoaren konplexutasuna kontuan izateak, irudikapen okerren eta efektu negatiboen neutralizapena eragin ditzake. Eta irabazi esan dut, baina ez galtzea ere nahiko litzateke.

Eta atarikoak bukatu baino lehen, beste kontsiderazio orokor bat egin nahi nuke: arlo honetan, Euskara Batuaren eta Euskalkien inguruan, ez da «fikziorik» falta izan, gutariko bakoitzak egin baitu —eta egin behar, seguruasko!— fikzio ugari bere buruarekiko eta errealtatearekiko. Horrela, *bat*, *bakar* eta *berri* gisara agertu den arren Euskara Batua, errealtatea ez da hala suertatu, bestela baizik, Batuak arazoak baititu «bat» izateko, halaber, «bakarra» izateko, eta uste bezain «berria» izateko ere. Ortografian bertantxe, zalantzak dira oraindik, «erresistentziak» edota proposamen berriak; eta beste

eremu batzuetan, eztabaidak, ezbaiak eta dudak, modu zabalagoan dabilta. Beste hitzez esanda, baturanzko prozesuan gaude oraindik. Areago, Administrazioko, Lege-Biltzarreko, Udaletako, Auzitegietako, zenbait Erakunde Publikotako, eta abarretako hizkuntz jarduerak, «fikziozko» eta «simulakro bidezko» jarduerak dira, duten errealitate bakarra «entseubidezkoa» eta «itzulpenbidezkoa» baita: hortxe baditugu, ez da euskarazkoak direlako, euskaraz ere egon daitezzen baizik. Egia esan, euskara, estandarra, Euskal Herria... «egiak» direlakoan dihardugu, Euskal Herria euskalduna bailitzan, baina baturantz goaz, euskalduntzen ari gara eta Euskal Herrigintzan. Oraindik apustua da, ez errenta.

Bestalde, harrokerian ibili gara gure euskararekin: zaharra dela gure hizkuntza eta aberatsa, eta paradisukoa ez bada ere, Tubalek Mesopotamiatik ekarria hor-horren baten, hots, Babelgo Dorretikakoa, etab. Baina, gauetan horrelakorik sinestu dugun arren, hurrengo goizean euskaraz bakarrik ezin joan gaitzkeela inora konturatu gara. Euskal jaialdietan eta, *euskalzale* ugari, *mintzatzaile* gutxi, ostera, kaleetan. Zorionez, ezin da —eta bada— benetako ahaleginik eta errealitaterik. Eta horretara goaz.

BABELGO DORREA

Eztabaida ahalik eta emankorrena izan dadin, aldez aurretik zein aukera egiten den zehaztea komeniko da, aukera bakoi-tzari bere koherentzia propioa dario eta.

Hizkuntzen ugaritasunaz jarduterakoan, Babelgo istorioa ekarri ohi da. Badirudi derrigorrezko erreferentzia «historiko» (anekdotiko) bihurtu zaigula, erreferentzia tipiko, noiznahi eta nonnahi errepikatzen baita. Errepikapen hutsak, halere, ez ditu gauzak egia edo gezur egiten, topiko baizik, erdi egia eta erdi gezurraren muga jartzen gaituelarik. Honenbestez, ugaritasuna, gertakari gisa ikusmiratuz, errealitate bat dela ez dago inolako zalantzarik; baina, Babelgo istorio horretan bada beste balorapen bat ere: hizkuntz ugaritasuna —eta aldatu beharrekoak aldatuz, euskalkiena— zigorpene edo kastigua besterik ez da. Banaketaren aurretik eta banaketarik gabe,

hizkuntzaren paradisia; geroztik, hizkuntzen ifernua. Gainera, guk marka guztiak hausten ei ditugu. Beraz, zigorra arindu edo ifernutik irten nahiez gero, jo dezagun batasunerantz. Eta esan dezadan, iritzi hori nahiko zabal dabilela.

Hona, bada, lehenengo oharra: arlo honetan ari garenek kontuan eduki beharko genuke, gure arteko iritzi (aburu) ezberdinen sorburuetariko bat, zatiketa edota banaketaren epistemologian datzala hain zuzen ere, hau da, gertaera hartaz iritzi bateratsu bat dugula pentsatzean. Babelgo Dorreak dakarren pentsamoldea, ez da nire gustokoa, bi arrazoiengatik: aurrena, batasuna zentzu numerikoan (ale bakarra izatean) ulertzen duelako; bigarrenik, hizkuntzen iturburua, zertarakoa eta bilakaera, giza elkarreraginetatik kanpo uzten dituelako. Hizkuntza, haatik, ezer bada, gertakari soziala da. Era berean, hizkuntzen ugaritasuna, euskalkiena bezalaxe, ez da halabarrezko gaitzerdia. Beraz, zera esan genezake: hasieran ere, bazen ugaritasunik. Gainera, nolabaiteko «gizartetasunera eta batasunera» iristeko, ezinbestekoa ote da aldeztu aurretiko (h)armonia mirakulutsu batera jotzea? Zer onura du baina, mirakuluetatik hasteak? Hizkuntzaren batasunetik —hitzarmen, akordio eta elkarreragin-premietatik— abiatuz, horren ezinezkoa ote da Euskalkien eta Batuaren bide eta eremuak formulatzea?

EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK: LEHEN HURBILKETA

Zein ere den hizkuntza, beti izan ohi dira desberdintasunak haren barruan. Guk aurrebaldintza modura jarri dugun ikusmoldearen arabera, hasieran ere bazirela funtzionamendu desberdinak enuntziatu dugu. Era berean, akordioak edo adostasunak ere bai, hots, batasuna ere bai. Giza mintzairaren barnean ezin daiteke esan lehen-armonia zoragarri eta beterik izan denik inoiz. Honenbestez, ugaritasunak eta diferentziak modu positiboz planteatu beharra daukagu: ez dira kalte hutsak, ez eta gaitz-bideak ere. Zeintzuk dira, bada, Batua/Euskalkiak kontzeptupean biltzen direnak? Zeren eta hor azpian dauden desberdintasunen egiazko dimentsioa zehatz-mehatz

zein den antzematen ez den bitartean, zaila baino zailago izango zaigu beraiekiko irudikapen zuzenak burutzea.

Baten batek pentsa lezake ez dagoela diferentzia handirik, edota diferentziok ez dutela inolako garrantzirik, hots, ez dagoela hor inolako oztoporik. Eta sortutako arazoak, gain-arazoak direla. Gu ez gara hain inozoak, eta aipatu formulapean badakigu «zenbait kezka eta konponezin» ezkututzen dela.

Hizkuntza barneko desberdintasunak, bi parametroren araberaren finka daitezke besteak beste:

1. balio linguistikoaren arabera, hots, kategorizapen linguistikoa eginik: «r» kakoxtuna eta «h»a zaku bereko arazoak direnekoa;
2. balio linguistikoaren erre presentazio sozialak kontuan hartuz, hau da, kategorizapen axiologikoa: «r» kakoxtuna eta «h»a, ore diferenteetako opilak dituguneko.

Gauzak ondo planteatu nahiez gero, derrigorrezkoa da bereizketa hori kontuan izatea.

Euskalkiek batuarekiko dituzten ezberdintasun linguistikoak, dagoeneko nahiko argi zehaztu eta deskribatuak daude, hizkuntza barruko alde nabarmenenak zubererak eta bizkaierak ekarriz. Nolanahi ere, euskalkien arteko desberdintasun linguistikoak ez omen dira uste dugun bezain sakonak. Areago, badirudi, azken urteotan gehitu egin direla. Dena dela, besterik da, diferentzior buruz gauzatu errepresentazio sozialak eta plazaratu diskurtsoak. Goian aipatu bi dimentsioak, askotan nahas-mahasian kaleratu izanagatik, sasi-bide eta sasi-azalpen ugari izan da, bizkaieraren auzia kasurako, adabaki filologiko batzuez konpondu nahi izan denean (partxeoa), edota, besterik gabe, arazoa maila pedagogikora mugatu denean (batetik besterako zubia edota bidea asmatzea bailitzan). Datu bitxigarritzat, hor dugu «hiperbizkaiera» terminoa bera, kontzeptu deskriptiboa izatetik balioespenezkoa gertatu baita. (Cf. Laka, I. (1986-87); Lakarra, J. A. (1986)). Eta egun, «bizkaitarrismo» hitzak, jokabide linguistiko bat baino gehiago, jarrera sozial baten kalifikazio «peioratiboa» adierazten du.

Esandakoaren lekuko, eta gatazkaren sustraietara eramango gaituelako, aipu luze bat egingo dut.

«Euskalkietan idazten dena eta euskaraz idazten dena ez dira elkarrenlehan hartu behar, bata bestearen arerio ez direlako, euskalkietan ahalik eta gehien idazteak ez dakarkio euskarari kalterik» adieraziz, eta Euskaltzaindiaren hitzak gogoraturaz, honela jarraitzen du gure testuak:

«Hala ere, euskara batuaren etsaiak ez dira lasaitu, eta bazuetan badirudi indartu ere egin direla, komunikabideetan egiten dituzten erasoei begiraturaz. Bi aldetatik etorri dira bereziki erasoak: Bizkaiera-zaleen aldetik eta Euskarazaintzakoen aldetik.

Euskara estandardizatu bizkaiera hutsa ezagutzen duten eta berau landu gabe daukaten bizkaitarrentzat buruhauste ez txikia dela, edonork aitortzen du; arazo pedagogikoa dago hor, baina, beste neurri batez euskaldun guztiok daukaguna: euskara lantzekoa.

Baina badira, 'bizkaitarrismoa' ren izenean, Euskal Herri osorako izango den euskara (euskara estandardizatu) ukatu nahi dutenak, eta bizkaieraren defentsa ez arazo pedagogikotzat eta bai helburu estrategikotzat daukatenak, euskara batuaren kontra. Borroka horixe eraman izan da batez ere Euskal Telebistan. Azkenik, sarritan, kutsu eta helburu politikoak daude tartean, bizkaieraren defentsaren izenean lortu nahi direnak.

Beste alde batetik ere badator euskara estandardizatuaren kontrako erasoa: Euskarazaintzakoen aldetik. Horiek inoiz ez dute onartu Euskaltzaindiaren gidaritza arazo horretan. Eta 'herri-euskara' jarri nahi dute euskara estandardizatuaren aurka, azken hori euskara artifizial, desitxuratu eta mordoi lotzat joz. Esan beharra dago, euskaraz ondo ala gaizki idaztea ez dela euskara batuaren ala 'herri-euskara' ren arazoa; alde batean eta bestean bait daude idazle onak eta idazle txarrak. Eta esaten den herri-euskara horrek bere funtzioak ditu gure hizkuntza nazionalaren bizitzan: horren biziberritzea eta indarberritzea beharrezkoa da euskararentzat. Baina euskara batuak hizkuntzaren alderdi formal batzu bakarrik arautzen ditu, eta ez herriaren hizkuntzaren bizitasuna bera. Horregatik 'herri-euskara' ez dago inola ere euskara estandardizatuaren aurka. Eta eguneroko bizitzan eta literaturan hizkuntza herritarra lantzeak eta erabiltzeak ez dio inolako kalterik egiten arlo eta maila formaletan erabiltzen den euskara estandardizatuari. Honek euskalkietan oinarritu behar du eta horietatik edan etengabe. Euskara estandardizatuak eta euskalkiek elkar indartu eta sendotu behar dute.

Hizkuntza estandarizatuak arautzean eta bideratzean beti gertatu izan dira kontrako jarrerak, dialektoen nahiz herriaren 'hizkera bizia' ren izenean. Euskararen bidean ere gertatzen ari dira horrelako oztopoak: ez da harritzekoa. Hala ere, erne egon behar da jarrera eta jokabide horiek, euskara estandarizatu eta modernoa lortzeko helburuaren aurka gailen ez daitezzen, sarritan Euskal Herriaren berreskurapen nazionalaren aurkako xede politikoak ere tartean bait dituzte, edota politika antieuskaldunaren jokoan erortzen dira behintzat.

Euskararen batasuna edo estandarizazioa arazo nazionala eta soziala da noski. Eta alferrikakoa litzateke, euskal gizarteak, onartuko eta bereganatuko ez balu. Baina funtsean arazo teknikoa da euskararen batasunarena. Horregatik, Euskaltzaindiari aitortu zaio hori bideratzeko eskua; eta berak hartzen dituen erabakiak arauak dira euskaldun guztiontzat. Hizkuntza herriarena dela eta berorrek lantzen eta aldatzen duela esatea ez doa horren estandarizazioaren, hizkuntzaren (sic) 'teknikariek' arautzearen aurka.» (*Jakin*, 34 zk., 54-56 or.)

Testu-zati horretan, egia esango bada, anitz maila eta eza-gumendu-alorretako «objetuak» biltzen dira. Eta ~~hor~~exegatik, arazoa konplexutasun handikoa delako hain zuzen, zenbait puntu zedarritzea komeniko da.

JARRERA NORMATIBOAK; GENESIA ETA OINARRIZKO EZAUGARRIAK

Giza-mintzairan, besteak beste, bi egituraketa-maila bereiz daitezke:

- linguistikoa
- soziala

Hizkuntza produktu eta eraikuntza sozial modura ikusmiratuz gero, erraz egingo zaigu ondoko puntua konprenitzea. Adibide batetik hasiko nahiz:

- (1) Nik gurau (gurago) dot hau beste hori baino;
- (2) Nik nahio (nahiago) det hau beste hori baino.

Bi aldaki ditugu hor:

- gurau vs nahio;
- dot vs det

Deskribapen gramatikalari gagozkiolarik, ez dute ezer arbuia-garririk, eta akatsik izatekotan, berdintsua lukete. Dudarik ez, ordea, giza estatus ezberdina dutela, zeren eta, egungo hiztunen kontzientzia praktikoan, (2) erabilera beste hura (1) baino igoagotzat joko baita. Eta ez dago inolako paradoxarik: arrazoi nagusia, (2) formak duen prestigioa da. Esan nahi baita, begirune ezberdina dutela. Arrazoi sozialak dira hor tarteko. Bistan dago, iritzi linguistikoez gain, besteren bat ere badela nahastean: forma baten prestigioa edo gizarte-itzala. Hots, norma soziala. Gauzak, bada, ez datoz soilik hizkuntza barruko dimentsioaren arabera.

Puntu honetan zerbait luzatuko naiz, saihasbide eta gaizkiulertu askoren edo gehienen iturri baita. Areago, hauxe da kontu bat Euskara Batua/Euskalkiak korapiloa askatu nahi bada, urratsez urrats garbitu beharrekoa. Labur esateko, «h»aren arazoa ez da soilik auzi ortografikoa, hots, ez da «r» kakoxtunaren parekidea. Zergatik, bada?

Arauk, legeak, normak, jarrera arauemaileak, jarrera normatiboak... Zer ditugu eta nondikoak ditugu? Egia esango bada, aipatu terminoen pean errealitate ezberdinak sartzen dira. Gorago, hizkuntzaren bi egituraketa-maila aipatu ditugu, linguistikoa eta soziala, hain zuzen. Ondotxo dakigu jakin bereizkuntza hori kontzeptuala dela, errealitatean maila biak bateratsu eta nahasian suertatzen baitira, baina gure lanerako oso argitzailea gertatuko zaigu. Bereizkuntza horri jarraiki, bi jokabide edo jarrera arauemaile bereiz ditzakegu, biak preskriptiboak baina desberdinak erabat: arautegi linguistikoa n arabera, bata; prestigio edo itzal sozialaren arabera, bestea. Esan bezala, biak dira preskriptiboak, baina hala helburuetan eta edukietan nola arrazoi eta diskurtsoetan, erabat ezberdinak ditugu. Eta nik, prestigiozko norma edo araua zertan datzan eta nolatan eragiten duen, nondikoa dugun, zein diskurtso-motaz azaltzen den, argitu nahi nuke.

Geroago ikusi ahal izango dugunez, prestigiozko jarrera deritzagun horrek, ez du lotura zuzenik gramatika sortzaileko hizkuntz arauekin, ez eta Coseriu-ren "Sistema, Norma eta Hizkera" delako bereizketarekin ere.

Jarrera arauemaile ororen lehen urratsa, aldaki edo aldaera baten finkapena eta hautapena gauzatzean datza. Zein ere

den araua edo norma, hautaketaren ondorioa da betiere, aukuraturiko aldaera, ondoren, ohizkoa —normatiboa— izango delarik eta bestea(k) markatua(k): sinonimoa(k), bitxia(k), beste hizkuntz maila batekoa(k), itzal gutxikoa(k), arbuiagarria(k)... Fasealdi hau ederki azaltzen du I. Sarasolak ondoko pasarteotan:

«Ahozko aldaera eta baliabideen ugarikerian idazleek egiten duten hautaketa izan da, nonnahi eta noiznahi, batasun-bidearen abiaburua.» (Sarasola, I. (1984), 26 or.)

«Labur bilduz, euskal hitz ohizkoak —hau da, gure literatur tradizioaren ondarea—, eta orain arte euskal testuetan ez agertuarren ezinbestean hartu behar ditugun nazioarteko hitz orokorrak ahal den zehazkiena finkatzen ahalegindu gara batipat. Denpora mugatua denez gero aukera egin izan behar dugu.» (Ibidem, 27 or.)

«Euskara batuaren eta euskalkien arteko arazoan, hizkuntzaren egungo egoerak gure ustez eskatzen duen zabaltasuna izan dugu gidarizat. Euskara batua dela eta, euskalki guztietan edo ia guztietan erabiltzen ez diren hitzak baztertu nahi izateak murrizte kaltegarria besterik ez liguke ekarriko. Aitzitik, uste dugu tradizio gutxienezkoa duen hitz orok lekua duela standard idatzian. Euskara batuak, definizioz, onar ezin dezakeen gauza bakarra, hitz bakar batentzako forma-aniztasuna da. Baina forma-aniztasun hori ez da etimologiaren arabera epaitu behar. Hemen ere erabilera dela irizpidea iruditzen zaigu. Hortaz ez dago zertan ez onartu esannahian nahiz hizkuntz mailan desberdintasunen bat agertzen duten aldaerak: *aipatu / aiatatu, jardun / ihardun, igaro / iragan, ukitu / hunkitu, itxi / hetsi* eta are *azken / atzen*, esate baterako. (...)

Haria bir-hartuz, batasunak *baztertze* baino areago *sailkatze* eta *mailakatze* esan nahi badu, hainbat hitz baztertu behar ez direla esateak ez du esan nahi denak nahaste erabil daitezkeenik. Idatzizko standard-a anarkia kaltegarri horretatik begiratzeko saio gisa hartu behar dira atal honetan adierazten ditugun argibideak.» (Ibidem, 34-35 or.)

Sailkatze-mekanismo honi darraikion urratsa jeneralizazioa litzateke, eta etapa honetan, lehentasuna izango lukete aldaera batzuek, «erabilpenerako gomendioa», hain zuzen. Batzuk hobetsi egingo diren neurrian, beste batzuk, gutxietsi edo gaitzetsiak izango dira. Edota, baztertuak. Bestela esanda, *selekziobidezko* praktika etorriko litzateke. Era berean, zentsura

eta debekua martxan jarriko dira, erabilpen bat —lekto bat— babestuz batipat. Dudarik ez, guzti honek beste konkurrente-kideen kaltetan (?) eragingo lukeela.

Ekinbide honen diskurtso-moldea, honako terminoetara bil daiteke: nolabaiteko kirurgia, derrigorrezko galera, mozketa, aberastasuna eta bizitasuna sakrifikatu beharra, anarkia erre-mediatu beharra, beso ustela ebaki beharra gorputz osoa biziko bada, ... eta guzti hori, agian, maila batzuetara mugatuz, erabilera formaletara eta idatzizko esparruetara. Honela dio K. Mitxelenak: «Batasunak, edozein batasunak gero, galera berekin dakar, ez da, hasi berrian behintzat, 'amaren hizkuntza' izango, esperanto-usaina itsatsiko zaio noraezean, ñabardura aberatsik gabe agertu beharko du jendartean.» («Pro domo», in Altuna, P. (1972), *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, Etor, Bilbo, 223 or.). Halaber, M. Zarateren *Idatz eta mintz* izeneko alegia mingotsa.

Dena den, hautaketa eta jeneralizazioaz aparte, hots, selekziobidezko praktikaz gain, bada beste aritze-modu bat ere, *espezializazioarena* hain zuzen, zeinetan aldaerek, erabileraren ondorioz edo, alde berezietarako bidea egiten duten, alde aurretiko erabakirik gabe. Jokabide honen diskurtsoa, hizkuntz mailez eta hiztegi-sarre ren araberrako adieraz mintzatzaren da.

Jo dezagun orain arteko arautegi edo normatibaren ahaleginak, erabilera eta erabilpen linguistikoen estabilitatea eragitera zuzenduak daudela batipat, hizkuntz formen egonkortasuna gauzatzea dutela helburu. Bai selekziobidezko joeran, bai espezializazioarenean, kasu bietan, hizkuntz aldakuntza gidatu (kontrolatu) baten aurrean geundeke, barnealdetik eragiten den kontrolpean.

Baina, goian zehazturiko jokabideez aparte, izan ohi da kanpoko kontrol eta gobernurik. Beste normarik ere bai, beraz. Areago, maila horretako normaz izan ohi dira lehia eta eztabaida gehienak. Jarrera normatiboa gaizki zedarritua geratzerik nahi ez badugu, bada, derrigorrezkoa da dimentsio hartaz kargu egitea.

Deskribapen linguistikoetan itxuratu hizkuntz portaerek suposatzen dituzten balioak ez dira, inolaz ere, «unibokoak» edo neutroak, analogikoak eta sinbolikoak baizik. Hizkuntz for-

mei ez zaie nahikoa, ohizko bideetatik soilki datorkien justifikazioa, «benetako» legezkoatasuna, ongi zein gaizki eratuak egon, prestigiozko erabilera bereganatzetik jasoko baitute. Zera esan nahi dut, hizkuntz formek dituzten prestigio eta itzala, ez dagozkiela soilik «factum grammaticae», edota «factum linguae» diren aldetik.

Esan beharra dago, euskarak, zoritxarrez, ez duela prestigiozko normarik izan, goimailetakoa jendea, gaztelaniaz edo frantsesez mintzatu da eta. Handikiek, burgersek eta handimandiek ez dute ez «estilorik», ez eta «normarik» ere produzitu euskaraz. Ez dute euskararekiko interesik erakutsi. Hobeto esanda, agertu duten interes bakarra, euskararen aurkakoa izan da: «*Hábleme Vd. en cristiano*», eta «*¿Me lo dice Vd., por favor, en castellano?*» Horra hor prestigiozko norma eta exigitzen den «solidarioratasuna». K. Izagirrek dioen bezala, burgesiak produzitu duen gauza bakarra superestruktura izan da, euskararen kontrako «norma» (K. Izagirre, *Euskal lokuzioak*, XIX. or). Eta horra, Euskara Batua/Euskalkiak eta Norma-kontuetan (auzitan) sartzen garen guztietan, kontzientzia nazionaleraino iritsi beharraren zergati nagusia.

Eta berriz harira itzuliz, argi utzi nahi duguna honako hau da, hizkera estandarretako arauak, zentzu tekniko batean, ez dira bakarrik arau gramatikalak, ez eta besterik gabeko historia gramatikalak, ezta «guztion onerako» gauzatu ekimen inozoak ere. Zeharbidez, beste interes aitorgabeak tartekatzen dira betiere, arauak posizio estrategikoak bilakatzen direlarik. Erresistentziak barne. Prestigiozko normatibak edozein mailatan eragin dezake gainera, hautaketatik bertatik hasi eta azpi-ñabardurak eta adiera berriak ezartzerainoko une guztietan.

Esanguratsua eta berebizikoa da jarrera honen diskurtsoa. Azter ditzagun hizkuntz balorapenak burutzerakoan erabili ohi duen zenbait termino:

- «hizkuntza ona»
- «hiztun onak»
- «autore onak»
- «ongi (ondo) mintzatu»
- «hutsak»

- «erabilera ona/txarra»
- «gaizki mintzatu», «gaizki esan»
- «behar bezala hitzegín»
- «ez da esan behar», «esan behar da»
- «ez da esaten»
- «mintzo gaiztoa»
- «euskara gaiztoa»

Ikusi ahal denez, ia denak moral-eremuko kontzeptuak dira. Egia esan, hizkuntz erabileren balorapenak antzeman eta formalizatzerakoan, moral-e remuko formalizazio eta terminologiaz baliatzen da gramatika-disziplina. Horregatik, *gramatikal / ez-gramatikal / agramatikal...* gisako kontzeptuek ez dute inolako baliorik horrelako kasuetan. Normatibitateaz jarduterako unean, hizkuntz zientzietan, betiere moralarekiko analogia formalekin topo egiten da ezinbestean. Indize ezin a rgiagoa dugu honako hau: «... *pues hablar mejor implica pensar mejor*» (DCB, Ministerio de Educación y Ciencia ESO, 1989, Madrid, 378 or.). Baieztapen hori ezinezkoa litzateke gramatikarrik normatiboenean ere. Bestela esanda, gramatika sortzaileko arauetatik eta Coseriuren azalpenetatik nekez justifika daitekeela diogu. Honenbestez, prestigiozko arauaren edukia eta gramatikazkoarena, izatean zein helburuetan, ez dira baterak, arau bera ez diren legetxe. Honako edo halako formei ematen zaien lehentasuna, ikuspuntu eta solidaritate bereziak estaltzen ditu, nahiz eta guztion onerakoa dela aldarrikatu. Areago, «erabilera ona» erreferentzi puntu gisara hartuz gero, zaila gertatzen da hautakeraren sistematizazioa egitea.

EUSKARAREN NORMATIBA TRADIZIONALA

Praktika normatiba «zaharra»

Euskararen estandarizazioa mamitu eta planifikatzeko aha- leginak eta saioak lehenagokoak diren arren, 1968an hartu zen, zinez eta formalki, euskara idatziaren batasuna bideratzeko eginkizuna, berorren alderdi arauemailea Euskaltzaindiaren eskuetan utziz.

Aipatu data bitartean euskaraz mintzatzen zirenek, halere, izan zuten normarik eta mugapenik hizkuntz kontuetan. Ez pentsa «liberal hutsak» zirenik, ez eta monoide aske baten antzera funtzionatu zuenik euskarak. Halaber, izan zen borrokarik, lehiarik eta baita morroitzarik ere. Bazekiten zer zen hizkera dotorea eta ona, jasoa eta kaxkarra, arrunta eta jantzia. Baziren azken putzak eta goimailako hiztunak.

Eta berriz ere parentesi bat egin beharra dago, arazo larri bat aipatzeko, larrietan larriena akaso: Euskara/Erdara(k) arazoa, zeren eta lehenbiziko mailaz goratzea, hizkuntz aldatetarena izan baita. Argi dago morroitzapenik sakonena eta oinarritzkoena erdarak euskarari ezarri dion «norma»k eragin duela. Eta euskaldun gehienok, euskararekiko mamitu irudikapena, «norma» (normalkuntza) baizik, «kontra-norma» gertatu zaio euskarari. Beraz, euskaren barruan bertan ageri diren jarrera normatiboez mintzatu baino lehen, oso kontuan eduki behar den izari edo dimentsioa litzateke. Erdal legeak, larru gorritan utzi gaitu eta utzi ditu gure buruak, euskara bigarren dibisioko hizkuntza bihurtuz, bigarren mailako zereginetara mugatuz, besteak beste, eskolarik gabe, administraziorik gabe, eta abar. Prestigiorik izateko ere posibilitate eta biderik gabe. Euskal hizkuntzatik handikaldera atera gaituen norma dugu hura. Hortik, bada, egungo burua altxatu beharra, besteen pareko izan beharra, eta abar. Autodesprezioa eragin du, deskalifikazioa. Eta oraindik ere, ez dira zimeldu, ezta isildu ere norma haren aldeko hitzak. Aurten bertan (1992) jasan du euskarak erasorik ugari, besteak beste, Euskararen Legeama (Nafarroan), Frantziako Parlamentutik («frantsesa da Errepublikako mintzaira») eta EAEn, F. Buesa, Jaurlaritzako Hezkuntz sailburuaren eskutik.

Dena den, euskarazko hiztunek izan dute norma-esperientziarik. Hitztun orok izan ditu bere nekeak eta zailtasunak, euskararen erabilpenetan eraginik izan dute prestigio eta aurriritzikontuek. Arazo honetaz diharduelarik, honela dio K. Zuzok:

«Baina euskara/erdaren artean dagoen desoreka hori errepi-
katzen da euskararen barruan ere:

Gainekaldean: Beterriko gipuzkera, Lapurdiko kostatarra, eus - kara batua.

Azpikaldean: gainontzeko euskalkiak.

Iparraldean Lapurdiko kostatarra (hau da, Donibane-Lohizune, Ziburu, Sara, Azkaine eta inguruetakozko hizkera) izan da betidanik dotorentzat eta onentzat jo izan dena eta gainontzeko alderdietako euskaldunak hura erabiltzen ahalegindu dira. Hegoaldean, ostera, Beterriko gipuzkera (alegia, Tolosa, Astigarraga, Hernani eta inguruetakozko hizkera) izan da goimaila hori bereganatu duena. (...)

Bizkaierari mugatuz, oso sustrai sakonak ditu bizkaieradun hiztunek euren euskaldia (nonbait ere itsusia eta traketsa delakoan) alde batera utzi eta gipuzkerara (hau, berriz, politagoa eta gozoagoa delakoan) jotzeko ohiturak. (...)

Lotsa eta konplexu honetaz hobeto jabetzeko nahikoa dugu bizkaieradunen izkribuak irakurtzea. Nekez erabiliko dizute euren euskalkiko hitz eta esamolderik.» (K. Zuazo (1989a) 31-33 or.)

Guzti honekin zera esan nahi dut, euskarak izan duela tradizio normatibo bat. Jarrera honen ezaugarriak, hauexek lirarteke:

1. Enpirikoa
2. Psikologiabidezkoa
3. Ez-determinista

Enpirikoa esaterakoan, aldaera eta aldakiak hautatzerakoan hiztunen irizpide eta balorapenak oso kontuan hartzen direla esan nahi da, haien eragiletza betea edo delarik. Ez da harritzekoa hiztun batek bere erabilera gaitzestea, beste batena hobetsiz, bizkaieraren formekin askotan ikusten den bezala. Itzal horren osagaiak ugariak izan ohi dira: tradizio literarioa, multzo sozial kontsideratuagoak, jakitunagoak, eta abar. Aldaera legitimoa(goa)ren onarpena eta errekonozimendua edo aintzakotzat hartzea, ia ahobatekoa da. Jokabide honetan, *zerk korritzen du? galdera, zer dago erabakita?* baino erabakiorragoa litzateke.

Bestalde, *psikologiabidezkoa* esaterakoan, instituziobidezkoari kontrajartzen zaio, erakundeak publiko zein pribatuak izan. Euskararen kasuan, nahiz eta estandarizazioa gauzatzeko lehen urratsak Euskaltzaindia sortu zenekoak izan (ikus

Euskera, 1992), jarrera arauemailerik ez du (zaio) bereganatzen 1968 arte. Aurreko presioak, gomendiozkoak dira, eta autoreen arabekoak. Esan behar, euskarak ez duela euskarazko irakaskuntzarik izan, ezta testugintzarik, ezta hiztegitza ofizialik, etab.

Era berean, homelakoetan, *ez-determinista* izaterik besterik ez dago. Eginmolde tradizionaleko prozesuan ezinezkoa da espero diren emaitzak alde zuzenetik zedarritzea, hau da, hasieran inplizituki amaieraren nolabaiteko kontrola izatea.

Arlo hau bukatzeko, deskribatu egoeraren ondorioz edo, eta literatur tradizioen arabera, «lau norma» edo «norma lau-koitza» izan duela euskarak esan behar.

EUSKARA BATUA

Hemen ezin gara Euskara Batuaren aurrehistoria, historia, gorabehera, eta abar birgogoratzen hasi. Gainera, guztiorik nezakeen neurrian behintzat, egina dago. Gai honi buruzko bibliografia ugaria da. Kultura bibliografiko oso bat sortu duela esatea, ez litzateke arinkeria. Nolanahi ere, kontsiderazio pare bat egin nahi nuke.

- Euskara Batua, historikoki, ez da soilik arazo linguistikoko hutsa, zerbait askoz zabalagoa baizik. Euskal bizitza osoaren instantzia kritikoaren bideratzaile bilakatu zen: alderdi politikoena, forma sozialena, ohiturena, literaturarena, etab. Euskara Batua «urbanoa» dela esaterakoan eta aurreko hura «baserriarra», auzipean dagoena ez da bi forma desberdinen arteko kontua, bi mundu edo bi eduki baizik. T. Agirreren *Gara* nobelako irudiaren arabera, «baserriaren tesia» «kalearen tesia»ri kontrajartzen zaio. Euskara Batuaren identitate historikoa, hizkuntzazkoa ezezik (baino gehiago) sozio-kultural-politikoa da. Dena den, garai hartan (1960-70) Euskara Batua *corpus* linguistikoko gisa eginkizun dago, ez da oraindik segurua bere «formatan» ezta iritzietan ere, ez da tinkoa... batasun psikologiko baten ilusioa eragin eta bideratzen bazuen ere. «H»a bera bakoitzak bere ustera jartzen du, ez du koherentzia ortografikorik. Zer erreferentzi puntu zen Batua, linguistikoki mintzatuz gero? Zein zen bere literatura? Zer hornidura sozial zen Euskara

Batuarena? Batuaren «marko sinbolikoa» eztabaidatua agertzen zaigu, hastapenetakoa, eta eraikuntza betea baino gehiago «erreakzioa», «aurreko batasuna alferrikakoa dugula» eta «eten dugu lehenengo ideologia bateratzailearekin» dioena.

- Baina ezin uka, halarik ere, Batuak arteroko mentalitate linguistiko eta kulturalaren aldaketa eragin izan duenik. Euskararen estandarizazioa eta normalkuntza izan ditu helburu nagusizat, besteak beste.

BEHAR GORRIEN PEAN BIDERATUTAKO ESTANDARIZAZIOA

Euskara Batuarena, zein ere den ikuspuntua, egoera historiko batean gauzatutako erabaki historiko bat izan dela, ez dago inolako dudarik. (Ik. Michelena, K.... Torrealday, Joan Mari (1977), (156-160 or.). *Jakin*, 34 zk., (1985), Lete, X.) Bibliografiako deskribapenetan azaltzen denaren arabera, sekulako garrantzia du konstatapen batek: ezinbestekoa dela euskararen modernizazioa, bero r ren lehen osagaia estandarizazioa izanik. Modernizazioa, honela definitzen ahal da bere eduki semantikoetan: kultura hiritarra, industrialra, teknikoa eta zientifikoa (Ik. *Jakin*, 34 zk.). Honela, bada, «normalizapena» da euskal hizkuntzarentzat eskatzen den lehen gauza, hau da, kultura modernoaren alderdi eta maila guztien adierazpide izateko gaitzea euskara. Bestalde, eskatzen den hori euskararen eta euskaldunen izenean eskatzen dela, ez dago esan beharrik; baina, hala eta guztiz ere, argi utzi behar da, oraingo honetako Euskara Batua eta «euskalki guztien oinarrian eta 'aurretik' euskara batua dagoela», «Euskararen batasun-bidea funtsezko euskara hori aurkitzea eta arautzea besterik ez da» esatean bi objektu ezberdinez ari garela. Horrelakoetan, ez da komeni erreduktibismorik egitea, zeren eta «betidaniko euskara batuak» eta Euskara Batuak —maiuskulaz ematea truku ortografikoa besterik ez da bi objektuak bereizteko— bi ibilbide ezberdin suposatzen baitute, ondoren ikusiko dugunez. Nondik, bestela, diskurtso hura: «iraultza», «urbanoa», «aurreratua, aurrerakoa», «dena hankaz gora jartzea», eta abar? Eta nondik, «euskara batuaren» etsai izan gabe, Euskara Batuaren etsai bilakatzea?

Arestian esan da, 1968a dugula estandarizazioan mug a-marra garbiena eta bi joera desberdinen mugarri, hizkuntz eta hizkuntz politikaren mentalitate osoa kuestionatzen delarik. Erregimen zaharrari beste berri bat kontrajartzen zaio. Ildo honetatik, hizkuntza arazo politiko eta nazional bilakatzeko da, aurreko urteetan inoiz ez bezala, estandarizazioa, normalkuntza, modernizazioa eta nazionaltasuna elkarlotuz.

NORMATIBA TRADIZIONALAREKIKO DAKARREN DIFERENTZIA KUALITATIBOA

Nik honako jauzi kualitatiboak seinalatuko nituzke:

- Lehenengo eta behin, Euskara Batuak, zer eta «bere eskuko legea» nahi du, «euskara, hizkuntza osoa» aldarrikatuz. Euskararen eta euskararentzako «prestigiozko norma» ezin da alboko erdaretan ipini. Barrutikako itzala eta «gora» nahi ditu euskararentzat, erdarek gain-ezarri dioten «kontra-norma» esplizitatuz eta baztertuz. Horregatik, euskararen barneko garapena planifikatzea da jarrera berriaren helburuetariko bat. Lotsa alboratu, munduaren eta bezeroen aurrean, txiki edo handi, baina «osoa» azaldu euskara, inola ere ez gutxitua, edo a-normala. Duela urte batzuk, agintari batek esan zuen hura, «izan gaitetzen serioak: fisika nuklearra euskaraz azaltzea ezinezkoa da», eta oraintsu beste batek, «euskarak etxean ibiltzeko balio du», gezurtatu beharko ditu. Exigitzen duena edozein hizkuntzari zor zaiona da, bizitza osoa eta kultura osoa euskararen bitartez ematea. Euskal Kulturaren arima izatea: eskolan, unibertsitatean, administrazioan... Laburbilduz, beste hizkuntzen pareko izatea, eta ez menpeko. Euskararen bezeroen artean politikariak, funtzionariak, goimailetako giza taldeak, burgesak, enpresariak... nahi dira. Zentzu honetan, erantzukizun historikoa bizkarreratzen da. Hona, bada, normatiba berriak dakarren lehen jauzi kualitatiboa: prestigiozko normatasuna eskuratzea, hots, *ofizialtasuna*, eta ez literaturazkoa bakarrik. Dena den, maila horretara iristeko, giza errealitatea falta zaio euskara estandarri, giza sail edo talde sozial homogenoa. Hori gabe, «fikzio» huts, «entseiu» eta «itzulpen» bilakatzeko arriskua dago.

- Bigarren ezberdintasuna, *norma laukoitzatik bakarera* igaro beharrak dakarrena da. Eta hau kontu serioa da. Zer egin aurreko literatur tradizioarekin? Nolatan eskaini literatura euskaldunei? Zein literatura? Bere horretan utzi? Galdu? Batuaz eman? Pena merezi ote «*Abarrak*» batuaz ematea? Azken batez, batuaren norma «berriak» nolatan tratatuko ditu aurreko beste lau literatur tradizioak, hots, norma «zaharrak»? Eta berriro ere, euskararen batasuna, zelan ulertu behar da, zentzu numeriko batean, ale bakarra bailitzan? Hari-mutur hau, geroago hartuko da.

- Hirugarren ezaugarri deferentziala, *eraqiletzarena* da. Protagonista berriak dira euskal hizkuntzaren plazan. Norma ezartzeko era, modu eta agente berriak. Euskara Batuak erakundebidea hartzen du bere ezarpenerako: Euskaltzaindia, —arau emailea—, Eskola eta Unibertsitatea, Irrati eta Telebista, Argitaletxeak, iragazki eta kontrol ofizialak, dekretuak, eta abar. Eta hau, lehen aipatu dudan norma psikologikoaz guztiz bestelakoa dugu. Zeharo garbi eta zorrotz mintzo zaigu honetaz Aita Villasante, esanaz:

«Bada, ordea, zerbait Euskaltzaindiari artez eta zuzenki dago-kiona, berak bakarrik egin dezakeena, ezin utzizkoa duena, bere zeregin hautatua eta propioa duena. Beste hitzez esanik, galde dezagun Euskaltzaindintasuna, nolabait esan, zertan da?»

Erantzuna ez da zaila: hizkuntzari buruz arauak ematea. Horretarako dauka autoritate bat, eginbide eta eskubide bat, berari bakarrik eman zaiona. Hizkuntzan beharrezkoa da honelako autoritate bat egotea, honelako arauak emateko. Baina bat bakarra». (...)


«Euskaltzaindiak ez du, bada, monopoliorik nahi euskararen aldeko lanetan: ez ikerketan, ez literaturan, irakaskuntzan, etab. Aitzitik, nahi du guztiok lan egin dezagun. (...) Baina, beste aldetik, hizkuntza erabiltzeko orduan zenbait gauza erabakiak eta baterauak egotea derrigorrezkoa da, eta gauza horiek erabakitzeke autoritatea norbaitek eduki behar du, eta hori hain zuzen, Euskaltzaindia da.» (A. Luis Villasante (1988), 135-140). (Egia esan, 135-140 orrialdeetan Norma ezezik Euskaltzaindia bera ere birdefinitu eta berrinterpretatu egiten da).

- Batuak dakarren jarrera normatiboaren laugarren ezaugarria —betiere normatiba tradizionalarekiko—, *erabilera gidatu bat* proposatzean datza, alde zuzetik esaten baita gauzak

nolatan gertatuko diren edo beharko luketen geroan. Emaitzak eta helburuak aurretiaz definituak daude. Hizkuntza ondo lotzeko eta zatikatuagoa ez dadin, hain zuzen. Hasieran, implizituki, amaiera dugu, aldeztatik emaniko irteera. Eta ezinbestekoa da hipotesi bakarria formulatzea.

Esandakoagatik, eta atal honen konklusio gisa, zuzena derizot ondorengo baieztapenari, normatiba tradizionalak, normatiba anglosaxoniarrera edo egiten duela, eta 1968tik geroztikoak, eredu frantsesera. Nire pertzepzioa eta hipotesia egiaztatzeko, konpara beza irakurleak A. Luis Villasante (Op. c., 132-140 or. eta J. Intxausti (1989), «Iraultzaren hizkuntz politika», in *Jakin*, 51 zk., 69-85 or.)

Hona hemen bi jokabideen eskema:



EGOERA BERRIAREN ZURRUNBILOAN

Larregi ez luzatzearren, apunte modura arituko naiz. Gainera, jakinegiak gara guztiok, batzuk eta besteok, bakoitzak nondik jo dugun hizkuntzaren hautapenak bete-betean harraipatu gaituenean. Eta ez dirudi erdibiderik egon denik. Joeren erabilera manikeorik ez da falta izan gure artean.

BI POLARIZAZIO

- *Euskara Batua/Euskalkiak*. Bi esperientzia euskararekiko: honako honetan, bizkaieraz irakasten dute, eta harako hartan, batuaz. Ofizialistak eta separatistak; benetako nazionalistak eta sasi-nazionalistak.

- *Bi pertzepzio eta sentsibilitate*: euskarak, biziko bada, ezin bestekoa du batasuna. Eta alderantziz, ez dago euskararik, euskara bizirik gabekorik. Elkarrekiko susmo txarrak. Bi «korrekzio» sistema: alde bakoitzak izan ditu bere mugazainak eta bere mugalariak, hots, «aduaneroak» eta «matuteroak», leialak eta saltzaileak. Alderdi bakoitzean izan dira leialtasun eta saldukeri kontuak. Bi alergia: dialekto kutsua duten esamoldeei hipersentsibleak; Euskalkitarak.

- *Bi eskema operatibo*: alfabetatze eta euskalduntze-prozesuetan; eskoralaratze-irizpideetan; argitalpenetan; irrati eta telebistarako nondik norakoetan; irakasleen hautaketan... Puntu bakarreko apologiak eta proselitismoak. Bi Akademia. Paralelismoa.

Dibertsitatea tratatzeko ekinmolde kontrajarriak: euskalkiek dakartzaten ugarikeria eta debaldekeriak ezabatu beharko, bizi nahiez gero; edota ezinbestekoak, itoak gertatuko ez bagara. Bi bide: batasuneranzkoa; euskalkietarakoa.

DISKURTSO BERRIAK

Alde bakoitzak, bere gustora aurkeztu du auzia bezeroen artean. Izan dira diskurtso eraikitzaileak edo paratzaileak, hots, zientifikoak eta iturri honetakoak, baina badirudi dibulgaziozkoak askosaz ere ugariagoak izan direla, eta ez pentsa erraza denik jakitea non eta zein diren egiazko azalpenak eta egiazko bazter nahasleak. Badira zuri-beltzean gauzatutako diskurtsoak: pan-batuzkoak, pan euskalkietakoak, esperantoak eta hiperbizkaierak, «argizkoak» eta «kaotikoak». Absolutuak eta zatikakoak. Baina izan dira, zorionez, ganorazkoak ere.

EUSKARA BATUA EDO ESTANDARRA: ERREALITATE KONPLEXUA

Egun, bi erresistentzi mota bereiziko nituzke

1. Norgehiagokari dagokiona. «Ez dugu etsiko» printzipioaren arabera. Jokabide honetan, Euskara Batua/Euskalkiak binomioan alde bakoitzaren funtzionamendua, autonomia ezezik, erreakzionarioa eta alergikoa da.

«Bereburua aurrerakoitzat duenak, ez du lehengo euskararik egingo; bere burua herrikoitzat duenak, ez du baturik edota 'horrelako baturik behintzat' egingo». Hor gauzak garbi daude eta argi erabakita baita ere.

2. Paradoxetatik (egoera paradoxikoetatik) sortu ohi diren erresistentziak. Beste hitzez esanik, errealtate konplexu bati zor zaizkion erresistentzi moduak. Gure arazoari dagokionean, konplexutasunaren zenbait iturburu aipatu ditugu dagoeneko. Berehala ekarriko ditut beste batzuk.

EUSKARA BATUA/EUSKALKIAK: ZERTAN LAGUN ETA ZERTAN TRABA

Euskalkiak korapilo, eragozpen omen dira Euskara Batua-
rekiko. Beharbada, elkarrekiko. Baina, zer diogu «korapilo»
esatean? Termino deskriptiboa ote soilik? Nik neuk termino
honekin zera ulertu nahi nuke, gauzak nahas eta batera suer-
tatzen direneko egoera. Baliteke gauza edo elementu batek
bestea elkar baldintzatzea, baina ez dela balorapenik egiten
pentsatu nahi dut. Korapiloa «problema» litzateke, aurrean
dugun oztopoa, baina gainditu daitekeen horietakoa, inola ere
ez «aporia», hau da, kale itsua. Orain arte esandako guztiaga-
tik, eta gure jokabideari atxikituz, ezinbestekoa deritzot korap-
piloko elementuen errepresentazio-moduei ekitea. Hots, non-
dikoak ditugu korapiloak? Zer da hor korapilotuta dagoena? Zer
da eragozpen? Saia gaitzen, bada, korapiloa behatzen.

Hiru arazo-gunetara bilduko dut hurrengo esatekoa: a)
Batua/Euskalkiak terminoen esanahia eta beraien arteko erla-
zioaren nondik-norakoa; b) Erlazio hori, nolatan pentsa dai-
tekeen; c) Jokabidea gauzatzeko printzipio nagusi batzuk,
edota, zertan lagun eta zertan traba?

- Zer diogu Euskara Batua diogunean? Eta zer «euskal-
kiak» diogunean? Zer erlazio-mota gertatzen da bien artean?

a. Euskara Batua, euskara da, hizkera idatziari dagokion agi-
tekoa eta beste zenbait arazotarako balio dezan moldatu dena.
Bestela esanda, idatziaren estandarizaziorako dago pentsatua
batez ere Euskara Batua. Arau-mota bat da, arau kodifika-
tua, atan be. Beraz, eta oraingoz behintzat, ez da ahozkoaren

e redua, eraginik izango duen arren. Edozein kasutan, ez dator ahozkoa «ordezkatzera». Euskara Batuaren egitekoa, honenbestez, hizkuntz estandarra izatea da.

Estandarizazioak, nolana ere, hizkera igonago, kultoago baten inguruan mamitu ohi den portaera soziala eskatzen du, beste hitzetan, hizkuntz komunitate barnean erabilera «zuzena» zedarritzen duten arau eta usadio multzoen kodeketa eta onarpena. Kodifikazioa, bestalde, hizkuntz zaintzaileei dagokie, idazle eta idazkariei, talde profesional eta kualifikatuei, aditu eta hizkuntz kontu horien ardura dutenei. Eta horrelaxe jakinarazten zaio hizkuntz komunitate osoari, beharrezkoa dela hizkuntzaren etengabeko zatikatzea geldiaraztea, elkar-komunikazioa ziurtatzeko elementu egonkorrez hornitu behar dela mintzaira, etab. Arteroko erabilerei (euskalkie) nagusitu beharko zaie aukeratu aldaera, erabilera kultoetatik baztertuz euskalkiak. Hala, hizkuntz mailako aldaketa, arautzea eta finkapena (ortografiarena, morfologiarena, sintaxiarena, hitzen mailegutza moduarena, eta abarrena) ezezik, gizarte mailako aldaketa eta arautzea exigitzen ditu estandarrak. Aldaera estandarizatua, erakundeei eta arestian aipatu agenteei atxikitzen zaie, beraien elkar eragintza moduak, balore eta xedeak bideratzen dituelarik. Azken batean, «ord re scripturel» deitu ohi den hura. Kodifikazioa, beraz, ez da hizkuntzari berariaz zor zaion ezaugarria, hizkera berezi bati gainezartzen zaion tratamendu soziala baizik. Zeregin batzuetarako, dugun estandarra hobetsi eta beharrezko bihurtu beharko da (hartaz baliatu eta hura balia), eutsi egin beharko zaio, laster batean ezinutzizkotzat joz. Zentzu honetan, fabore merkea egiten diote hizkuntz estandarri gure Lehendakari eta beste goikargudunek, bakoitza bere euskalkietan eta hizkeran mintzatzen direnetan.

b. Bestalde, zer dira eta zer errepresentatzen dute euskalkiek? Euskararen hizkera bereziak dira, baina kasu batzuetan nolabaiteko «normatasuna» garatu dute, literatur alderdiari dagokinean behintzat. Euskalkien karakterizazioan lurraldeak edo geografiak badu zerikusirik. Euskara Batuaren onarpenak, hots, ofizialtasunak, haien jaiskera eragiten(-go) du arrazoi sozialei dagokienean, eta soilik euskalkiak izatera baztertu, hots, eremu mugatuak (balorapen linguistikoa eta soziala).

Egia esango bada, euskalkien artean ere izan da elkarrekiko balorapen eta lehiarik, norgehiagoka sozialik.

c. Euskara Batua eta Euskalkien arteko harremanen nondik-norakoa zirriborratua geratu da aurreko lerroetan. Dena dela, korapilo-korapiloan gaudenez, zertxobait gehitu nahi nuke.

Euskaltzaindiak, Euskara Batuaren eta euskalkien arteko harremanaren oinarriak eta irizpideak argi utzi zituen Bergarako Kongresuan, «euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla», esanez, betiere «ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz». Geroago, sarritan mintzatu da gai honetaz (ikus, 1979ko, martxoaren 9.eko agiria, eta *Euskera*, 1981 (683), 1982 (451), 1982 (433), 1983 (343), 1984 (185-191), eta abar luze bat. Halaz ere, praktikan, gauzak ez dira horren baketsuak eta bateratsuak gertatu, Euskara Batuaren onarpena ez baita erabatekoa izan. Gogora dezagun lehenago ekarri dugun pasarte luze hura. Horregatik, argi utzi behar da, hizkera estandarra ez dela inolaz ere arazo tekniko hutsa, azken batean, prestigiozko norma rena egiten baitu, eta prestigiozko normaren homogenotasuna ez da «teknikoa», axiologikoa baizik. Zera esan nahi dut, prestigiozko normari, halaxe izatea, ez dagokiola gramatikazko arrazoiengatik (arrazionalismo gramatikala edo linguistikoa), talde sozial baten eraginagatik (arrazionalismo axiologikoa) baizik. Hautatu erabilera ez da hautatzen zuzenena delako, edo formarik gramatikalena delako, den bezalako erabilera edo forma delako baizik. Hortik du koherentzia, hain zuzen. Eta, guztiori hortxe korapiloan dugu. Horrela, ez da nahikoa aldaera (erabilera-norma) ahulen aldeko agiriak eta ateratzea, era berean aukerak, bideak eta baliabideak ere eskaintzen ez bazaizkie. Bergauza esan daiteke Batuari dagokionean ere.

- Euskara Batuaren eta Euskalkien artean desberdintasunak direla ez dago dudarik. Areago, badirudi interes-sare ezberdinak hartaratzen direla, interesok askotan elkarren aurkakoak edo paraleloak direlarik. Nola pentsatu eta formalizatu desberdintasunok eta elkar eraginok? «Dialektika» honetako zerbait jokabide lehenago deskribatu dugu. Dialektika baina gehiago, «monolektika» zirudien hark. Esan beharra dago, egun —errealitatea eta ikerketak medio— izugarri zentzutu eta tajutu

dugula guztiok, batzuk eta besteok, gure diskurtsoa. Horretara, zenbait gogoeta ekarriko dut:

a. Zein ere den «Euskara Batua/Euskalkiak» pentsatzeko modua (erreflexioa), euskararen egoera kontuan hartuz eta egoera haren onerako beharko du izan.

Abiapuntu egokia deritzot K. Zuazok «Euskalkien geroaz» (*Jazten*, 1989, Iraila, 1.zk.) proposatzen duenari, zeren eta euskalkien geroa —eta euskalki guztiena— euskara baita, eta ez erdara(k). Eta hori laguntzera eta gauzatzera datorkigu, besteak beste, estandarra. Zentzu honetan, ezer akabatzen eta baloratzen (egoera kaotikoa, zatiketazko troka...) baino gehiago hizkuntzaren beraren garapena eragitera letorke: modernizaziorako eta idatzizko edozein arlotan erabili ahal izateko aukera litzateke. Edozein kasutan, euskalkiak ez dira hizkuntzaren egoera kaotikoak, estandarizazioak horrelakorik leporatu nahi badie ere. Horregatik, nik gaurkoan luzatu nahi nukeen proposamena, ez da interesen eta joeren hala-holako adiskidetzeko-ekitaldirakoa, elkarren errekonozimendurakoa baizik, zeren eta, etsaiak izango direnentz ez badakit ere, gutxienez ezin dira lagun faltsoak edo ustelak izan. Norbaitek esango du, hori paralelismoari bidea ematea dela; jakin beza euskara estandarrek izango dituela euskalkiez bestelako tentsio eta desobedientziak. Agian, badituela dagoeneko! Eta ez dira «bizkaieradungandikoak». Nik ez dihardut *funtzionamendu paraleloak* aldarrikatzen; bai, ordea, *dimentsio* eta *exigentzia pluralak* proposatzen, hots, lekto anitzak. Pentsa liteke, lekto-aniztasuna, ez ote den gero gehiegikeriazko luxuetan ibiltzea; ez dugu, zoritxarrez, inolako luxurik, errealitateak baitiosku gurea ez dela ugaritasunaren dialektika, eskasiarena baizik; eta apur horri eutsi behar zaio, batez ere murriztapenak galera baldin badakar. Honenbestez, Euskalkiak, lekto ezberdinak...ez dira halabeharrezko gaitzerdiak, ezta euskal gramatikaren arerioak ere; era berean, euskalkiek modu positiboz jo beharko dute beren gainetik dagoen norma edo lekto estandarra, haren printzipio nagusiak onartuz eta errespetatuz, horretan ere ez baikabiltza luxuetan. Harremanak horrela pentsatuz gero, nolabaiteko «autonomia» luke erabilera bakoitzak, bere lege, arau, norma eta guzti, hizkuntz mailen arabera. Bestela aritzea, elkarri «motoa» saltzen ibiltzea iruditzen zait.

b. Esan berri dugu, Euskara Batua/Euskalkien arteko harremanak modu positibo batean pentsatu beharra dagoela, hau da, ezberdintasunak, interesak, indarrak, etab., dialektika positibo batean eman beharko direla, lehenengo eta behin, haiek identifikatuz, eta ondoren, errekonozimentua praktikatuz. Baina, diferentzia eta tentsio guztiek ez dute iturburu bera. Zentzu honetan, arazoari modu zientifikoagoz ekin behar zaiola uste dut. Iruditzen zait, zenbait diskurtsotan —batez ere, bigarren eskukoetan—, gogoeta-objetua mugikorra suertatzen dela, objetuen artean galtzen garelarik sarriegi. Esan nahi baita, kontraesanak eta doako baieztapenak uste baino ugariagoak direla. Mota honetako errflexio teoriko bat burutu nahiez gero, derrigorrezkoa da eremu desberdinetako zientzien presentzia. Sinplekeriak ondorio okerreko itsats luzea izan ohi du. Egoera bakoitzean jakin beharko da zein den auziaren iltzea eta nora jo. Hona zenbait une nagusi:

1. Hizkuntzaren estandarizazioa eta hedapena, bi prozesu ezberdin dira, hala xedeari dagokionean nola egitasmo eta baliabideetan. Ez dakit arazo beraren kara eta zaldi direnentz, baina iruditzen zait bi tratamendu diferente zor zaiela, behin eta berriz aipatu ditugun arrazoiengatik: besteak beste, estandarizazioaren eta hedapenaren eragileak ez dira berberak, ez dute programa edo egiteko bera, eta gainera, interes eta hizkuntzarekiko kontzientzia desberdinak azaltzen dituzte. Azken batean, indar sozial ezberdinak isladatzen dituztelako.
2. Gauza bera gertatzen da estandarizazio-prozesuaz eta eskolatzeko-prozesuaz (ikus, Idiazabal, I., Ocio, B. (1990)). Badakigu, estandarraren transmisiorako saialeku aparta eta propioa dela eskola-sarea, eskola «ordre scripturel» delakoari estuki lotzen baitzaio. Eskolak edozein «norma» onartu ez eta, ikasgelak «korrekzio-toki» gertatzen dira, batez ere klase apalenek jaso ohi dituztelarik zuzenketa handienak. Badakigu baita ere, eskola eta etxea bi ingurugiro desberdin direla, hala intelektualki (gaiak, etab.), nola —eta batipat— soziologikoki (interesak, erreferentziak, etab.). Beraz, ez da gauza erraza izango estandarizazioaren eta hedapenaren bi normak uztartzea eta suspertzea. Umeak etxetik dakarrenari eutsi nahi baitzaio, —eta

agian bultzatu, inolaz ere ez ordezkatu— zorrotz eta tentu handiz erabaki eta jokatu beharko du eskolak. Gainera, badakigu eskolako normak etxeokan eragina duela. Zama handiegia eskolarentzat!

3. Euskara Batua, produktu sozial gisa aurkeztua izan da, beste hitzetan, zerbait egina eta osotua bailego, corpus linguistikoan eta tratamendu sozialean. Besterik da, ostera, errealitatea. Dena den, Batuaren kodifikazioari ekin behar zaio, kodifikazio hori batez ere idazkeran isladatuko delarik. Hizkera idatzia esaterakoan, «ord re scripturel»a adierazi nahi da, ez letrazko maila edo grafiazkoa soilik. Ez dut uste espazio edo toki fisikoen kontua denik, adibidez, eskola, unibertsitatea, irratia, telebista, etxea, auzoa, etab.; dimentsio eta exigentzi maila kontua litzateke batez ere: gaiarena, mintzagaiarena, autoritate-intantziarena edota enuntziazio-instantziarena, portaerarena, berbal-di-motena, elkarreragin-moduena, helburuarena... horiek lirateke estandarra-euskalkiak (hizkera gisa) erabakitzeko benetako parametroak.
4. Ene uste apalean, hizkuntz egoeraren azterketa sozilinguistiko zientifiko baten falta nabari da. Kontzeptu soziologikoez, eduki edo indize linguistikoz hornituagoak beharko lirateke azaldu. Zein litzateke, kasureko, «behargin edo langile» bat, eta zein berari legokion perfil linguistikoa? Ez dezagun, gure barik, beste zatiketa oker bat asmatu: Batua vs Euskalkiak = estandarra vs ez-estandarra = jakitunen hizkera vs ez-jakitunena.
5. Hizkera idatzian ziren eta diren estualdiei behar bezala erantzuteko ekin zaio estandarizazioari. Baina, ahozkoa erabat kanpo geratu da; kanpo ezezik, neurri handi batean, baztertua eta «juzgatua» ere bai. Egia esango bada, hizkera idatziaren inguruan egin dira egin izan diren ikerketa gehienak, eta hantxe dute, seguruenik, «ekarpen» edo gerorik ahulena euskalkiek. Ahozkoaren murrizta erabatekoa da. Ia-ia ez dugu ahozkoaren irakaskuntzarako metodorik ere. Lanak izango ditugu gauzak bere onera ekartzen eta orekatzen. Eta honek bereziki ukitzen du euskalkien esparrua, hots, erabilera ez-estandarrik.

Espazio propioagoak edo, zehazteke daude. Badirudi gero-rako baizik berandurako utzi dela ahozko euskara.

6. Bestalde, Batua/Euskalkiak arazoan ez daude euskaldun guztiak berdin konprometituak; askok ez daki zer pasatu den edota zer pasatzen den ere. Are gutxiago zer etorkizun duen batak eta besteak. Ezin zaio —eta errespetu osoarekin diot— txirrindulari bati «batuaz» mintzatzea eskatu, nahiz eta telebistarako izan. Ez da hori bere neurria, ez baita telebistako lokutorea. Euskaraz arituz gero, mintza dadila segurtasun gehien duen kodean. Herriari, estandarizaiorako deialdia luzatu zaio, baina zein da hari dagokion erantzukizuna? Ikasi beharra ala onartu beharra? Badakigu hitz egiten jakiteaz ez direla hor akabatzen hizkuntzari buruz jakin behar diren gauzak, alfabetatua izatera edo iritsi behar baitu hiztunak. Baina, hortik estandarraz jabetzera bide luzea dago.
7. Inplikazio pedagogiko eta didaktikoei dagokienez, intuitiboki jardun da, ditugun formalizapenak norantza bakar-rekoak eta parametro gutxitakoak direlarik. Eta zuzena eta egokia ote da berdintasun formala, alde zuzeneko diferentziak tratatzeko?

- Oraintsu arte, euskara euskalkietan soilik bizi izan da (ez, horratio, batasunik eta normarik gabe!), eta gaur bertan ere euskalkietan funtzionatzen du neurri handi batean, ahozkoan behintzat. Oso kontuan izateko datua da berau. Zentzu hone-tan, euskalkietan funtzionatzea, euskararen onerako litzateke, inolaz ere ez haren kalterako. Ez da luxua, beharizan histo-riko bat baizik. Areago esango nuke, norbere euskalkiaz gain, beste bat gehiago ezagutzea, mesedegarri litzatekeela, zeren eta erreferentzi puntuak ugariagoak eta seguruagoak izango direlako orduan. Ildo honetatik, euskalkiak gaur egun erfe-rentzi puntu derrigorrezkoak dira, ez bakarrik erabilera pro-gramatzeko orduan, euskara behar bezala lantzeko baizik. Eta Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusiari eta Euskararen Aholku Batzordeari dagokie, Batuaz bestelako aukerak, bideak eta pedagogiak asmatzea.

Hona beste kuestio bat: nolatan bilakatu egun euskarazko hiztun, ahalegin horretan larrua utzi gabe edota bizi guztia

hipotekatu gabe? Hara, euskararen solas edo lasai-espazioak behar ditugu, hiztunari lazoa jartzen baitzaio beti eta alde guztietan, hiztun «idealaren» lazoa, hain zuzen. Euskaldun jatorra, urruneko intxaurraren parekoa da: hartaratu eta ezer ez da. Zeintzuk dira gure komunitatean euskal hiztun izatearen goi-barrenak? Zein norma da berea? Egia esango bada, oso heterogenoa dugu hiztunaren figura, ustela gero. Aitorren hizkuntzan ere, seme guztiek ez dute «gora» bera izango, eta hiztun askoren elea, belearen elea «bihurtzen» da mikrofono bat aurrean jartzen diogunean. Bestela esanda, haren euskalkia eta hizkera, azkeneko mamu gorria gertatu ohi da, eta bizkaiera-duna bada, euli-kaka eta azken putza. Hiztuna amaierarik gabeko ipuina da: ez-gaia, gaia baino juxtokoia, alfabetatu gabea, alfabetatua, euskaldun osoa, hobea, jantzia, goimailakoa, eredugarria... Horrelako kontuek morala jaten diote bati, gauzak alde aurretik ez badira erabakitzen. Euskara Batua ez da erabilera oro epaitzeko norma, eta euskalkiak ez dira estandarren norma.

Amaitzera noa eta iralurleak ez du, seguruenik, «Euskara Batua/Euskalkiak» arazoari buruzko laster-bide edo errezetarik aurkitu aurreko lerroetan, beharbada irtenbide hutsezinik ez dagoelako. Gehiago, baliteke neke berriekin topatzea. Horregatik, jardunari ekiteko hipotesia bat eginez bukatzen dut: «*euskara batua/euskalkiak*» arazoa bere konplexutasunean ikusmiratzeak —aipatu datua kontuan izateak, besteak beste— zenbait ondorio eta efektu negatiboren «neutralizapena» eragin dezake.

BIBLIOGRAFIA

- ETXEBARRIA, M. (1988): «Normalización y uso del euskara en la administración», *Revista Española de Lingüística*, Julio-Diciembre, Gredos, Madrid, 330-341 or.
- HUDSON, R.A. (1981): *La sociolingüística*, Anagrama, Barcelona.
- IDIAZABAL, I.; OCIO, B.: «Estandarización y escolarización: procesos paralelos e independientes. El caso del euskara», in Siguán, M. (coord) (1990): *Lengua del alumno, lengua de la escuela*, ICE-Universitat, Barcelona, 197-209 or.

- LAKA, I. (1986-87): «Hiperbizkaieraren historiaz», *Anuario «Julio de Urquijo»*, XX, 705-754 or.; XXI, 13-40, 409-424, 727-811 or.
- LAKARRA, J.A. (1986): «Bizkaiera zaharra euskalkien artean», *Anuario «Julio de Urquijo»*, XX, 639-681 or.
- MARCELLESI, J.B.; GARDIN, B. (1979): *Introducción a la socio-lingüística*, Gredos, Madrid.
- MICHELENA, L.: «La normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco», in *Lengua y Literatura*.
- MITXELENA, K. (1972): «Pro domo», in *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, Etor.
- MITXELENA, K.: «Aurkezpena», in I. Sarasola, (1983), *Hautalanerako Euskal Hiztegia*, GAP, Donostia.
- SCHOENI, G.; BRONCKART, J.P.; PERRENOUD, Ph. (1988): *La langue française est-elle gouvernable?*, Delacaux & Niestlé, Paris.
- VILLASANTE, A.L. (1988): *Euskararen auziaz*. Estella.
- ZUAZO, K. (1988): «Diglosia dela eta», in *Jakin*, 47 zk., 105-114 or.
- ZUAZO, K. (1989a): «Euskalkien geroaz», in *Jazten* (1989), Iraila, 1 zk.)
- ZUAZO, K. (1989b): «Euskara ote da bizkaiera?», *RIEV*, XXXIV, 75-90 or.

EUSKALKIAK, ASKATU GABEKO KORAPILOA

KOLDO ZUAZO

Euskaltzaindiak euskara batuari bere babes eta onspena eman zioneko mendelaurdenaren atarian gaude (1968-1993). Mendez mendez bizirik zirauen buruhauste larria konponbidean sartzea lortu zuen horrenbestez Euskararen Akademiak.

Bada euskaldunon baitan mendez mendez bizirik dirauen beste buruhauste bat ere, baina oraingo honetan, ostera, ez dugu konponbide egokia aurkitzen asmatu: euskalkiei dagokien esparruez eta erabileraz mintzo naiz.

Euskalkien gai hori 60-70etako hamarkadetan jarri zen azkenengoz pil-pilean, baina, plazaratu zen unean eta plazaratu zen eran plazaratu zelako, korapiloa askatu beharrean,

nahasi eta gaiztotu baizik ez zen egin. Euskara batuari kontrajarri zizkion zenbaitek euskalkiak eta hauen alde zeude-nak haren aurkako eta haren aldekoak hauen aurkako bilakatu ziren ezinbestean.

Orain, beraz, euskara batuak bere bidea egin duenean eta haren beharra inork gutxik ezbaian jartzen duenean, badela garaia dirudi zentzuz eta soseguz eztabaidari ekiteko atzera berrir. Eta eztabaidari argi apur bat egite alde etorri nahi luke nire txosten honek.

Gaia zabalegia denez, ezingo ditugu, jakina, zoko-moko guz-tiak arakatu eta, hortaz, hiru alderdi erakustera mugatuko naiz: a) euskalkien arteko hierarkiak, b) hizkuntzaren batasuna eta c) etorkizunari begira oharrak.

EUSKALKIEN ARTEKO HIERARKIAK

- 1754 aldera idatzi zuen Larramendik bere *Corografía de Guipúzcoa* eta, bertan (Larramendi: 1969, 285) dioenez, gipuzkoarren hiru laurdenak ez omen zuen sasoi hartan gaztelan-iarik ulertu ere egiten. Euskaldun elebakarra omen zen gehien-go.

Gutxi batzuk omen ziren gaztelaniaz hitz egiteko gai, baina hala eta guztiz ere, berau zen hizkuntza nagusia, gaztelaniaz mintzo zelako Gipuzkoako handiki eta jende ikasia. Nekazariak, olagizonak, merkatari txikiak... ziren euskarari atxikiak zirau-tenak.

Larramendiren esanok hizkuntzen arteko desoreka, gazte-lania eta euskararen arteko hierarkia, salatzen dute argi eta garbi. Gaztelania ageri zaigu hierarkia horren gainaldean eta euskara, berriz, azpialdean:

$$(1) \quad \frac{G}{A} : \frac{\text{gaztelania}}{\text{euskara}}$$

- 1764ean idatzi zuen Xabier Munibek, Peñafloidako kon-deak, *El borracho burlado* opera eta ohar bi egin zituen Hi-

tzaurrearen amaieran. Honela zioen lehenak (Munibe: 1907, 389-390):

La primera se dirige à aquellos que notaràn la mezcla que se hace del Vascuence y Castellano, pareciendoles mas regular el que todo fuese en uno de los dos Idiomas. Digo, pues, que mi primera idea fue de que toda esta Opera fuese en Vascuence; pero luego me saltó la dificultad del Dialecto de que me havia de servir en ella. Si me valía del de Azcoytia hubiera sido poco grato à todo el resto del País hasta la Frontera de Francia, por la preocupacion que tienen contra el Vascuence ó Dialecto de Goi-erri, y si queria usar del Dialecto de Tolosa, Hernani, San Sebastian, & c. exponia à los Actores à hacerse ridiculos; pues sería difícil que todos pudiesen imitarle bien. Por esta razon, pues, me huve de contentar con reservar el Vascuence para lo cantado, haciendo que todo lo representado fuese en Castellano.

Zer azpimarratu asko dago ohar honetan. Alde batetik, Gipuzkoako handiketakoa zen Munibe eta, horrenbestez, gaztelaniaz idaztera zeraman garaiko ohiturak. Nagusi zebiltzan jorei aurka egin nahi izan zien, ordea, berak.

Bigarrenik, euskalkien arteko tirabirak ez direla atzo goizekoak, ez direla, esate baterako, euskara batuak ekarriak, ikus dezakegu. Aitzitik, bizi-bizirik ageri zaizkigu gutxienez ere behin XVIII. mendearen erdialderako.

Hirugarrenik, Hego Euskal Herrian —Frantziako mugaraino, bere hitzetan— bazela euskalkien arteko hierarkia bat aditzera eman zigun Munibek. Hierarkiaren gainaldean Tolosa-Hernani-Donostialdekoa, hots, Beterriko gipuzkera zegoen eta azpialdean, berriz, gainontzeko guztiak, Goierriko gipuzkera horien artean.

Laugarrenik, hierarkiaren gainaldean dagoen hizkera eder eta dotore iruditzen zaigun bitartean, baldar eta itsusi begitantzen zaigula azpialdean dagoena —Goierrikoa, oraingo honetan— adierazi zigun, era berean, Munibek. Ninyoles (1972, 105) soziolinguista valentziarraren hitzekin esateko: «El prestigio engendra el prejuicio».

Esan dezadan, azkenik, Munibek XVIII. mendean erakutsitako hierarkia hori sendotzera eta baieztatzen etorri dela beranduagoko beste zenbait, Lardizabal zaldibiarra adibidez. Honek ere 1855ean plazaratutako *Testamentu zarreco eta*

berrico condaira ez zuen berez zegokion Goierriko gipuzkeraz idatzi, Beterri aldekoan baizik.

- 1761ean argitaratu zen Agustin Cardaberaz hernaniarraren *Eusqueram berri onac* eta hauxe irakur dezakegu bertan (Cardaberaz: 1973, 157):

Bizcaitarrac berac, ascoc beñtzat, gure Dialectoan berenean baño predicatcea naiago dutela: eta Bizcaico Predicadore asco gurean predicatcera oitu edo, eguin dirala.

Aintzakotzat hartzekoa Cardaberazen adierazpen hau. Gipuzkeraren ganako lilura bizkaitarren ere hedatua zegoela ikus dezakegulako alde batetik. Bizkaitar batzuek —askok, Cardaberazen arabera— euren euskalkiari muzin egin eta gipuzkeraz hitz egitera jotzen omen zutelako bigarrenik eta Bizkaian ere joera hauek oso sustrai sakonak dituztela ohar gaitzkeelako hirugarrenik.

- Eta jarrera hauek bere horretan iraun dute gaur arte. 1968koa, ia geure egunotakoa beraz, da Villasanteren lekukotasuna. Honela mintzo zen oñatiarrek euren hizkerarenganako zeukaten iritzia zela eta (Villasante: 1968, 82):

«Euskera ona, Tolosa aldekoa. Kiputz-aldekua». Lelo au ere maiz entzuten da. Sermoi, itzaldi eta liburuetarako beti euskera ori erabiltzen da. Eta hori eskatzen du jendeak ere. Emen Oñatin ere bai. Ango euskera apain eta dotoretzat jotzen da. Bertsolariek ere ura maite dute.

Orain arteko lerroetan argazki modura erakutsi diren lekukotasunek¹ garbi asko erakusten dute gaztelania eta euskararen artean dagoen hierarkiaren antzeko beste bat egon dela eta dagoela Hego Euskal Herriko euskalkien barruan. Beterriko gipuzkera dugu hierarkiaren gainaldean eta gainerako guztiak azpialdean:

$$(2) \quad \frac{G}{A} : \frac{\text{Beterriko gipuzkera}}{\text{gainontzeko hizkera eta euskalkiak}}$$

- Euskalkien arazoa bere osotasunean aztertuko badugu, ezin Iparraldea alde batera utzi. Bizkaiera bazen Hegoaldean istilu-iturri, zuberera dugu Iparraldeko buruhauste-sortzaile

nagusi. Biok dira, izan ere, nortasun bereziko euskalki eta bai Bizkaian eta bai Zuberoan euskararenganako atxikimendua bizi samarra izan da beti.

Eta ezinbesteko baldintzak dira bi hauek. Nortasun bereziko euskalkiak ditugu, halaber, zaraitzua edo erronkaria esate baterako, baina haran bi hauetan ez da, dakigula, euskalki gatazkarik sekula piztu. Euren kezka ez datza euskalki bata ala bestea hobestean, euskara ala gaztelania hobestean baizik. Beste era batera esanda: euskalki istilu eza euskararenganako atxikimendu ezarekin lotuta egon daiteke haran bi horietan.

Baina Iparraldera bihurtuz, izan da han ere euskalki hierarkiarik. Lapurdiko «kostatarra», hots, Ziburu, Donibane-Lohizune, Sara eta Azkaine inguruetakoz hizkera, jo ohi da eder eta dotoretzat, eta, kostatarrak bereganatu badu hierarkiaren gainaldea, behenafarrera, zuberera eta Lapurdiko gainerako hizkerak geratu dira azpialdean.

Badira diodana sendotzera datozen lekukotasunak, behenafarrieri dagokion Saroïhandy (1920, 122) hizkuntzalariaren hau, esate baterako:

Le bas-navarrais, qui aurait pourtant, lui aussi, ses titres de noblesse, est considéré par ceux-là mêmes qui le parlent de naissance, comme une langue *grossière* ne méritant ni d' être écrite ni d' être étudiée.

• Zubereraz den bezainbatean, honelaxe mintzo zen, berrikitan oraindik, Txomin Peillen (1975, 21) bertako semea:

Lapurtar triunfalismoak zuberotar azentua, fonetika, irrigai, parregai bezala dauka, eta jende bezala mespretxatzen gaituzte «buru arinak» garelakoz. Tribukeria horrek nere probintziarrak euskaltzaletasunetik maiz urrundu ditu, eta bizkaitarrei bezala «euskaldun gaizto» sentimendu bat sortu, euskararen atzerakadaren zio bat izan dena Zuberoan.

Iparraldean ere, beraz, frantsesa eta euskararen arteko hierarkiaz gain, badagoela euskararen barruko beste bat nabari da:

(3) $\frac{G}{A}$: $\frac{\text{Lapurdiko kostatarra}}{\text{gainontzeko hizkera eta euskalkiak}}$

Baina orain artean ikusi gabeko alderdia ere agertu digu Peillenek hemen: hierarkiaren gainaldean dagoen hiztunak azpialdean dauden hizkuntzenganako erakutsi ohi duen begirune eta arreta txikia.

Ingelesa da nazioartean hierarkiaren gainaldean dagoen hizkuntza eta, behin baino gehiagotan esan ohi denez, anglofonoen artean omen dago elebakarrik gehien proportzioan. Badaki anglofonoak bestek ikasi beharko duela bere hizkuntza eta ez berak besterena. Ingelesez gaizki edo ozta-ozta mintzo den atzerritarren aurrean dagoenean ere ez du maiz haren solasa ulertzeko ahalegin txikienik egingo eta bai, inoiz, haren lepotik irriz eta barrez jardungo.

- «Bardin Burgos eta Marquina» dio XVI. mendean jaio eta bizi zen Esteban Garibai arrasatearrak bildutako errefraua. Ez dela egoki herri txiki bat (Markina) eta hazi bat (Burgos) maila berean jartzea eta bata bestearekin alderatzea adierazi nahi du errefraua.

Ez ditut nik ere maila berean jarriko ingelesa eta mundu zabaleko beste hizkuntzen arteko hierarkia batetik, Estatu espainiarrean gaztelania eta gainontzeko hizkuntzen artean eta Estatu frantziarrean frantsesa eta gainontzekoen artean dagoena bigarrenik eta Euskal Herri barruan euskalkien artean dagoena hirugarrenik.

Baina badira hierarkia horietan guztiz antzekoak diren ezaugarriak. Hierarkiaren azpialdean dauden hiztunengan beti garatzen dira euren hizkuntzarenganako lotsa-komplexuak eta, hierarkia orekatu eta berdintzekotan, ezinbestekoa izango dute aurriritziak alde batera utzi eta nork bere hizkuntza erabiltzeari, lantzeari eta prestigiatzeari ekitea. Orobat euskalkiei dagokienez.

Hierarkiaren gainaldekoek, aldiz, azpialdekoenganako arreta eta begirune handixeagoa erakutsi beharko lukete. Horretan huts egitetik etorri ohi diren kalteak ere ageri-agerian dauzkagu geure iraganean eta hona hemen adibide ezagun bat.

XX. mende honen erdialdera euskararen batasunerako eredu ospetsu bat plazaratu zen. «Gipuzkera osotua» deitu zitzaion eta zuzen islatzen zuen izenak izana, gipuzkera zeukan

eta oinarritzat. Azpimarratzekoa, bizkaitar bat —R. M. Azkue— izan zela beronen sortzaile eta azpimarratzekoa, era berean, bizkaitarrak batez ere izan zituela bultzatzaile. Horien artekoa zen Andima Ibiñagabeitia elantxobetarra eta 50eko hamarkadan, «gipuzkera osotua» gainbehera amildu zenean, giputzen chauvinismoan ikusi uste zuen berak gainbehera horren arrazoietakoa bat (Ibiñagabeitia: 1952, 239):

Izkelgiz gipuzkoar yaio diranei oartxo bat egin nai nieke bukatu baño len. Gipuzkoarrak erakutsi digute ontan ere targorik zoroena. Akademiak aspaldi erabaki zun aditz laguntzallean *dut*, *duzu* ta urrengoak erabiltzeko, *det* eta *doten* orde. Orra, gipuzkoarrak oraindik agindu aditzeratara malgutzeke; beti ere beren zorigaiztoko *det* erabilki agertzen zaizkigu (...). Yau-nak, zuek ere ikasi ezazute zuenetik zerbait uzten batasunaren onerako. Besteok askozaz ere erauzketa aundi eta mingarriagoak egin bear izan ditugu zuen izkelgi ederrari indar emateko.

Partaide eta epaile aldi berean ezin izan daitekeenez, bizkaitar baten lekukotasunak ez duela sinesgarritasun handiegirik auzi honetan esan lezake norbaitek. Susmo txarrak uxatze aldera, Mitxelenaren adierazpenak ere ekarriko ditut bertora. Gipuzkoarra izateaz gain hizkuntz gaietan aditua zenez —eta honegatik batez ere—, aintzakotzat hartzekoa deritzot haren iritzari. Eta erabatekoa eta biribila izan zen hura ere bere herrialdekide zenbaiten jarrera txokozale eta chauvinista salatzeko orduan (Mitxelena: 1959, 171):

Ni giputza naizen aldetik, naiz ez izkeraz giputza izan, gauza bat esan bear *dut*: izugarrizko pekatu bat egiten ari gerala gipuzkoarrok azken bolada ontan ikako formekin. *Gatxabil-izek* eta orrelakoak Gipuzkoako txoko batean bakarrik erabiltzen dirala. Euskaldun guztiak *giabiltzak*, *gebiltzak* edo olako formak erabiltzen dituztela. Beraz, *gatxabilizek*, *natxe-torrek* eta oiek lokalismo estu estuak dira Gipuzkoan. Eta nik eztut uste gipuzkoarrok (...) eskubiderik dugunik forma oiek euskaldun guztiak zabaldu nai izateko.

Beraz, hierarkiaren azpialdekoek lotsa-konplexuak uxatu eta nork bere euskalkia erabiltzeari ekin beharko liokeela banioen, hierarkiaren gainaldekoek euren jarrera chauvinista, txokozale eta probintzianoak uxatu beharko lituzketela ere esango nuke. Jarrera horiek uxatu eta euskararen osotasuna, eus-

kalkietan sakabanatuta dagoen osotasuna, aintzakotzat hartu. Euskalkietan barreiatuta dauden hitz, esapide eta egiturak ezagutu eta, egoki denean, erabili. Horixe da bidea «gipuzkera osotua» galdu zen bezala, «euskara batua» gal ez dakigun.

HIZKUNTZAREN BATASUNA

- Txanponaren alde bata ikusi ondoren, eman diezaiogun besteari ere begiratu bat. Hizkuntza barruko arazo bat aipatu dugu eta esan dezagun hizkuntzaz kanpokoez ere zer edo zer.

«Euskaldunok munduan ez dugu parerik» dio kantak, baina antzekotasun zenbaiten oihartzuna behinik behin nabari da han-hemen. Urrunegi ere ez ditugun katalanei ikustaldi bat egiten badiegu esate baterako, aspaldi honetan, euren hizkuntzan gertatzen ari diren aldaketa miragarriak direla eta, biziki asalaturik dabiltzala ohartuko gara. Eta badute, bai, horretarako arrazoirik!

Katalanez idatzi zuen Ramon Llull XIII. mendeko mallorcar idazle handiak, baina gaur egun oster, *mallorquí* hitz egiten dutela eurek, eta inola ere ez katalanez, aldarrikatzen du uharte hartako zenbaitek.

Katalanez egiten omen zituen bere predikuak Vicent Ferrer XV. mendeko valentziar saindu ospetsuak, baina askotxo dira gaur egun Valentzian, bertako hizkuntza ez dela inondik inora ere katalana, *valencià* baizik, su eta gar baieztatzen dutenak.

Eta Katalan Herrietako beste bazter batzuetan, halaber, oraindik ere hain aspaldi ez dela katalanaren «dialekto soil» zirenak «hizkuntza oso» bihurturik ikusten ditugu gaur egun: *eivissenc* Ibizan, *lleidatà* Lleidan, *fragatí* eta *aragoná* *peraltí* administrazioz Aragoi baina hizkuntzaz katalan diren Fraga eta Peralta de la Salen, etab., etab.

Euskal Herrian ere gerta dakiguke horrelakorik. Mailak maila eta aldeak alde, baldintza berberak betetzen dira Katalunian eta hemen.

Katalanak bezalaxe, zatituta gaude euskaldunok administrazioaren aldetik: 1) Euskal Autonomi Elkarte (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa), 2) Nafarroako Foru Komunitatea, 3) Baionako

arrondizamendua (Lapurdi eta Nafarroa Beherea) eta 4) Oloroeko arrondizamendua (Zuberoa, Biarno erdaldunarekin batera).

Katalunian bezalaxe, euskara ez da izan —eta zenbait herrialdetan oraindik ere ez da— hizkuntza ofiziala. Baztertuta egon da eta baztertuta dago administrazioan, irakaskuntzan, komunikabideetan eta beste hainbat esparrutan.

Idatzizko zereginetarako nahiz beste herrialde batzuetako euskaldunekiko harremanetarako beti izan ditugu eskura gatzelania zein frantsesa. Geure ingurukoekiko ahozko jardunera mugatu dugu beti euskara. Eta horretarako, jakina, euskalkiekin genuen nahikoa. Zer hobe, gainera, euskalkiak baino!

Bada, ostera, euskaldunok katalanengandik bereizten gaituen ezaugarri bat. Bartzelona da Katalunia osoko hiriburu nagusi. Bartzelona da Kataluniako demografiaren, ekonomia-
ren, politikaren, kulturaren... ardatz eta giltzarri. Katalanek eurek esan ohi dutenez, Kataluniako «cap i casal» da Bartzelona. Bartzelonan sortzen dira ereduak eta Bartzelonatik igortzen eta hedatzen dira hara eta hona. Orobat hizkuntzazkoak.

Euskal Herrian ez dugu horrelako hiriburu bateratzailerik. Bilbo da denetan haziena, baina Bilboren eragina ez da Euskal Herri osora, ezta Hegoalde osora ere, hedatzen. Herrialde-mailakoa, Bizkai mailakoa da Bilboren eragina. Eta Bizkaitik kanpo, Gipuzkoako Deba arrora eta Arabako Aiara eskualdera (Laudio-Amurrio ingurueta) mugatu da bere eragina.

Euskal Herrian ez dago, alegia, ekonomiaren egitura makrozefalikorik, buru bakarreko egiturarik, buru anitzekoa baizik: Bilbo Bizkaian eta beronen ingurueta, Gasteiz Araban, Iruñea Nafarroa Garaian eta B-A-M (Baiona-Angelu-Miarritze) hiri-bilgunea Iparraldean. Buru anitzeko joera hori areagotu egiten da Gipuzkoan. Bertan, Donostiaz gain, han daude Irun, Errenteria, Tolosa, Beasain-Ordizia, Zumarraga-Urretxu, Arrasate, Bergara eta Eibar.

Euskal ekonomiaren egitura honek bere eragin zuzena izan du hizkuntzan: indar sakabanatzaileei bideak erraztu zaizkie eta indar bateratzaileei, berriz, zaildu. Beste era batera esateko: hauxe dugu Euskal Herrian eredu estandar bakarra eraiki

ahal izateko aurkitu dugun oztopoetako bat eta hauxe, era berean, hain herri txikian historian zehar 4 (lau!) literatur euskalki (lap., gip., bizk. eta zub.) eraiki izanaren arrazoietako bat.

Lau literatur euskalki garatzeaz gainera, euskalkien eta hizkeren arteko aldeak ere areagotuz eta sakonduz joan dira, hizkuntzaren batasuna galduz eta hautsiz joan den neurri berean.

Erraz froga daitekeen egia da hau baldin eta euskararen bilakaerari begiratu bat ematen badiogu: elkarrengandik gertuago zeuden euskalkiak XVI eta XVII. mendeetan orain dauden baino. Hori dela eta, euskalkiek gaur egun ageri dituzten «bereztasun» asko eta asko —gure arteko euskalkizale sutsu zenbait hainbeste liluratzten dituztenak— azken orduko berrikuntzak baizik ez dira batzuetan eta besteetan, aldiz, antzina euskalki guztienak izanik, gero, gainerakoetan galdu ostean, euskalki jakin batek edo bestek baizik atxiki ez dituenak.

Euskara batuak geldiarazi zuen, hain zuzen, hizkuntzaz kanpoko indar horien eragina. Batez ere berak ekarri zuen euskara idatzizko edozein esparrutan erabili ahal izateko aukera. Batez ere berak ekarri zuen herrialde ezberdinetako euskaldunek elkarren artean euskaraz jardun ahal izateko aukera eta, batez ere, berak ekarri zuen gaur egun hainbeste aipatzen den euskaldunon *trinkotzea*, bateratu egin gintuen eta euskara batuak. Eta lorpen guzti horiek ezin ditugu inondik inora bertan behera galtzen utzi.

Eta, Katalunian bezalaxe, izan dira hemen ere zatiketaren arriskuak, denetan larrienak zuberera eta bizkaieraren baitan gauzatu direnak.

- Ez dut ukatuko, ezta zalantzan jarriko ere, zubereraren nortasun berezia, baina, bereztasunak bereztasun, zuberera ere gertuago zegoen beste euskalkietatik iragan garaietan egun dagoen baino.

Arestian esan denez, Lapurdiko kostatarra izan da Iparraldeko hizkuntz eredia. Nagusitasun horrek, ordea, XVIII. mendera arte baizik ez zuen iraun bete-betean, eta, behin kostatarraren gainbehera etorri zenean, nork bere bidetik jo zuen

a u r rera. Pixkanaka-pixkanaka, elkarrengandik aldenuz joan ziren Iparraldeko euskaldunak, baina, Zuberoari dagokionez, 1926an gertatu zela dirudi erabateko etena.

Frantziako Iraultzaren ondorioz (1790) arrondizamendubitan banatu zen Iparraldea: Baionakoa eta Maulekoa. Eta bigarren honetan, Zuberoarekin batera bildu ziren Nafarroa Behereko kantonamendu batzuk ere: Donapaleu, Iholdi, Donibane-Garazi eta Baigorrikoak.

1926an, oster, desegin egin zen Mauleko arrondizamendua. Baionakoari erantsi zitzaizkion Nafarroa Behereko kantonamendu guztiak eta Oloroekoari, bera bakar-bakarrik oraingoan, Zuberoa. Erabaki honen bidez, gainontzeko euskaldunengandik zeharo bereizirik gertatu ziren zuberotarrak eta, aldi berean, Oloroeren menpe ezarri zituztenez, euren nortasunari eusteko ahalmen eta bitartekoz gabeturik.

Administrazioaren aldetik jasaten duten banaketa honekin lotuta dagoela esango nuke, nik neuk, zuberotarrek euren buruaz daukaten iritzia, herri berezi eta apartekoa osatzen duten iritzia. Eta iritzi horrek eraginda, nonbait, aurretik zegoen hierarkia irauli eta beste bat eraikitzen ahalegindu dira. Zuberotarrak eurak —benetako ùskaldün bakarrak— leudeke, horrenbestez, hierarkiaren gainaldean eta Iparraldeko besteak —«manex» gaitzetsiak—azpialdean:

$$(4) \quad \frac{G}{A} : \frac{\text{zuberotarrak}}{\text{manexak}}$$

Hizkuntzan ere izan du bere oihartzuna iritzi honek. Zuberotarrak oso harro, oso fier, azaldu dira euren euskalkiarekin, euren [ü] bokal, azentu eta aditz-joko bereziekin, euren hitz eta esapide paregabeekin. Honelakoetan gertatu ohi denez, gainerako euskaldunekin *batzen* dituzten ezaugarriak alde batera utzi eta haiengandik *banatzen* dituztenei eman diete maiz lehentasuna, ohartu gabe, jakina, ustezko ezaugarri berezi horiek erdaratik mailegatuak direla sarri.²

• Arazo larriak sortu ditu bizkaierak zubereraren aldean. Zuberera bezalaxe, geografikoki bazter-euskalkia da bizkaiera

ere eta, edozein hizkuntzaren bazter-dialektotan jazo ohi denez, ezaugarri multzo kontrajarri bi aurkitzen ditugu eurotan. Gainerako dialektoetan galdutako arkaismoak atxikitzen dituzte batzuetan eta, aitzitik, eurok dira berrikuntzen sorleku bestee-tan.

Bizkaierari dagokionez, beste baldintza bi ere betetzen dira gainera. Euskaldun-kopuru hazi samarra da bizkaieraz mintzo dena eta euskararenganako atxikimendua ere bizi samarra izan da beti Bizkaian.

Atxikimendua biziegia bada eta hizkuntza bere osotasunean aintzakotzat hartzen ez bada, jarrera chauvinista eta txokozaleak garatzen direla ikusi dugu giputzez mintzatzerakoan eta antzeko zerbait gertatu zitzaioela dirudi Juan Mateo Zavala bizkaieraren lehenbiziko gramatikaren (1848) egileari. Hitz hauekin jakinarazi zigun nondik-norakoa izango zen bere jokatibea (Zavala: 1848, vi):

Advierto que en caso de variantes escojeré los que me parecen formados con mas regularidad, aun cuando no estén tan bien recibidos, especialmente si los han usado algunos de nuestros escritores. (...) A veces pondré unos y otros dando la precedencia á los mas uniformes como en los de las 2as. personas de singular y las. del plural de la conjugacion pura de indicativo en activa *dozuz, dituzu; doguz, ditugu;* y en la mista *cintzan, cinean; quintzan, guinean.*

Bizkaieraren lehen gramatikaren egile izateak badu bere esangura berezia, gramatiketara jotzen duelako edozein hiztunek arau eta oinarri bila. Zavalak aurkeztutako arau eta oinarriek ere izango zuten, horrenbestez, euren oihartzuna.

Baztertu egin zituen Zavalak *ginean, zinean* adizkiak esate baterako eta *gintzan, zintzan* hobetsi. Eta, oster, lehenbizikoak dira Bizkaitik kanpoko euskaldun guzti-guztiek erabiltzen dituztenak. Lehenbizikoak dira bizkaieradunek eurek ere, askok behintzat, erabiltzen dituztenak eta lehenbizikoak dira Bizkaiko XVI eta XVII. mendeetako idazleek erabili zituzten bakarrak. Eta Zavalak, hala ere, bigarrenak hobetsi zituen, horiexek zirelako bere ustez zuzen eratuak, «formados con más regularidad» eta «los más uniformes», alegia.

Zavalak urratutako bide beretik haren ondorengo asko —R. M. Azkue, besteak beste— abiatu zen, Zavala bera baino urru-

nago iritsiz. Zavalak baztertutako *ditugu*, *dituzu* ez ezik, *ditu*, *zaitu*, *zaitut*, *gaitu*, *gaitue*... ere baztertu zituzten, berauen ordez *dauz*, *zauz*, *zaudaz*, *gauz*, *gauez*... hobetsiz. Azkuek (1923-25, 689) esan zuenez, Arabako Zigoitian erabiltzen ziren soil-soilik honelako adizkiak, baina hauexek ziren bere ustez, euskara zaharretik, euskara jatorretik, gertuen zeudenak. Uste ustela Azkuereña, erabat bestela da eta kontua. Zigoitia aldeko euskaldunek beren kasa, analogiaren legee jarraituz, egingdako berrikuntza hutsak dira horiek; inola ere ez han gordetako arkaismoak.

Honainokoa laburbilduz, XIX. mendean zehar, bizkaiera literatur euskalki bilakatu zenean azaleratu zirela jarrera chauvinista eta txokozaleak esan daiteke. Orduantxe eman ziren gairontzeko euskalkietatik, eta baita bizkaieraren beraren betiko tradizioetik ere, aldentzeko urratsik bizkorrenak.

Zavala, Azkue eta abarren ahaleginekin batera, erabakiorra gertatu zen Arana-Goirenen esku hartzea. 1896an plazaratu zen bere *Lecciones de Ortografía del Euskera bizkaino* liburu mardula. Euskara estandar bakarraren aurkako agertu zen bertan, nonbait ere Euskal Herriaren izaerarekin ez zetorrelako bat asmo hori. Egitura federala aldarrikatu zuen Aranek Euskal Herriarentzako eta hizkuntzaren plangintzan ere egitura horri eustearen aldeko agertu zen. Sei ziren, Nafarroa Garaiak eta Behereak estatu bakarra osatu beharko zuten, Aranaren ustez eraiki beharreko literatur euskalkiak. Bere hitzekin esateko (Arana-Goiri: 1980, 823):

Lo razonable es, pues, que dentro del Euskera se construyan, por de pronto, tantos dialectos como regiones hay dentro de Euskera que han sido políticamente distintas en la historia, y que cada uno de esos dialectos se forme con los elementos gramaticales y lexicológicos más puros que hoy se encuentran esparcidos en los diferentes subdialectos y variedades de la respectiva región.

Bizkaian errotu ziren Aranaren tesiak, Bizkaian errotu eta indartu zelako berak bultzatu zuen Alderdia eta lehendik ere ereinda zegoelako bertan hazia. Lehia bizian ekin zioten bizkaitarrek —jeltzale bizkaitarrek batipat— bizkaieraren apartekotasunak erakustearren eta Aranaren usteak egia bihurtzearen. Baina oraingoa ere usteak ustel zirenez, gezur bihurtu

ziren ustezko egiak. Diodanaren lekuko bikaina izan daiteke K. Eleizalde jeltzale ezagunak *Raza, Lengua y Nación vascas* liburu ezagunean aditzera eman zuena (Eleizalde: 1911, 268-269):

Quizá sería más propio hablar de *lenguas euzkéricas* que de dialectos. Pero entonces no serían ya tres, sino dos, puesto que el dialecto pirenaico [zub., b-naf., aezk., zaraitz. eta erron. osatua] podría agruparse con el vascón [g-naf., gip. eta lap. osatua], y resultarían dos lenguas vascas: la *bizkaina* y la *no-bizkaina*; á esta última podría denominársela *vascona*.

(...)

El Euzkera actual procede del choque de dos distintos Euzkeras, uno de los cuales influyó más en el bizkaino que en el vascón.

Katalan herrietan bezala, horra hor, gurean ere, hasieran «euskalki soil» zena goizetik gauera «hizkuntza oso» bihurtua.

Bestalde, Eleizalde «bizkaierarendako» eta «euskararendako» aldarrikatutako *jatorri bikoitza* oso ihesbide emankor bilakatu da gerora. Bizkaierak gainontzeko euskalkiekin zituen kidetasun ugarien arrazoia ulertzeko, kidetasun horiek, mende mendeko harreman estuen ondorioz, euskarak bizkaierari kutsatutakoak zirela esateraino iritsi gara. Kutsadura horren aztaratzat jo dira, jakina, gaur egungo bizkaiera *desitxuratzen* duten *ditu*, *gaitu*, *ginen*, *zinen*... «arrotzak». Bizkaiera jatorra, benetako bizkaiera eraikiko bazen, ezinbestekoa zen euskarak egindako laztasunak leundu eta bizkaieraren berezko azal ezti eta goxoa agertzea. Ezinbestekoa *ditu* ordez *dauz*, *hori* ordez *beilegi*, *etorri ohi da* ordez *etorri doa*... hobestea eta ezinbestekoa, azkenean, «betiko bizkaieraren» ordez bizkaieradundendako euredako ere ezezagun eta ulertezin gertatzen zen «hiperbizkaiera» sasikoa sortzea.³

ETORKIZUNARI BEGIRA OHARRAK

Euskalkien erabilerari buruzko eztabaidan aintzakotzat hartu beharreko gorabehera batzuk, hala hizkuntza barrukoak nola hizkuntzaz kanpokoak, aipatu ditut orain arteko lerroetan. Han-hemen sakabanaturik geratu diren hariak lotzeari ekingo diot ondorengoetan.

- Lehenik eta behin ez zaigu euskalkien auzia handiestea eta bere onetik ateratzea komeni.

Alde batetik, euskalkien arteko ezberdintasunak ez dira uste dugun bezain ugariak eta sakonak. Azalekoak, hiztegi mailakoak dira batez ere eta, jakina denez, erdaretatik mailegatuak dira maiz hitzak. Iragan aldietara, euskara batuago zegoen garaietara begira jartzea komeni zaigu noiz behinka eta Euskal Herri osoan ezagunak eta erabiliak izan diren hitz eta esapideak berreskuratzea, euskaldunon zatiketa ekarri duten azken orduko erdalkeriak ahal den neurrian baztertuz.

Beste alde batetik, euskalkien arteko ezberdintasunak sarritan hizkuntzaz kanpoko indarrek ekarri dituztela ikusi dugu. Aurrrantzean ere indar horiek bizirik —eta are bizitasun biziagoz, gainera— jardungo dutenez, nahitaezkoa da euskararen batasuna bera ere biziago eta sendoago bilaka dadin.

Hau dela eta, hiperbizkaiera, hiperzuberera, hipergipuzkera eta han-hemen azalera litezkeen antzeko joerei ate eta zirrikitu guztiak itxi beharra daukagu. Iltzez eta giltzez —*a cal y canto*, espainiarrek esan ohi dutenez— itxi beharrekoak ditugu euskararen galbiderako ate horiek. Euskalkien benetako nortasuna da zaindu eta babestu behar duguna. Gaur egun *dena* eta iragan aldietan ere *izan dena* da bultzatu behar duguna eta, inondik inora ere ez, *izan zitekeena* edota *izan ledin nahiko genukeena*.

- Euskalkiei buruzko plangintza zehazte bidean, berriz, hizkuntza mintzatuko hainbat esparrutan euskalkien erabilera bultzatu beharko litzatekeela esango nuke. Fernandoren egia iritziko dio askok honi, baina ondotxo dakit buru bezainbeste aburu dagoela honen inguruan ere gurean. Aburuak aburu ez dut, dena dela, honetan luzatzeko asmorik. Esan, hori bai, euskalkien erabilera hizkuntza mintzatuan oinarritzen diren komunikabideetara ere (irradi-telebistara) hedatu beharko litzatekeela nire iritziz. Orobat irakaskuntzara. Bereziki haur euskaldunak eskolatzen diren herri euskaldunetan egokia litzateke norbere hizkera eta euskalkiaren berri izatea eta besterenez ere oinarri batzuk behinik behin eskuratzea.

Arlo bakoitzeko adituek zehaztu beharko lukete euskalkien erabilera hori noiz eta nola gauzatu, baina argi dago, horregatio,

lotsakonplexuak gainditzea batzuen aldetik eta jarrera chauvinista eta berekoiak baztertzea besteenetik ekar lezakeela erabaki horrek.

- Zailago egiten da zer-nolakoa izan behar ote duen euskalkien erabilera hizkuntza idatzian zehaztea, baina hor ere bada abiaburu jakina: lotsa-konplexuak uxatzeari ekitea.

Eurak izan direla euskararen batasunari begira ardurarik biziena erakutsi dutenak aipatzen dute harro bizkaieradunek. Eta badaukate, eduki, euren arrazoia. Bizkaieradunak ziren, ikusi denez, «gipuzkera osotua» bultzatu zutenak, bizkaieradunak ziren «gipuzkera hutsa» ere bultzatu zutenak (S. Altube, P. Belaustegigoitia, K. Eleizalde eta J. A. Mogel bera denen aitzindari), bizkaieradunak dira «lapurtera klasikoaren» aldekoak, bai lehengoak (F. Krutwig, L. Akесо, G. Aresti, M. Arrutza, I. Berriatua, E. Erkiaga, B. Garro «Otxolua», J. Gostiaga, L. Villasante...) eta baita oraingoak (F. Krutwig bera, A. Irigoyen, M. Ertzilla...), bizkaieraduna da «euskara osotua» bultzatu zuen J. Basterretxea «Oskillaso» eta bizkaieradunak dira euskararen batasungintzan, aldez edo moldez, jardun duten beste asko eta asko.

Baina ardura honek sakonean beste zerbait ere estaltzen du: behin eta berriro aipatu dugun lotsa. Hierarkiaren azpialdekoak dira beti euren hizkuntza alde batera utzi eta gainaldean dagoe-na ikasteari ekiten diotenak. Euskaldunak dira gaztelania edo frantsesa ikasteari ekiten diotenak eta espainiarrak zein frantziarrak dira, era berean, ingelesa ikasteari ekiten diotenak. Nekez gertatzen da alderantziz. Nekez ikasiko du espainiarrak zein frantziarrak euskara eta nekez ikasiko du gaztelania edo frantsesa anglofonoak.

Euskal Herrian bertan ere, beraz, hierarkiaren azpialdekoak izan dira euskararen batasungintzan nabarmendu direnak. Bizkaitar eta bizkaieradunez landara, Leizarraga beskoiztarra —baina hizkuntzaz nafarra—, Oihenart eta Chaho zuberotarrak eta ortografiaren batasunaren alde hainbeste ahalegin egin zuten Aizquibel eta J. I. Arana azkoitiarrak dira izen ezagun batzuk.

Nekez azaldu zaigu Euskal Herrian ere hierarkiaren gainaldekoa zeregin horretan eta, azaldu zaigunean, Axular edo

Sarako Etxeberri esate baterako, eurena bultzatzeko eta eurena goratzeko izan da.

Eta hitzak hizpidea dakarrenez, esan dezadan bide batez, ezin eska dezakegula norberak gaitzesten duena bestek aintzakotzat har dezan. Ezin eska diezaioke bizkaitarrak giputzari, ez hango agintari edo hemengo euskaltzaini, bizkaieraren alde lehia dadin, baldin eta bizkaitarrek eurek bizkaiera alde batera utzi eta gipuzkera, lapurtera edo beste zernahi hizkera erabiltzeari ekiten badiote. Eta, ekin ere, ekiten diote sarri!

Baina lehengo harira itzuliz, esan dezadan halaber, lotsa-konplexuak beste arlo batzuetan ere nabari direla.

Gauzak hotz-hotzean aztertzeke, hizkuntza normalizatu bat jarriko dugu eredu: Bizkaian mintzatzen den gaztelania, adibidez.

Nekez esango dugu, gaztelaniaz dihardugula, *vamos a coger la guagua* edo *vamos a comer frijoles*, esate baterako. Eta bada-kigu, jakin, *guagua* eta *frijoles* zer diren, baina *autobús* eta *alubias* esango genuke, hala ere, hemen. Are gehiago, *guagua* edo *frijoles* esango balu norbaitek Ameriketara jaioa edo gaztelaniaz ikasi berria dela pentsatuko genuke. Eta ez bata ez beste ez balitz, sasiletratu eta pedante galanta dela.

Har dezagun orain normalizatu gabeko hizkuntza bat: Bizkaian mintzatzen den euskara, adibidez.

Erraz entzungo diogu bizkaitarrari *ados egon, agian, bederen, bidenabar, ebatsi, haboro, igorri, ihardetsi, noski, so egin..* bezalako hitzik (eta ez dut zerrenda gehiegi luzatu nahi) eta entzuterakoan, gainera, ez zaigu begitanduko gure solaskidea sasiletratu eta pedantea denik. Aitzitik, aho zabalik geratuko gara euskara halako neurrian menperatzen duela ikusirik.

Euskara normalizatu gabeko hizkuntza denez, ez gara ohar-tzen lotsa-konplexuak direla hitz horiek erabiltzera bultzatzen gaituztenak. Eta konplexu horiek gaintzanean datza, nire ustez, bizkaierak —eta euskalkiek, oro har— euskara estandarri egin diezaiokeen ekarpenetarik lehena.

Ez diot nik goiko zerrendatxoko hitzak nahiz horien antzeko besteak zeharo eta erabat baztertu behar ditugunik. Baina, bai badiot, euskara batuak jatortasunean, aberastasunean, zalutasunean, adierazkortasunean eta beste hainbat tasunetan asko irabaziko lukeela baldin eta geure euskalkiko

hitzei emango bagenie «lehentasuna», *bat etorri, baliteke/behar-bada, behintzat/behinik behin, bide batez, ohostu, gehiago, bidali, erantzun, jakina, begiratu...* bezalakoei, alegia.

Baina bizkaitar eta bizkaieradun askok bizkaiera utzi eta, hobe beharrez, gipuzkerara, lapurterara... jotzen duen bezalaxe, gauza bera gertatzen zaigu arlo honetan ere. Lotsa gara, beldur gara, geure betiko hitzak erabiltzen eta gogokoago ditugu urrunekoak. Zenbat eta urrunagoak (hala denboran nola espazioan) orduan eta gogokoagoak gainera. Baina garai eta euskalki ezberdinetako berbak, aldi eta alde ezberdinetako hitzak, horretarako ezinbestekoa den *hizkuntza-senik* gabe nahasiz, hizkera artifizial, ulergaitz eta motela suertatzen da maiz.

Besteren hitzenganako zaletasunak, bizkaieradunengan bizi-bizi ageri denak, desoreka salatzen du azken batean. Aspaldi erakutsi zuen Euskaltzaindiak zein izan zitekeen desoreka horren konponbidea, «Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz» [*Euskera*, IV(1959), 214-215] izeneko txostenean hitzik egokienak zein ote ziren jakiteko irizpideak hiru zirela adierazi zuenean: a) antzinatasuna, b) hedadura eta c) literatur tradizioa.

Honen arabera, ba, eskubide oso-osoa du edonork *baliteke/beharbada, bidali, jakina...* bezalako hitzak erabiltzeko, zaharrak direlako batetik, Euskal Herri osoan ezagunak direlako bigarrenik eta literatur tradizioan ondo sustraituak ere badaudelako hirugarrenik. Eta hori horrela bada, zerbait dago oker gure artean baldin eta *ados, agian, igorri, noski...* bezalakoei, *aipatutako hiru baldintzak bete ez arren ere*, honen arrakasta handia lortu badute bizkaitarren aspaldion.

Bigarren multzo batean ezarriko nituzke *amaitu* (bukatu), *begitandu* (iruditu), *berba* (hitz), *ei* (omen), *hain* (halako), *lain* (adina/beste), *lantzean behin* (noizean behin), *lar* (gehiegi), *legez* (bezala), *neba* (andrazkoaren anaia), *ostera* (berriro/ordea/itzulia), *ugazaba* (jabea)... bezalakoak.

Antzinakoak dirudite hauek ere eta, zeinek zabalagoa zeinek meharragoa, badute euren lekua literatur tradizioan. Ostera, ez dute hedaduraren baldintza betetzen, bizkaieraren eremuan baizik ez direlako erabiltzen. Nik uste, hala ere, izan beharko luketela euren lekua hizkera estandarrean. Aberastu egin deza-

kete euskara, bereziki beste euskalkietan ezezagunak diren ñabardurak adierazten dituztenean, hala nola, *neba*, *berbaldun* (hitz jario handikoa), *berbaro* (hitz hotsa)...

Nolanahi ere, bizkaieradunak lehenago hautatu beharko lituzkeela dirudi *berba*, *lar*... bezalakoak hain gogoko dituen *ele* eta *sobera* baino. Bi hauek ere ez dutelako hedaduraren baldintza betetzen eta, *sobera*-ri dagokionez, mailegu garbia ere (gazt. *sobra*) badelako gainera.

Zalantzak ere izan daitezke, dena dela, multzo honetan. Asteko egun eta hilabete izen zenbait ezberdinak dira bizkaieraz: *martitzen* (astearte), *eguasten* (asteazken), *bagil* (ekain), *zemendi* (azar) ... Bidezko eta legezko ere baderitzot bizkaieraz mintzatzen nahiz bizkaieraz idazten dihardugunean honelako hitzak erabiltzeari, baina ez horrenbeste hizkera estandarrean ari garenean. Ez dut uste asteko egunak izendatzeko adibidez, eta hizkuntza teknikoan oro har (animalia, landare, tresna... izenetan), sinonimia aberasgarri denik eta bai, aitzitik, nahasgarri eta kaltegarri.

Onartu beharrekoak dira, bestalde, aspaldidanik eta euskalki guztietan ondo txertatutako erdal hitzak, *bertso*, *dantza*, *eliza*, *liburu*... bezalakoak. Orobat nazioarteko berriagoak: *aireportua*, *amnistia*, *misil*, *rafting*... tankerakoak. Baina euskalki jakin batek, *besteengandik aldunduz eta bereiziz*, hartutako maileguak ez dira nire ustez hizkera estandarerako hain egoki: gaztelaniatik datozen *amatatu* (itzali), *armozu* (gosari), *atoan* (berhala), *olgau*, *olgeta* (jolastu, jolas), *sano* (oso), edo bizkaieraren eremutik kanpo ere erabiliak diren *beinke*, *derrigor*, *sikira* (gazt. *bien que*, *de rigor*, *siquiera*), esate baterako. Era honetako hitzen erabilera euskalkiaren eremura mugatu beharko litzatekeela begitantzen zait niri neuri.

Hirugarren multzo batean sartuko nituzke, azkenik, (*h*)arean (ezer), *beilegi* (hori), *belu* (berandu), *eguzari* (jai), *ekandu* (ohitura), *enparatuak* (gainerakoak/besteak), *garbatu* (damutu), *ilen* (astelehen), *jagon* (zaindu), *lei* (izotz)... bezalakoak. Multzo honetako hitzak ez dira bizkaieraren beraren eremu osoan ere ezagunak eta erabiliak. Batzuetan (*eguzari*, *ekandu*...), gainera, galduxe eta ahaztuxe daude bizkaieran bertan ere. Zentzuak eta betiko hizkuntza-senak erakutsiko digu mota honetako hitzak noiz eta nola erabili.

Eta honek, bide batez, bizkaierazale sutsu batzuen itsukeria salatzeko aukera dakarkit. J.A. Moguel aspaldikoak bizkaiera osoa bere herriko hizkerara, Markinakora, mugatu zuen bezala, Arratia, Txorierri edo Mungialdekoetara mugatu nahi dute, era berean, oraingo beste zenbaitek eta, giputzen jokabide okerrak aipatzerakoan nioen legetxe, euren txokoko ezaugarriak bizkaieradun eta are euskaldun guztioi sartu nahi izatea ez da ez bidezko eta ez zentzuzko.

Ez dira nonbait ohartu Deba arroraino (Leintz ibarra, Oñati, Bergara, Eibar... inguruetaraino) hedatzen dela bizkaiera eta Gipuzkoako nahiz Gipuzkoa ondoko herri bizkaieradunetan (Lea-Artibai eskualdekoetan, esaterako) euskaldun-kopuru hazia egoteaz gain, euskararen aldeko atxikimendua ere bizi samarra dela bertako hiztunengan. Eta ez da Soziolinguistika-gaietan aditua ez aritua izan behar hizkuntza baten prestigioa eta etorkizuna arrazoi horiexetan oinarritzen dela jakiteko. Ez dezagun, ba, idien aurrean ezarri gurdia gurean.

- Bizkaierak —eta euskalkiek, oro har— hizkera estandarrari lexikosailean egin liezaizkioken ekarpenetara mugatu naiz aurrerako lerroetan. Baina guztiz antzeko bideak urra genitzake hizkuntzaren beste sail batzuetan ere. Harritzekoa da, esate baterako, *bait-* aurrizkiak azken urteotan lortu duen arrakasta handia, *-eta* atzizkiaren kaltetan. Edota *-ri buruz*, *-(z)ear* (*eror-tze*, *hiltze*)... bezalako egiturek berenganatu duten leku zabala, beste batzuen esparruak txikituz eta ahulduz. Modak moda, euskararen beraren ahulezia dakar horrek luzera begira eta euskalkien arnasa gerta daiteke, hain zuzen, euskararen bizigarri eta zuzpergarri.

Eta neure solasaren hondarrera iritsi naizela, azken gogoe-ta batzuk nahiko nituzke plazaratu:

1. Zazpi herrialdeetako euskaldunek begi onez ikusi eta onartuko luketen hizkera estandarra eraikitzea izan da euskararen batasun-bidean aurkeztu den eredu askoren lehen helburu nagusi. Bai Azkueren «gipuzkera osotuan», bai Basterretxearen «euskara osotuan» eta baita egungo «euskara batuan» bertan ere, esaterako, ezin gardenago sumatzen da helburu hori.

Badirudi, ordea, gure arteko zenbaitek oker ulertu duela helburuaren esangura. Uste izan dugu hango eta hemengo

hitz eta esapideak zurrunbilo zoroan nahasiz, bateko eta beste aditz eta atzizkiak nola edo hala uztartuz eta elkarri josiz, konponduta zegoela auzia. Baina borondaterik hoberenaz itsu-itsuan genbiltzala, ez gara nonbait ohartu baldintza bi direla nahitaezko horretarako. Euskara ondo menperatu eta jakin beharra dagoela batetik, baina jakite hori bideratzen eta dotoretasunez erabiltzen ere asmatu beharra dagoela bestetik. Eta honetantxe datza, hain zuzen, edonoren esku eta edonoren irispidean ez dagoen *hizkuntza-sena*. Eta hain begi-bistakoa dirudien egia honetaz ez jabetzetik etorri zaizkigu etorri beharreak.

2. Euskara «urbanoa», euskara kultu eta jantzia eraikitzea izan da bigarren helburu nagusia. Lizardik nahi bezalatsu, «hizkuntza larrekoa» eta baserri-mundukoa zena «noranahiko» eta «jakite hegoek igo» bihurtzeari ekin diogu eginahalean. Baina izan da, antza, honen esangura ere zuzen ulertu ez denik.

Uste izan dugu hizkuntza jaso eta jantzia eraikitzeko ez zela aski apain eta ez zela aski duin geure eguneroko jardunean generabilena. «Larre» usaina zerion nonbait hizkera horri eta, itxura «nobleagoa» izango bazuen, antzinako eta urruneko hitzak beharko genituen geure idazkietan tartekatu. Zenbat eta halako ugariago eta ezezagunago erabili, orduan eta jasoago izango bide zen, gainera, gure hizkera.

Usteak uste, euskara zailtzea eta hiztun arruntaengandik urruntzea izan da jokabide horrek ekarri digun «onura». Irudi batez baliatzea zilegi bazait, benetako oreka «Txirrita» eta «Axular» uztartzean datzala esango nuke nik neuk. Hizkera mintzatua —«euskara bizia», gaur egungo bizkaitar batzuek diotenez— ordezkatzan du «Txirritak» eta gure literatura tradizioa, berriz, «Axularrek». Iturri biak dira ezinbesteko, biak arretaz dastatu eta agortu beharreko.

Labur esanda, euskalkien arteko nahasketa zenbait egiteko eta euskara bere osotasunean aintzakotzat hartzeko premia badaukagu, eduki, euskaldunok. Euskara esparru guztietara, are goi-kulturarenera, hedatu beharra ere badaukagu euskaldunok, baina *nork bere euskalkian oinarri duela, Euskal Herriaren osotasuna begien aurrean dugula eta hizkuntzasena gidari dugula* ekin beharko diogu nahitaez egiteko horri.

ARGIBIDE BIBLIOGRAFIKOAK

- ARANA-GOIRI, S., 1980: "Lecciones de Ortografía del Euskera bizkaino", *Obras Completas (II)*, Donostia, Sendoa, 810-982.
- AZKUE, R. M., 1923-25: "Morfología Vasca", *Euskera* IV, V eta VI, 807-930.
- CARDABERAZ A., 1973: "Eusqueraren berri onac", *Obras Completas de Agustin de Kardaberaz (I)*, [L. Lopetegui, arg.], Bilbo, LGEV, 155-170.
- ELEIZALDE, K., 1911: "Raza, Lengua y Nación vascas", *Euzkadi*, VIII, 163-196, 243-276 eta 323-339.
- IBIÑAGABEITIA, A., 1952: "Kultur bidean", *Gernika*, 21. zb., 237-239.
- LAKA, I., 1986-87: "Hiperbizkaieraren historiaz", *Anuario "Julio de Urquijo"*, XX, 705-754; XXI, 13-40, 409-424 eta 727-811.
- LAKARRA, J. A., 1986: "Bizkaiera zaharra euskalkien artean", *Anuario "Julio de Urquijo"*, XX, 639-681.
- LARRAMENDI, M., 1969: *Corografía de Guipúzcoa* [J. I. Tellechea Idigoras, arg.], Donostia, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- MITXELENA, K., 1959: "Euskalzaleen Biltzarra", *Euskera*, IV, 171.
- MUNIBE, X., 1907: "El borracho burlado", *RIEV*, I eta hh. [J. de Urquijo, arg.]. 2. arg. Bilbo, LGEV, 1969.
- NINYOLES, R. Ll., 1972: *Idioma y poder social*, Madril, Tecnos.
- PEILLEN, Tx., 1975: "Jon Miranderen bizia", *Jon Mirandere-*n* Idazlan Haurtatuak*, Bilbo, Mensajero, 11-29.
- SAROIHANDY, J., 1920: "Cours de langue basque", *RIEV*, XI, 121-132. 2. arg. Bilbo, LGEV, 1969.
- VILLASANTE, L., 1968: "Oñatiko Euskera", *Egan*, 27, 80-94.
- ZAVALA, J. M., 1848: *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino*, Donostia.
- ZUAZO, K., 1987: "Euskaldunek euskalkienganako izan dituzten jarrez", *Anuario "Julio de Urquijo"*, XXI, 927-950.
- ZUAZO, K., 1988: "Diglosia dela eta", *Jakin*, 47. zb., 105-114.
- ZUAZO, K., 1989a: "Zubereraren sailkapenerako", *Anuario "Julio de Urquijo"*, XXII, 609-650.
- ZUAZO, K., 1989b: "Euskara ote da bizkaiera?", *RIEV*, XXXIV, 75-90.

1. Era honetako lekukotasun gehiago ikusi nahi lukeenak Zuazo, 1987 lanera jo lezake.
 2. Zubereraren uestezko apartekotasunen benetako arrazoiez badira ohar batzuk Zuazo, 1989a laneari.
 3. Bibliografia zabala dago hiperbizkaieraz. Ikuspegiarik orokorra Laka, 1986-87; Lakarra, 1986 eta Zuazo, 1988 eta 1989b lanetan eskura genezake.

BIZKAI EUSKARAREN EKARRIA BATASUNERA

ADOLFO AREJITA

Le errohauek azken orduko burutazio-gogoetak baino ez dira, *Jakin* aldizkariak aspaldirik bere egitامuan zeukan asmoari sasoiz eta patxadaz erantzun ez izanagatik, buruak eman-ahala jalkiak. Ene aldetik erantzun hoherik merezi zukeen euskararen alde hamaikatxo luzaroko ahalegin egiten diharduen aldizkari honek, baina —erru kitugarri edo burua zuritzeko esan dezadan— nire gainerako arazo eta ardura nahastetsuek ez didate era gozatsurik eskaini neure egitekoa hobeto atontzeko.

EUSKALKIAREN IZENAZ

Aurre-ohar bat eginez hasiko naiz bizkaiera deitu ohi dugun horren izena dela eta; euskaltzale bat baino gehiago bide dago

mendebaldeko euskalkiari *bizkaiera* deitzeari ondo ez deritzona, Bizkaiaz kanpoko lurraldeetan ere egiten dela eta, Gipuzkoan Lenitz-Debako harroetan, eta Arabakoetan ere bai, jakina. Deitura honi ipintzen zaizkion erreparoak gehienbat Gipuzkoako bizkaieradunen aldetik ohi datoz. Agian ez dira eroso sentitzen euren ezpainetan darabilten berbakera bizkaiera dela aitortu behar dutenean, lurrez Gipuzkoako seme izanik. Baina ez da burua asko nekatu behar beste euskalkiekin ere arazo beretsuak ditugula ohartzeko; hau da, lurralde administratiboaren eta linguistikoaren hedadura bat ez datozela ikusteko. Horrela, gipuzkera Nafarroako Sakana aldean sartzen da, era berean nafar hizkerak Gipuzkoako ekialdean, lapurtera Goi Nafarroako ertzean, behe-nafarrera ere ingurukoetan, eta abar. *Bizkaiera* izena gogoko ez dutenek, *mendebal euskalkia* edo antzeko zerbait proposatzen dute, *bizkai* hitz markatuegi hori saihesteko.

Ene aburuz, ordezkapen horrek gauzak konpondu baino nahastu gehiago egingo ote lituzkeen nago. Zeren mendebaldeko euskalkietan, tradizioz, gipuzkera ere sartzen baita, ekialdeko euskalkiekiko aurkakotasunean. Gauzak ilundu gehiago, argitu baino, egingo luke horrek. Egia da bestalde, *-era* amaieradun eratorriok euskalkiei aplikatzea (*gipuzkera*, *lapurtera*, *nafarrera*, *bizkaiera*) ez dela oso zaharra, *euskara* (edo *euskera*) eta *erdara* (edo *erdera*) diren moduan, baina nolnahi ere zabalkunde handia lortu dute aldi modernoetan, eta euskal idazle eta hizkuntzalarien artean guztiz arrunt bihurtu dira izenok. Eta era horretan, *dialecto vizcaíno* erdaraz edota *bizkaiera* euskaraz. Horrezaz gainera, zehaztasun eta erosotasun handia eskaintzen dute kontzeptua bera adierazteko. Dena den, badira beste izen batzuk sustrai zaharragoa dutenak, hala nola *bizkai euskera* / *giputz euskera*, edota espresio batzuetan *bizkaitarrez* / *kipuztarrez hitz egin*, etab. Larramendik honetara izendatzen zituen bere ustez euskarak zituen hiru euskalkiak: «a si el Ba cuence tiene el dialecto Guipuzcoano, del Señorío, ò Bizcaíno, y Navarro, ò Labortano» (*Arte* 12). Mogel batek, Eibarren jaio, Deban urte batzuk eman eta ia bizialdi guztia mugatik hurreko Markinan igaro zuen gizona izanik, hitz zorroztarekin ebatzi zuen auzia: hark *bizkaiko euskera* eta *kiputz euskera* hitzak darabiltza mendebal euskalki biak izen-

datzeko. Ez zuen asmatu, hala ere, euskara-mota bakoitza administrazio-lurraldearekin identifikatu zuen. Baina hori arteragotik zetorren bekatua zen. Bonaparteri itxaron beharko zitzaion irizpide geografiko eta linguistiko zehatzen arabera euskalkien bereizkuntza egin eta eurotariko bakoitzaren eremua finkatzeko. Zertzelada txiki batzuk gorabehera, hark emana da gaur egun ontzat hartzen dugun euskalki-lurraldea.

Nik, horretan gaurko usadio nagusiari dautsadala, *bizkaiera* eta *bizkai euskara* erabiltzen jarraituko dut, proposamen sendogorik etorri bitartean, eta era berean *bizkaieradun* hitzaz izendatuko ditut berbetaz euskalki honetakoak diren euskal hiztunak.

ORAIN ARTEKOARI BEGIRATUA

BIZKAIERAREN BEHERALDIA

Nahiz lurraldez zabala eta biztanlez ugaria izan, ez dago sakon aztertu beharrik bizkaieradunen gizataldeak azken hamarkadaotan —edo gerratetik gehiago, zehatzak izateko— halako endekatze eta beherakada nabari-nabaria jasan duela ezagutzeko. 1937ko gerrateaz gerokoa dugu gainbehera hau. Bilbo aldean agintean jarri zen goi-burgesiako jendeak ez zion barkatu Bilbo eta Bizkaia abertzale eta «matxinatuari», eta euskalduntasunaren ezaugarriak bereziena zen euskarari arnasarik hartzen ere ez zion utzi hamarkada luzeetan. Gogoan har bedi esaterako, Franco hil aurretik arte, Bizkaian bertsolariak plazetan debekaturik zeudela, eta Gipuzkoara joan behar zuen bertsoan entzun nahi zuenak. Agerkari, liburu, irrati, egunkari eta abarretan zegoen zentsura latzak ere ez zuen neurririk, beste euskal lurraldeetako jokaera bigunagoaren ondoan. Dena dela, XX. mendearen etorreraz euskarak Bizkaian izan zuen lorealdi eta goraldi sendo eta jarraiko hura, gerratea zela medio, bat-batean etenda gelditu zen. Harrezkero sekulako atzerakuntza gertatu zen ondoko garaietan, gaur ere hein handi batean egoera horren zordun garelarik.

Gerraosteko industrializazio bortitzak, berrogeitamargarrenetik aurrera batipat, Bilbo eta ibai-alderdi bietara transformazio gogorra ekarri zuen: inmigrazioa eta erdalduntzea, artean txikiago eta euskaldunago ziren herri askorentzat. Eta desoreka bat ere sortu zuen Bizkai erdi eta ekialdearekiko: lurralderik euskaldunenak gutxi edo astiro hazi ziren, eta Bilbo aldea arin eta asko. Euskaldungoa, Bizkai barruan, erkin-duago eta txikituago gertatu zen beraz.

Euskararen barruko prozesuek ere badute zerikusia bizkaieraren ahulezia honekin. Arantzazuko Batzarraren ostean bizkaiera bazterturik geratuko da eta baztertasunera kondeturik. Berba samur gozo guztiak gorabehera, Euskaltzaindiak sekula ez du ezetariko egitasmorik aurkeztu —ez aurkezterik pentsatu— bizkaiera dela eta: ez irakaskuntzan, ez helduen alfabetatzean, ez komunikabideetan, ez tradizio literarioaren promozioan.

Euskal administrazioa sortzeaz ere ez da argi berririk ikusi bizkaieraren egoera larria dela eta. Hezkuntzarako zenbait ohar gaintetiko gorabehera, ez ikus-entzunezko komunikabideetarako, ez prentsa idatzirako, ez alfabetatze-prozesuetarako, ez administrazio-zereginetarako, ez eskola-planetarako, ez da plan zehatzik egin euskara batu eta euskalkien oreka bati begira. Eta hori baino larriago dena, Bizkaian bertan ez da azpiegitura sendorik sortu euskararen zabalkuntza eta garapenerako.

EUSKALDUNTZE-PROZESUA BIZKAI EUSKARADUNETAN

Igaro diren urteotan aldaketa handiak gertatu dira euskararen eremuan, administrazio, komunikabide eta irakaskuntzan euskarak sarrera izan duenez gero, eta horrek jakina, eragin zuzena eduki du bizkai euskararen ere. Gizartearen euskalduntze horrek orokorrean euskarari ekarri dion onura gutxietsi gabe, alderdirik galgarriena herri-hizkeraren ahozko erabileran gertatu den urritze nabaria izan da, Bizkaian bera-riaz.

Orain hogei urte giro baikorra abiatzen zen euskararen eta Euskalerrriaren geroari buruz. Euskara eta aberria eskutik zihozten: Euskadi bat, euskara bat. Etorkizunaren giltza ez zen

euskaldun hiztunengan jartzen —euskaldun zaharrengan—, ezpada euskaldunberrietan, haiek ziren euskal populuairen gehiengoa eta. Bizkaian indartsu eta adorez sortu ziren euskalduntze-talde eta erakundeetan —orduan Euskaltzaindian integraturik zeudenak— argi zegoen Bilbao, Portugalete edo Barakaldo euskaldundu behar zirela, orduko terminologian *berreuskaldundu* behar zirela, horretan zegoen Euskal herri euskaldunaren esperantza guztia. Euskara urbanoa bultzatu behar zen, uri edo makrourbe erdaldunetan ahalegin egin behar zen.

Euskal administrazioa sortzearekin bide berari ekin zitzaion: kantitatea ipini zen kalitatearen gainetik. Euskal irakasleak ahalik gehien sartu behar ziren irakaskuntza-prozesua euskalduntzeko. Nola-halako titulazioren baten jabe izatea nahikoa zen, euskara irakasteko prestaturik egon zein egon ez; hornitzeko plaza asko zeudenez, arin bete behar ziren eta kito. Euskara erdikin bat zekien jendea hezkuntza-prozesuetan sartzeak ez zuen aldaketa handirik ekarri euskara-arloan, ondorioen aldetik. Gero *Irale*-ren partxeoa beharko zen hutsuneok betetzeko. Bizkaian euskal hiztunen euskarazko eskolatzean gertatu dena sinestu ere ez egitekoa da, eta edozein modutan ere inori ez erakusteko tamainuko lotsaria. Dena den, horretan ez naiz luzatuko, punturik mingarrienetarikoa den arren, ildotik ez urruntzeko.

Euskara urbanoa promozionatu eta herri-hizkera bertan behera uzte horrek bazituen arrazoi sendoak, horren aldekoen iritzian. Herri txiki euskaldunak jendez hustuz edo urrituz zihoazen; uri ertainek ere ez zuten aurrera handirik egiten, eta benetan alderdi guztietatik gora egiten zutenak uri nagusiak ziren. Eta uri nagusiok erdaldunak ziren. Zertan ibiliko ginen bada txibizkerietan bost katu baserri-usainekoren pen-tzuan. Hobe zen *tabula rasa* egin eta eraikuntza berri bat egin, zutabe berriekin. Hor geneukan Israelen eredia ere, sasoi baten ahotan asko erabilia.

Bestalde, behin batasunaren pausua emanaz gero eta eredu bat finkatu guztiontzat balio behar zuena, etzuen arrazoirik bizkai euskara aintzat hartzeak. Ikastola nagusiak uri nagusietan bazeuden, euskalduntze-prozesua helduetan ere bizkor bazihoan, belaunaldi bat edo biren buruan gizarte guztia izango zen euskalduna, eta euskararen ereduari dagokionez,

zuzen eta praktikoena, batua hautatzea zatekeen, atzerakoi-kerietan ibili barik.

Gauzak, gerora ikusi denez, ez dira hain diztiratsuak suertatu. Erdaldunak erdaldun jarraitzen dute gure gizartean, nahiz horietarik hainbat ikastolako saretik igaroak izan, eta beste asko euskalduntze-ikastaro mordoak hartua izan, edo administrazioak ordainduriko euskalduntze-planetan dirutzak eralgitakoak, edota EGA tituluaren jabe izan. Euskalduntasunaren mugimenduak ez du zirkin handirik egin gure gizartean, administrazioaren optimismoek besterik sinestu gura diguten arren.

Baina bien bitartean zer jazo da bizkai hiztunekin, «euskaldun zaharrekina»? Getxon, Erandion, Txorierrian, Orozkon, Galdakaon, Mungian, Zornotzan, Durangon, Gernikan edota bilboratu diren herrietatik joaniko «betiko euskaldun» horiekin? Zer irabazi du euskarak euskaldun horiengan? Zalantza handi barik eta huts egiteko bildur barik ausart naiteke esatera endekatze bat izan duela euskarak betiko hiztunengan, belaunez belaun, gurasoetatik seme-alabetara. Transmisio-mekanismoek huts egin dute neurri handi batean. Norbaitek oraindino pentsa lezake erromantiko baten ardurak direla *etxeko euskararen* segidarik ezarenak. Zer ardura dio bada, umeak ikastolan badabilta eta guk gurasook egiten dugunaren aldean, euskara dotorea eta landua ikasten badute eta gainera, guk ez dakigun bezala, euskaraz irakurri eta idazteko gai badira?

Askok ez du eskarmenturik hartu, ondorioak norbere seme-alabengan ikusi arte. D eredian dabiltazen ume askok, guraso euskaldunen umeak, Gernika edo Mungia lako uri ertainetan, etxeko euskara guztiz trakestua dute, eta darabilten euskara landua ez da euren adineko euskaldunberri batena baino hobea. Bigarren hizkuntzaz ari balira bezala darabilte; gehiagotarako ez dira gauza. Etxeko ekarria zokoratua izan da, txarra zela eta, eta liburuetakoa edo irakasleak emanikoa nahikoa ez gizartean moldatzeko. Konponbidea zein? Errazerraza: erdarara jotzea, guztion eskura dagoen tresna erabilterraza delako. Gaur egun, bizkai hiztunen belaunaldi gazteak erdaraz bizi dira, Bizkaiko gizartean transmisio-katea kasu askotan etenda, beste batzuetan erdi etenda eta gehienetan eteteko zorian dagoela.

Bizkaieradunek euren euskararen ustea galdu dute. Etxeko euskara horrek ez du balio ezertako, beste euskara bat delako balio duen bakarra. Automesprezio hori ez da berez gertatu; hein handi batean goitik bultzatua izan da, batzuetan nahita, beste batzuetan gura ez dela. Azterketetan, lehiaketetan, ahozko frogetan zigortua izan da kasutan bizkai hiztuna; areago, gainera bizkaieraz idazteko ausardia izaten bazuen. Baina beste alde batetik, bere ereduaganako estimazioa hartzen lagunduko dion euskarririk ez du izan: beste eredu bat eman eta erabili delako baliokotzat ikasgelan, mikrofono aurrean, pantaila aurrean, edo jende aurreko edozein gerralditan.

BIZKAI EUSKARAREN HABIAK

Azken hogeitaka urteotan bizkaiera landu eta euskalki honen bidez euskaraz eskolatu eta eredu estandarrera hurbildu diren belaunaldi gazteek bizkaiera ez dute hartu euskara batuaren aurrez aurreko edo kontrako legez, honen osagarri eta aberasgarritzat baino. Hauetariko gehienek batua eta bizkaiera —edo batua zein bizkaiera— landu izan dute, giroaren edo ingurunearen arabera. Joera hori, bestalde, ez da berria bizkaitarren. Mogelen garaietatik bizkaitar idazleek, bizkai euskaraz ostean, giputz euskara edo beste hizkeraren bat erabili izan dute idatziz. Ildo horretatik ibiliak dira Añibarro, Bizenta Mogel, Txomin Agirre, Azkue Resurrección M^a, eta oraintsuragoan Erkiaga, Akesolo, Zarate eta oraintsurago beste batzuk. Arantzazuko kongresu ostean euskara batuaren aldeko edo kontrakoen artean sortu zen auzi latza —*Anaitasuna vs. Agur* (edo itzulitara, nahi bada)— Derioko Ikastaroak gainditu zuen, zeren hark, euskararen eredia dela eta zenbait ideologiak baldintzapeturiko eztabaida antzu horretatik ihes eginik, hezkuntzako metodologia-oinarri behinenak hartu zituen jokatibidetzat, harako hiru esaldietan formulatuak: *Dakigunetik ez dakigunera*, *Hizketa bizitik hizkuntza idatzira*, *Bizkaieratik batura*. Abiapuntutzat bizkaiera hartzen zen, eta ahozko erabileratik hurrenekoa, hartan ere, eta jomugatzat euskara batua, ibilbide horretan tradizio aberatseko euskalkietatik igaroz, gipuzkera eta lapurtera hain zuzen ere. Urteak joan urteak etorri, helduen euskalduntzerako beste mugimenduek ere teo-

ria-mailan behintzat jokabide hori aintzat hartzera edota gutxienez errespetatzera heldu ziren. Esan dezagun, AEK eta HABE.

Azken hamarkada biotan Labayru Ikastegia izan da bizkai euskararen gordairu nagusia, nahiz beste erakunde batzuk ere bizkaiera landuaren arloa jorratzen joan diren. Editorialeetan Eubako *Ibaizabal*, ahozko komunikabideetan *Bilboko Herri Irratia* lehenengo eta *Bizkaia Irratia* azken urteotan, Arratekoak ere gipuzkeraz batera nahastean darabilen arren, irakaskuntzan han-hor-hemengo zenbait ikastola edo ikastetxe, eta abar luze bat.

Bizkaieratik batura aportazio jakinaren gaineko bat egiteko ahaleginak ere egon dira. Mikel Zarate izan zen horretan lehia-tsuenena, baina idazleetan haren bideak jarraile gutxi izan du tamalez, artean Bizkaiko zenbait idazlek nahiago zuelako lapurtera klasikoan edota soilik gipuzkeran oinarritu bere eredu estandarra. Bizkai euskararen ekarria hiztegi bidez sartzeko ahaleginak ere egon dira. Honetan *Adorez* taldearen lana ezinbestekoa dugu.

Bizkaieraren ekarri hori handiagoa izatea galerazo edo mugatu duten arrazoiak badaude. Batetik euskaldunberrien desorientazioa aitaturko nuke. Euskara hutsetik abiatu irakasi dutenek euren prozesuan ez dute bizkaierarekin zerikusirik duen ezer beregandu: euren inguruan euskararik ez balego bezala euskaldunduak izan dira, isolaturik beraz. Horiek gero irakasle, itzultzaile edo idazle bihurtu direnean, jakina, ezin eman zezaketen sekula hartu ez dutena. Euskaldunzaharrekin ere hein handi batean beste hainbeste gertatu da, Irakasle Eskola nagusietan ez delako bizkai euskararik irakatsi. Irakaskuntzari dagokionez ondorioa argia da: gehiengoak ez daki bizkai euskararik, eta etxetik dakienak ez du landu bere hizkera bizia.

GEROARI BEGIRA

EUSKALKIETATIK ABERASTU BEHARRA

Euskararentzat mesedegarri litzateke alde guztietatik handiko eta hemendiko ekarriez aberastua gerta dedin. Aberasta-

sun hori ez datza hala ere kontzeptu berbera adieraziko duten bariante edo aldagarri-piloa gordetzean, hori, sasiak belarrentzat diren antzera, itogarri litzatekeelako euskararentzat. Aldagarrien kontuan amore eman beharra dute euskalkiek forma bakarraren mesedetan. Alabaina astiro ausnartu beharko bat edo beste hautatu baino lehen. Gaur Euskaltzaindian pilpilean dauden puntuetara gatoz: *eritzi*, *nortzuk*, etab. Hone tan ez legoke gaizki Azkuek bere gipuzkera osorako eman zituen zenbait norabide gogora ekartzea. Erdiko euskalkiaren aldeko apustua egiterakoan, albo euskalkietako ekarriak ere beharrezkotzat jotzen ditu, batez ere haren hutsuneei dagokienean. Hona zer dioen bere *Prontuario*-an:

«Habr  que suplir, naturalmente, sus deficiencias con elementos de otros dialectos. Sirva de ejemplo el sufijo *-tzu*, que en guipuzkoano actual s lo se agrega al numeral *bat*; *batzuk* “unos, un grupo”. En bizkaino se agrega aun a los dem s numerales, como tambi n a los interrogativos *nor*, *zer*, *zein*. Justo es, pues, que figuren como guipuzkoanos los vocablos *bitzuk*, *irutzuk*, *zeinbatzuk* [...]. Los vocablos terminados en *ain*, que el guipuzkoano actual los hace *ai*, siendo excepci n de los dem s dialectos, se usar n sin la sustracci n: *artzain*, *usain*, *izokin*, *ipuin*, *arrain*. [...] En vez de *det*, *dek*, *den* se usar n los normales *dut*, *duk*, *dun* de los dem s. [...] Oportunamente se indicar n cien otros pr stamos dialectales de esta especie, apuntando siempre la raz n de haberlos acogido.» (XII-XIII).

Auzia gaur egun ez da gipuzkera bai ala ez, hori gaintitua baita. Baina gogoan hartzekoak dira hark proposaturiko bideak: euskalkien ekarriaren beharra, batzuetan ahaztu egiten dela edo egin nahi dela dirudielako Euskaltzaindiaren erabakietan.

Geure arlora bihurtuz, aldagarrietan gerta daitezkeen hautabehar horien ondoan, besterik dugu sinonimoen arazoa. Kontuan hartu behar da euskara, edozein hizkuntza bezala, giro, gizarte-maila, gizatalde, adin-maila eta lurralde desberdinetan mintzatzen dela —mintzatu, hitz egin edo berba egin, kasu baterako—, eta horrek berarekin dakar erregistro desberdinen erabilera, bai ahozkoan, bai idatzizkoan. Horregatik bada, ene ustez, gauza gutxi dago sobran gure hizkuntzan,

ahal dela ezer ez da jo behar hondakintzat. Zer esanik ez, espresio eta esamoldeei dagokienean: ez diot hizlari bakoitzak, baina ingurune bakoitzak baditu bere esamodu jator eta askotan berezi samarrak. Horiek zertan baztertu ez da. Hizkuntza bidezko produkzioa hain ugaria denez eta areago gaur egungo gizarte modernoan —literatura, kazetaritza idatzia, irrati-telebista, zine-antzerkiak, etab.—, baliabide askoren beharra du gurehizkuntzak kontestuaren arabera halako edo holako diskurtsoa sortzeko. Gure hizkuntzaz baliatzen den profesional edo produzitzaile bakoitzak eskubidea eta aukera du, ezagun dituen eta egokitzen jotzen dituen baliabideak beharizanen arabera txertatzeko. Beraz guztiz arriskugarria ikusten dut nik normatibizazioaren izenean sare estuegiekin zedarritzea batasunerako zer den zilegi eta zer ez.

Bai literaturan, berdin komunikabideetan, eta hainbat gehiago irakaskuntza mailakatuan guztiz aintzat hartu beharrekoak dira ez euskalkien berezitasunak bakarrik, baita herri edo eskualde batzuetan gorde izan diren bitxitasunak ere, batez ere adierazkortasun baliagarriak dituzten neurrian. Txokokeria direla eta, beste barik ezin dira baztertu holakoak. Irakaskuntzaren alderdian batez ere, gero eta gehiago gogoan izan beharko dira tokian tokiko erabilerak eta formak. Edozein hiztunentzat oso garrantzitsua delako egunero darabiltzan herri-hizkerako formak aintzat hartuak direla konturatzea; horrek afektiboki hurbiltzen du hiztun bat bere hizkuntzaren espresio landura. Bestetara gerta baledi, hau da, hiztun horrentzat guztiz arruntak diren hitz eta esamoduak ez badute ez-lako isladarik eskolan edo ikastetxean hartzen dituen jakintza eta kontaeretan, euskararen kasuan diglosiaraino iritsi litekeen etena sor liteke ahozko eta landutako espresioen artean. Horrelako zerbait gertatzen ari da Bizkaiko eskoletan ume euskaldunekin.

BIZKAI EUSKARAREN EKARBIDE BATZUK

Nahiz euskararen mendebal partean kokaturik egon —eta beraz, zuberotarra legez ertzeko euskalkia izan— bizkai euskarak pisu handia du euskararen barruan, arrazoi desberdinentzatik. Batetik hor dugu bere hiztun-kopuru mardula, Biz-

kaikoaz gain Gipuzkoako lurrean ere eremu trinkoa hartzen duena eta Araban ere oraindik bizirik dagoena. Bost euskaldunetik bi bizkaieraz mintzo dira, apurra gora behera. Bigarren, euskararen eremuaren mendebaldea hartu arren, horrek ez du esan nahi beste barik bazterrekoa denik, zeren ingurune uritartu eta industriatsuenaren inguruan bizi da; hau da, Bilbo Nagusiari dautsala. Eta urigune horretan euskararen azalduera oso makala izanagatik, bere garrantzia du gorputz ekonomiko nagusi horri erantsirik egoteak, ez baitu zerikusirik Zuberako nekazal edo artzain gizartearekin. Hirugarren, literatura idatzian bizkai euskarak duen presentzia hiztunen erdukua baino laburragoa bada ere, aldi desberdinetako gramatikari eta idazleek goratu dute bere jatortasuna eta aberastasuna, bai morfosintaxiaren aldetik, bai lexikoaren eta adierazpideen aldetik, batez ere zahar kutsuko haien iraupena bitarte dela. Bizkai euskararen goratzaile horien artean aitatu beharko ditut Kardaberaz, Mogel edo Azkue, izenik ezagunenak esateko.

Zein aldetako ekarria izan daiteke aberasgarriena bizkai euskararen kasuan? Ni baten batzuk aitatzera mugatu naiz.

1. Herri-folklore eta etnografia aitatu nuke lehenengo bizkai euskararen harrobi oparoenetako bat legez. Honen barruan askotariko bilketa eta azterketak ditugu:

- Herri-literatura nabarmenduko nuke berariaz. Batez ere ahozko tradizioz gorde den literatura-altxor guztia: kontaera tradizionala, balada eta koplak zaharrak, errefrauek eta esaerak, modismoak eta esamolde bereziak... Iturri honetatik jaso izan dira —eta jasotzen ari dira— literaturak nekez edo batere isladatu ez dituen hizkuntza-erabilera eta espresio asko. Beste euskalkientzat ere oparoa dugu iturri hau, euskararen kasuan tradizio garrantzitsua duena. Mogel, J.A. Uriarte, Eusebio M^a eta Resurrección M^a Azkue, Barandiaran, Manuel Lekuona eta Kardaberaz bazkuna, eta aspaldiko urteotan Etniker taldeak eta Labayru Ikastegia dira, besteak beste, mendebaldeko ahozko etorriaren biltzaileak. Ez da ahaztu behar bizkai idazleetarik askok ere herri-hizkeran iturri honi sendaro eutsi diola. Bat edo beste aitatzeko, Zamarripa, Kirikiño, Azkue bera, Mikel Zarate, J. San Martín, Felix Bilbao eta Akesoloren izenak bihoaz. Ene ustez behar-beharrezkoa dugu herri-kontaearen baliabidee-

tan murgiltzea, euskara batu aberats baten emaitzarako. Gipuzkeran bertan jadanik gertatzen ari den fenomeno da. Atxaga edo Lertxundi bezalako giputz idazleek guztiz aintzat hartu dute herri-hizkera, eta bestalde ez da inongo nobedadea Auspoa sortan Aita Zavalak jasoriko kontraera-testuak ustiatzen ari direla gaur egungo idazle eta euskaltzale asko. Aspaldiko urteotan eredu batuaz idazten dutenek giputz hizkeran idoro duten harrobi hori bizkai hizkerara ere hedatu beharra dago. Horretan, jakina, bizkai euskaraz mintzo diren idazle, irakasle, hizlari eta hizkuntzaren profesionalek egin beharko lukete ahaleginik handiena.

- Dialektologiaren emaitzak ere jasotzen hasteko ordua heldu da. Adibide on modura, aspalditxoko T. Etxebarriaren Eibarko lexikoa, Kandido Izagirre ren Arantzazu-Oinati aldeko hiztegia edota Rollo-ren Markina hizkeraren azterketa ez dira erdurik txarrenak bide honetatik. Azkueren aspaldiko lan erraldoiak sortu zuen bilketa-lehia gaur ere ez da eten ez agortu, eta gainera lexikotik harantzago joan dela esango nuke: hitzak, aditzak eta esaldiak euren testuinguru osoan biltzera jotzen da. Tokian tokiko hizkerak monografia bidez gero ta modu sistematikoago baten batzen eta aztertzen hasiak dira. Bizkai euskarari dagokionez, hainbat dira herriz herriko azterketak, era bateko edo bestekoak (Zeberio, Ondarroa, Sopela-Urduliz, Bergara, Basauri, Iurreta, etab.). Ahoz erabiltzen den euskararen zenbat eta gehiago sakondu, hainbat eta datu ziu-ragoak izango ditugu tokian tokiko erabilera horretaz. Eta jasotako corpus eta emaitza guztiak emankor bihur daitezke herri, eskualde edo herrialde bakoitzean; irakaskuntzan dela, tokiko komunikabideetan dela, edo kaleko harreman guztietan dela.

2. Autore klasikoen berrirakurketa. Bizkaieratik zein beste hizkeretatik batasunera abiatu orduan, euskalki bakoitzeko obra klasiko seinagarrien irakurketa berritu baten beharra somatzen dut. Bizkai euskararen kasuan, Mogel, Añibarro, Frai Bartolome eta Astarloa bezalako autoreak modu ausnartu batez irakurri behar dira eta ondorioak atera zer dagoen haietan batasunerako onuragarriak. Euskararen historian konstante bat dira tradizioarekiko etenak, hasi Larramendigandik, foruzaleetatik igaro, Arana eta Azkueren garaira etorri, Lafitte-n

ifar ereditutik igaro eta gaur arte ia-ia. Tradizio berrituak ematen duen edertasuna bazterturik, nahiago izan dute euskal gramatikari eta idazleek garaian garaiko moda-uholdeen gainean igerian ibili. Bizkai euskara da beste edozein hizkera baino gehiago, eten bortitzen ondorioak jasan izan dituena. Horregatik bada, bai euskara landu baten garapenerako, eta berdin batasun aberats baten mesedetan, inoiz baino beharrago dugu autore klasikoen bainu eder bat hartzea.

3. Eskola-irakaskuntzan bizkai euskaraz —zein beste euskalkiz— idatzi duten klasiko modernoak irakurtzeari ekin behar zaio. Unibertsitatera aurretik irakurriak izan behar ditu edozein ikasle euskaldunek *Peru Abarka*, *Kresala*, *Garoa*, *Abarrak* edota *Zamarripa* eta *Azkue* bezalako idazleen txatalak. Gure belaunaldi gazteek euskara batua aberastuko badute, euren euskararen erreferentziak sendatu beharko ditugu euren buruetan.

4. Bizkai euskarak eredu batuari zer aportazio egin liezaiokeen pentsatzean, helburutzat eredu batu zabal eta malgu bat hartu behar delakoan nago. Batu horrek galtzara bakarrekoa ez du izan behar; autopista baten antzera, gutxienez galtzara hirukoitzekoa baino. Mikel Zarate, Lertxundi edo Xarriton batek batuz idaztean ez dute hautu berdina egin hizkuntzaren harrobitik gaiak atera orduan; bestetara esateko, ez dituzte baliabide berberak erabili, ezta zertan erabili ere; bakoitza bere euskalkian errotu da, irakurlea berehala ohartu daitekeenez. Gaurregungo euskara batuaren erabilerak ikusirik, esan daiteke giputz hiztunak eurenetik ia zirkinik ez dutela egiten beste hizkeretara: gipuzkera zomorrotu bat da euren batua. Ifar-euskaldunengan ere antzeko zerbait igartzen dela esango nuke. Honetan bizkai hiztunak gara, dirudienez, geureari gehien uko egin diogunak. Geure zoritxarrean, bizkai hizkeradun diren idazle, kazetari, hizlari eta irakasle askori, batuaz diharduela, ez zaio antzematen bizkaitarra denik, eta askotan ezta euskaldunzaharra denik ere, euren hizkuntza-erabilera pobre eta urriagatik euskaldunberriak diruditelako. Honek guztionek zerikusi handia du alfabetatze edo eskolatzeko mailakatu bat izan ezarekin.

5. Eta alfabetatzearen puntua gogoratu nahi dut berriro. Bizkai hiztunak bizkaieratik abiatuak alfabetatzeari uko egin

diote erakunderik gehienek azken hogeitaka urteotan: Euskaltzaindiak aspaldiko bere kanpainen, AEK erakundeak urte luzeetan, HABEk eta udal euskaltegiek, Bilbo aldeko euskaltegi homologatuek, eta hemen aitatuko ez ditudan beste erakunde batzuk.

Aspaldiko urteotan bizkai hiztunak euren euskaratik eskolatzen ahalegin serioa egin duen erakunde nagusia Labayru Ikastegia izan da: bere Derioko Udako Euskal Ikastaroaren bitartez eta bere ikasturteen bidez. Milaka euskaldun igaro dira prozesu horretatik azken ia hogeita bost urteotan. Hala ere, egin diren ahalegin guztiak gorabehera, bizkai hiztunengan hutsune larria nabari da euskara-kontuan: eurek berbaz darabilten hizkeraren gogoeta ez ikasketarik ez dute egin. Derioko Ikastaroak landu duen metodologiak argi erakutsi duela uste dut, norbere hizkeratik abiatzeak askoz emankortasun handiagoa duela urruneko eredu zuzenean ikasteak baino. Eta ikasketa mailakatu hori egin ezagatik, gaur egun asko eta asko dira bizkai hiztunen artean euren tradizio literario eta eredu landuaren ezaguera gutxienekorik ere ez dutenak, edota txarrago dena, guztiz arrotza gertatzen zaienak. Arazo hori larriagoa bihurtzen da gizartean ardurazko postuetan daudenen kasuan, are gehiago euskararekin zerikusia duten ardurak direnean. Hutsune hori igarri-igarria da irakasle askotan, administrazioko euskara-teknikoetan, kazetari eta esatarietan, besteak beste. Ikastola, euskaltegi eta irakasle-eskola batzuetatik irteten diren belaunaldiek jakin ere ez dakite bizkaierazko tradizio literario bat dagoenik. Ikastetxe askok euren ikasleei ez diete jakitera eman *jausi*, *ostean*, *domekea* edo *gura izan* bezalako hitz arruntak zer diren ere. Hortik erraz atera daiteke ondorioa: zer mesede egin lezake hutsune hori daukan profesional batek bizkai euskaraz mintzo den jendearen artean?

6. Hizkuntza-eredu jantzi edo landuak direla eta, badira gure artean batu estandarra baino onartzen ez dutenak. Hauen tzat beraz, herri bakoitzeko hizkeraren transkripzioa eta batua besterik ez dira existitzen. Hauen ustez, ondarroatar baten tzat aukera bi hauek leudeke: a) *Kotxi beatxixetan allaako gaku*, edo b) *Autoa bederatzieta iritsiko zaigu*. Eta jakinaren gainean ezjakina egiten diote Txomin Agirre edo Augustin Zubikarai batek uri horretan bertan landu duten bizkai eredu jan-

tziari. Elizak mendeetan zehar landu duen ereduzko bidea hor dago: Arantzazutik frantziskotarrak zetozenean Bizkaiko eliza batera sermoeginen, bizkaieraz egin ohi zuten; ziurrenik ez zuen horrezaz araurik finkatuko, baina ekandua hori zen, ekanduzko araua zen. Administrazioak ere, berariaz herritarrengandik hurbileko mailetan, ez dio zertan muzin egin lehendik urratua den bideari. Begi-bistakoa dirudi bada, bizkaiera idatziaren eredua jagotea egokia ezezik beharrezkoa dela, bai administrazioan, bai komunikabideetan, bai irakaskuntzan edo lan-harremanetan. Puntu hau dela eta, euskal administrazioak daraman utzikierazko politikak ez dio mesede handirik egiten euskarari Bizkaian.

7. Hutsunea larria izanik, gero eta premiatsuago egiten da Bizkaian euskararen hedabide izango diren egitura batzuk sortu eta bultzatzea. Bi aitatuko nituzke behin-behinekotzat: a) bizkai hiztunen beharrei erantzungo dien irrati publiko edo pribatu indartsu bat; b) euskarazko astekari bat, bizkai euskaratik abiatuak, estandarrerako bidea leunduko duena.

8. Aurreko urratsei loturik doan beste alderdi bat, norbere hizkeraren harrotasuna bultzatzea litzateke. Gaur egun bizkai hiztunek sentitzen duten lotsa edo «konplexua», sarritan euren hizkerakoa den guztiaren gaitzespena errotan dituen, hala edo hola gainditu beharra dago. Eta horretarako ez da beste biderik, euren hurreko ereduaren prestigioa edo harrotasuna bultzatzea baino. Horretan saiatu behar lukete herrietako euskara-taldeek, eskolek, telebistak, eta abarrek. Telebista edo irratiaren kasuan sarriago agertu beharko lirateke tokian tokiko hizkerak modu batera edo bestera: euskal enregistrotan abaratsa izatera heldu behar luke telebistak, geure-geurea izan dadin.

EUSKARA BATUARI IPARRALDETIK BEHATUZ

BEÑAT OIHARTZABAL

Euskara batuak iparraldean zer bide segitu duen hogeita bost urte honetan, horra zenbait orrialdetan erabiltzeko eman didaten gaia. Ihardesten hasi baino lehen zenbait puntu irakurlearen gogora ekar ditzadan, oso ezagunak izanagatik, hobe baita hastetik gogoan izan ditzagun.

Lehenbizikorik, oroitarazi behar da, Lapurdin eta Nafarroa Beherean mintzaira idatziaren berezitasuna (ahozkoaren eretzean) aspaldidanik onartua eta erabilpenetan sustraitua dela. Are gehiago, probintzia horietan mendeetan zehar landuak izan diren literatura euskarek euskalkien gagnetikako idazketa baten kontzeptua beren baitan zekarten. Gisa batez, beraz, tradizio horri buruz, gaurko euskara batua jarraikian bezala

heldu dela erran daiteke. Aitzitik, hango literatura euskalkia aspaldikoa izanagatik, zubereraren kasua doi bat desberdina da, sortzetik beretik euskalki zehatz bati loturik egona baita. Urrunago mintzatuko gara hartaz.

Bigarrenekorik, euskara batuaren moldakuntza Euskaltzaindiak finkatu gomendioen arabera eta literatura tradizioa osoa kontuan harturik egina izan baita, iparraldekoek lan horretan parte hartzen zutelako irudipena izan dute hastetik, eta halaber, ondorioz, euskara batu hori haiena ere zela pentsatu.

Hirugarrenekorik, iparraldeko euskararen gizarte egoera oso gaiztoa da, eta geroan ere, oraino ilunago izanen dela segur da. Euskaltzaleek badakite, beraz, euskaldun guztiak gogoan hartuz, euskaldunetan hamarretarik zortzi edo bederatziki hegoaldean direlarik, jokatu behar dela euskarari dagozkion gauzetan. Euskara batua, berez, *euskara espainola* delako ideia zabaldua izan bada ere, gaitzerrate horrek ez du errorik egin euskaltzaleen artean, euskararen alde ez zirenek, edo euskara batuaren printzipioa bera gaitzesten zutenek, erabili baitute beti.

Laugarrenekorik, eztabaida teknikoak neurri handi batean auzi ideologiazkoetarik eta borroka politikoetarik kanpo egon dira hastetik;¹ hots, euskaltzaleen, eta bereziki jakintsuen gain utzia izan da arazo hori, kanpotikako beste interferentziarik gabe. Gisa horretako entseiuak izan dira (irakaskuntza zelarik estakurua), baina arras guti, eta bultzatzaile agertzen zen talde politikoak ez zuelarik euskararen adiskidearen fama.

Gorago erranen ondorioa garbi da: euskara batuaren printzipioa onartua izan da iparraldean, eta, orain artino bederen, helburu horretan Euskaltzaindiak eskaini bidea ere, formazko puntuetan mugatzen baitzen, oro har, onetsia izan da. Zenbatetaraino obratzen den, eta nola, beste kontu bat da, ez baitzpada horretako borondate gaiztoa badelakotz, baina, alde-rantziz, urraska aitzinatuz, eta nori nola mintzo zaion kontuan hartuz, batuaren erroak ongi eta barnaki finkatu nahi direlakotz.

Auzi gehienik sortu izan duen kontua hastapenean gertatu zen eta —inor ez da harrituko horretaz— ortografiari zegokion. Ez zen aspirazioa izan aharra kausa iparraldean. Alabaina, aski errazki onartu zen kendu behar izan ziren herskari aspi-

ratuen (ph, th, kh), eta kontsonante soinukarien (r-, n-, l-) ondoko igurzkarri aspiratuaren (h) galtzea (nahiz azken kasu honetan bazter arazo batzuk ere gelditu diren, guti aipatzen badira ere, hor daudenak). Ordean, «x» letra poxelu izan zuten zenbaitek, inondik ez baitzezaketen onets «ch»en ordez hura erabil zedin. Geroztik, ez da beste kalapitarik sortu, eta ergatibo-datibodun aditz laguntzailearentzat gipuzkerazko erroa (-i-) euskara batuarentzat hobetsi izan zenean ere, ez zuen horrek eztabaida berezirik piztu.

Horiek horrela erran ote daiteke gauzak hoberenean daudela, eta buruhausterik ez dela euskara batuaren inguruan? Ez arras.

Lehenik, ezin ahantz dezakegu, partez bederen, arazorik eza gizartearen indiferentziaren edo orobatasunaren seinalea ere badela. Alde horretarik, kalapitarik ez izatea ez da baitezpada marka ona. Are gehiago, norbaitek pentsa dezake, bi puntu horiek elkarri lotuz, euskara batua jendeen euskara mintzatutik, edo ezagutzen zuten tradizio idatzitik, hastandu arau, euskararen alderako jokabide ezkorrak indartu direla. Ikusmolde horren arabera delako indiferentzia eta hoztasun hura, partez bederen, euskararen bateratzearen ondorioa litzateke. Ordean, ez dut uste gauzak horrela diren. Ezin eman daitezke euskarari buruzko jarrera ezkorrak euskara batuaren bizkar. Hura gabe berdin gertatuko ziren jokamolde horiek, eta bateragintza hasi baino askoz lehenagokoak direla badakigu. Bateratzea beharrezkoa badu euskarak sendotzeko, denek dakigu ez dela aski euskaldun anitzen hizkuntza jokabide ezkorren funski aldarazteko. Ez da zer eska gari zuharrari, dio atsotitzak.

Horiek horrela, lehen aipatu printzipiozko onespenez landa, hurbilagoetik ikusi behar dugu orain, alde batetik euskara batua nola agertzen zaigun gaur egun iparraldean, eta zer ondorio eta irakaspen atera dezakegun azken urte hauetako esperientziaren ondotik.

Lehen erran dugun bezala, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko tradizioak hizkuntza idatziaren berezitasuna aspaldi onartu du. Haatik, ez da dudarik iparraldean, hemeretzigarren mendearen bigarren partean, literatura euskaraz sortu zen kontzepzioa aski markatua zela, eta jende xumeengana itzuli nahia

azkarki sendi zela, kazetaritza, lehenago elizako liburuak bezala, euskarazko idazkigintzaren ardatz bilakatu ondoan bereziki. Ondorioz, bide klasikotik urrundurik, beste eredu bat sortu zen, lapurtar baxenabarrerarena, osoki biribildua izan zena mende honen lehen partean. Lafittek bere gramatikari (1944) arautu zuen eredu horren ezaugarri nagusietan euskara mintzatuaren eragina (laborarien munduari zetxekion herritartasuna, bizitasuna, adierazpide bereziak eta metaforikoak, euskarismoak, etab.) eta baxenabarreraren tokia baitziren, aldaketa aski handia eta gogorra gertatu da euskara batu berria sartu behar izan delarik. Alabaina, euskara batuaren aldeko jokabidearen oinarriak —euskara klasikoak batetik, eta modernotasun hiritarra bestetik— arras bestelakoak izan dira.

Gisa horretan, azken hogeitun urteotan euskarazko literaturak izan duen gorakada handian, iparraldekoen tokia aski murrizta izan baita, baztertuta bezala gertatu da delako literatura edo, zabalkiago erranez, hizkuntza eredu hori, erreferentziazko jokabideetarik.

On da, beraz, ikus dezagun lehenik, laburzki, idazketa bate-
ragintza nola joan den, eta ondotik, idazketa eredutik bereiziz,
hizkuntza ereduaren arazoa aipatuko dugu.

IDAZKETA EREDUA

Euskaltzaindiak finkatu duen gomendio multzoak, egungo egunean, transkripzioa, ortografia eta morfologiaren parte bat (aditz jokadura eta izen sintagmaren jokadura) kontuan hartzen ditu. Hori da Euskaltzaindiaren euskara batua. Idazketa eredu bat, hots. Besterik ez. Eta ez da guti.

Ortografia eta transkripzioaren aldetik, «x» letraren gaineko kalapitaren ondotik, erabatekoa izan da euskara batuaren onspena. Aski da azken urte hauetako edozein testuren hartzea, gauza horretaz jabetzeko. Baxenabarreraz idatzi testuetan ere ageri da hori. Jean Hiriart-Urrutyren lanetan, edo J.B. Etcheberryren ixtorioetan, adibidez, transkripzio sistema batua segitzen da. (Arazoak, gero ikusiko dugunaz, zubererazko testuetan agertzen dira, haatik).

Morfologiarentzat ezin erran dezakegu arras gauza bera. Sail horretan emekiago jokatu da, eta gaur egun morfologian agertzen dira oroz gainetik lapurtar baxenabarrerari dagozkion berezitasunak. Horiek horrela, puntu horretan ere gero eta nabariago egiten da euskara batuaren eragina, hala nola ageri baita *Herria* astekarian, pixkanaka-pixkanaka sartarazten baititu honek bere orrietan euskara batuako moldeak. Joera nagusiari behatuz, badirudi, gipuzkeraren kasuan bezala, morfologia batu berria —dakigun bezala, partez lapurtera klasikoari ere darraiona— aurrekoaren tokian jartzen dela, eta gaur egun, has tapenean izanik ere, erdiko egoera batean-edo gaudela mudantza horretan. Gisa batez aldakuntza horiek urrats neurtuz gertatzea, idazketa ereduan obratzen ari den ordezkatzeko prozesuaren ondorioa dela pentsa daiteke. Ezen, iparraldean euskaltzaleek eskutan dituzten ahal eta baliabide urriekin bereziki, ez da modu horretako aldaketa bat egun batetik bestera bururatzetik.

IDAZKETA EREDUA ETA HIZKUNTZA EREDUA

Uste dut idazketaren aldetik gertatu den baterakuntza horren mugen agerian ematea izan dela iragan urte hauetako esperientziaren irakaspenetarik bat.

Anitz irakurlerentzat, eta zenbait idazlerentzat ere, gero eta argiago gelditu da, ez dela aski euskara batuaren gomendioei jarraikiz idaztea, testu bat euskaldun guztientzat irakurterraza edo berehalakoan irakurgarri gerta dadin. Bitxikeria edo xokokeria gabeko hiztegia baliatuz ere franko zail gertatzen dira askotan testuak beste tradizio batean ohituak diren begientzat. Estilistika eta adierazmoldeak desberdinak izaki han eta hor, halako arrotz bat hartzen dute anitzentzat beste hizkuntza eredu batean ondu idazkiak, idazketa batua erabilirik ere.

Ondorioz, gramatikan edo morfologian baino estilistikan funtsatuago baita lapurtar baxenabarreraren hizkuntza ereduaren nortasuna, ezin erran daiteke idazketa batasunak egiazki aldarazi duenik tradizio horretako idazleen egoera. Ezen ez da dudarik euskara batuan emanik ere berdin zail

gertatzen zaizkiela hegoaldeko irakurleei J. Etchepare medikuaren edo E. Salaberryren testuak.

Horrek parada ematen digu euskara batuaren inguruan agertu den iluntasun batez mintzatzeko. Dakigun bezala, literatura euskaraz bereziki kontu edukiz bideratua izan da bate-rakuntza. Ordean, ez da beti argi zeri erraten zaion literatura holakoetan. Zenbaitetan, legezko edukiera du hitzak, nolabait errateko, eta idazki guztiak kontuan hartzen ditu, katexima liburuak, iragarpen legezkoak eta sukaldaritza bildumak barne; beste batzuetan, berriz, estetikari dagokio eta, beraz, sorkuntzari, gisa horretan olerkigintzaren, antzerkigintzaren, nobela eta entseiu liburuen arloetara mugatzen delarik (itzulpena baztertu gabe, haatik, eta badakigu itzulpengintzak izigarriko pisua izan duela, eta baduela, euskarazko hizkuntza eredu en finkapenean).

Bistan den gauza da, bi ikuspuntu horietan hizkuntzari eskatzen zaizkion baliabideak ez direla arras berdinak, eta partez, elkarren aurkako ere badirela. Batak arautegi hertsia, homogenotasuna, kolorerik eta usainik eza behar du, argitasuna eta zehaztasuna beharrezkoak dituelarik; besteak, berriz, aniztasuna, malgutasuna, arauen mugetan ibiltzea, eta espresibitatea eskatzen du oroz gainetik. Argitasuna eta zehaztasuna bezain beharrezkoak ditu, kasik, anbiguitatea eta lausotasuna. Honek, izerdiz bustirikako mintzaira beroa bere berea du, barruki edo zoko usaina izanagatik; besteak, berriz, baztertu beharra du. Mintzaira hotzari dagokionaz, bateratzea aski urrun joan da, eta hein batean euskarak kausitu ere duela erran daiteke,² hala nola ikusten ahal baita orain egiten hasiak diren entziklopediak irakurtzean. Guridi edo Einstein non eta noiz sortu ziren, eta hidatsa indioak, holografia edo eozenoa zer diren jakin nahi bada, haietan so eginez gutieneko informazioa molde argi eta laño batez berehala hartzen da, euskara horren gardentasun eta zehaztasun doi bat idorra oztopo izateko orde lagungarri delarik.

Baina, hori ote da, sorkuntzan, nobelagintzan adibidez, euskarak behar duena? Eiki, gerta daiteke horretarako ere egoki izatea, baina nekez sorkuntzako literaturak behar dituen ereduak horretara muga daitezke. Hizkuntza ereduak deit ditzakegu, plurala erabilirik, azken hauek. Idazketa ereduak ez

bezala, nekez arau zehatzik onartzen dute, eta askoz ere lotuago dira idazleen hautuei, bai eta erregistro edo hizkuntza mailei ere. Haien artean pluraltasuna beharrezkoa da, eta kalte egingarri baizik ez litzateke, haiek bateratu beharrez aritzea.

Bada hemen arazo bat, euskara batuaren inguruan den argitasun ezaren seinale dena. Maiz, eta zenbaitetan idazleek berek, eta kritikariek ere, azken urte hauetan moldatua izan den hizkuntza eredu aski markatu batekin identifikatzen dute euskara batua. Ez da hemen tokia parte on batean itzulpenen bidez eratua izan den hizkuntza eredu horren ezaugarrien emateko (jakitekotz, *Jakinen* irakurleek badakite horren berri). Halaber, ez nuke nahi inork uste izan dezan gaitzesten dudala ezertan eredu hori. Hari esker zenbait urtez aitzinamendu ezin ukatuzkoak egin baititu euskal idazkigintzak. Ez da hori kontua.

Haatik, irriskua bada berez arras mugatua den euskara batua (ortografia, morfologia) ager dadin den baino zedarriztatuago, mugatuago, eta azken urteotan idazle gehienik eskaini duen gipuzkerari josiago. Erranik eta errepikaturik ere hizkuntza eredu bati edo besteari jarraikiz idatz daitekeela euskara batuan, anitzek duten irudipena bestelakoa da, literatur edo hizkuntza eredu eta idazketa eredu elkarretarik ez baitituzte bereizten. Bada hor arazo bat, argitaletxeek menturaz kontuan hartu behar luketena, ez dadin euskara batuaren bizkar egotz, iturburua beste nonbait duten zenbait gaitziduraren eta etsimenduren hobena.

Iparraldean ere nabari da halako uzkur bat, iduri baitu sorkuntzako literaturan euskara batuan idazteko orain indarrean den hizkuntza eredu berriaren arabera ari izan behar dela. Zenbaitek —gutik, egia erran, ez, ordean, nornahik— horren aurrean nahiago dute euskara batutik urrun egon, beldurrez-eta, beharbada, gogokoen duten hizkuntza ereduari uko egin behar lioketela bestela. Uste dut aski adierazgarria den alde horretarik, azken urte hauetan sorkuntza sailean sariztatuak izan diren iparraldeko nobela bakarrak euskara batuan idatziak ez izatea. Adibidez, ohargarri da Jean Irigarayren *Ama zonen deia* (Azkue saria 1991n) baxenabarrerazko morfologian idatzia dela, bai eta halaber Eñaut Etxamendiren *Gilente giko Gilen* ere (Irun Hiriaren saria eleberrietan 1987an).

LITERATURA EUSKALKIEN EGOERA

Iparraldea ez dagokio euskalki baten eremuari, eta beraz, ezin erabil daiteke iparralde deitura euskalki baten izendatzeko. Idazketa ereduak direnaz bezainbatean,³ gutienetik bi euskalki bereiztekoak dira gaur egun: lapurtar baxenabarre r a alde batetik eta zuberera bestetik; (lapurtera berriak ez du literatura euskalkirik sortu, zenbait testu, guti-guti eta maila apalekoak, aurki badaitezke ere).

Lehenaren kasuan bereziki kontuan hartzeko da aurreko lehen errotan egin dugun bereizketa (idazketa eredia vs hizkuntza eredia). Idazketa bateragintza zuzenean sartu da iparraldean aspaldi honetan nagusi zen, eta Lafittek lapurtar baxenabarrera deitu zuen tradizio honetan, ezen, gorago aditzera eman dugun bezala, badirudi, idazketa bera denaz bezainbatean, hastapean izanik ere, ordezkatzeko prozesu baten aurrean gaudela. Ordean, hizkuntza eredia (hiztegiak kanpo, joskera, eta oroz gainera adierazmoldeak: estiloa eta mintzaira oroa hitz batez) hor da oraino, eta eredu horrek dituen aberastasun eta baliabideengatik, geroan ere tokia izanen duela esperantza izaten ahal da. Iparraldeko idazleen erantzukizuna da, euskara horri segida eta iraunbidearen ematea, horretarako gaurko euskara batuaren idazketa erabiliz ere beharrez.

Zubereraren kasua bestelakoa da arras, zeren lehenbizikorik, literatura euskalki hori ez baita sekula euskalkien gaineratikako bateragintza asmo bati lotua egon, eta bigarrenekorik, haren ezaugarriak ezertan baino gehiago fonetikari eta morfofonologiari darraizkion elementuen idazketan finkatuak baitira. Hemen anitzez gogorrago da, beraz, idazketa batuaren eta euskalkiaren arteko ezadostasuna. Hitz batean errateko: zubererazko testu bat euskara batuaren idazketaren arabera izkiriatur gero, hiztegiak kanpo ez da deusetan ageri zuberera. Parte on batean, beraz, ortografiari eta morfologiako ezaugarri zenbaiten idazketari lotua da literatura euskalki horren izaera.

Azken urte hauetan durduza batek hartu ditu zuberotar idazleak nola idatzi behar duten, eta zenbatetaraino jarraiki behar zaizkion euskara batuaren idazketari. Ondorioz, gaur

hiruzpalau idazketa mota baliatuak dira Zuberoan: ortografia zaharra («ch», eta «ou» grafemak erabiltzen dituen) desager-tzera bezala dagoena baina oraino batzuetan kausitzen dena; ortografia zahar egokitua, egun arruntena eta zabalduena; ortografia erdi-berriztatzailea (Davantena), euskara batuaren zenbait elementu zubererari sartarazten duena; eta ortografia berriztatzailea, euskara batuari hurbilenetik jarraitzen zaiona, eta irakaskuntzan eta kazetaritzan bereziki orain baliatzen dena.

Nahaste handia beraz, eta gauza horietaz guti mintzatzen baita Zuberetik kanpo, zilegi izan bekit, nihaur zuberotar ez izan-ik ere, paradaz balia, zerbait erratea horretaz.

Aspaldi du literatura euskalkien artean erdikoek nolabait bateragintzako oinarri izateko joera dutela. Euskalkien gaine-tikako batasun helbururik ez duten beste literatura euskalkiak, haatik, ez dira egoera berean euskara batuaren aurrean. Hola-koentzat ere, naski, idazketa eta morfologia mailan zenbait egokipenen egiteko aholkua eman daiteke, nolabait ere gutie-neko oinarri bat izan dezaten euskalki guztiek, baina hortik ai-tzina ez da zeren sar, ene aburuz, euskalki horien tradizioa gehiegi eta behar gabe zaurt dezakeen aldakuntzarik.

Geldi gaitezen, beraz, zubereraren kasuaren gainean. Zube-roan idazketa zahar egokitua onartuz geroztik, erran nahi baitu lapurtar baxenabarrearen transkripzio sistema idaz-keta zaharrari aplikatuz geroztik, gauzak aski ongi finkatuak zi-ran ortografian eta morfologian (salbu zenbait puntutan, hala nola aditz formetan). Euskara batuaren zubererari egokitze-rakoan, ordean, desoreka sortu da, gaurko egoera nahasia ekarriz. Alabaina, ortografiako aldakuntzak, morfologiara ere ekarri nahi izan dira, eta gauza horietan tradizioak duen pisua eta garrantzia gutietsi delakotz zein bere aldetik ari izana da bide berri urratzen. Gaur egun, pastorala norik idazten duen, Aguer-garayk, Davantek edo Casenavek, eta hiru idazketa ager dai-tezke «etxean sartua» izkiriatzeko orduan (*etxian sartia / etxean sartia / etxean sartia*). Egoera hori, nola duda horretaz, ez da batere sanoa.

Komeni da, beraz, lehen baino lehen zuberotar idazleek eta Euskaltzaindiak, arazo hori eskuetan har dezaten eta aterabide

bateratu bat eman diezaioten, deus ez baita hain kalte egingarri idazketa kontuetan nola baita jokabide aniztasunari darraion segurtamenik eza.⁴ Zubereraren gizarte egoera eta hiztun kopurua diren bezalakoak direlarik, oso zuhurki eta zorrozki jokatu behar dela ez da dudarik, euskalki horren ezaugarri nabarmentenak (berriz ere derragun, fonologiari eta morfologiari dagozkionak, eta, beraz, idazketa sisteman eragin zuzena dutenak), inork uste baino lasterrago itsuski zaurturik gelditu daitezela nahi ez badugu.⁵

Funtsean, ez da gaizki euskara batuari buruz egin den artikulu hau euskalkiak aipatuz burura dadin. Duela mende laurden bat euskara batuaren moldaketa zen arazo nagusia. Egun, bidean da, eta badabil. Ez da engoitik gibelera joaterik. Literatur euskalkien egoera, ordean, ez da hain argia, eta, ene aburuz, komeni litzateke haietaz berriz gogoeta zenbaiten egin hasi bagintez, osoki aldatu baita Arantzazuko biltzarraren garaian zegoen egoera. Are gehiago bazter euskalkien kasuan. Lerro hauen ondorioa, preseski, iparraldean berean, zubereraren eta lapurtar baxenabarreraren egoerak aski desberdinak direla azpimarratzea izan da. Lapurtar baxenabarrerak, oro har, eta horretarako denbora hartuz ere, besoak zabal ireki dizkio idazketa batuari. Gauzak gordinki adieraziz, haren kasuan, eremu mugatua zuen idazkera batu batek helmen zabalagoko beste bati tokia utzi diola, edo uzten hasia zaiola, erran dezakegu. Hargatik bere baitan hizkuntza eredu gisa dauzkan balio handiak (beste literatura tradizioetan hartan bezala nekez aurki daitezkeenak) beretzat atxiki ditu. Ez du oraino jakin haien besteekin partikatzen, eta aberastasun horietaz haien kutsatzen. Edo arras guti.

Zuberera, berriz, bidegurutzean da. Idazketa batua aldebat bere egin behar dutenetz dudana daude zuberotarrak, horrela jokatzu beren euskalkiaren ezaugarriak urtuko ez ote diren beldur baitira. Ez zait iruditzen niri, lapurtar baxenabarreraren jokabideari baitezpada jarraiki behar zaizkiola zuberotarrak. Alabaina, lapurtar baxenabarrera, lapurtera klasi-koa bezala, euskalki desberdinen gaintetikako bateragintza asmo bati josia da historikoki (oraingo euskara batuak baino eremu hertsia goa estalirik ere), eta, haren kasuan, arrazoi-

nezkoa da pentsatzea, denborarekin, idazketa batu berriari gero eta hurbilagoz joanen dela, eta, ondorioz, pixkanaka utziko dituela idazketa eredu batu gisa morfologia mailan zituen berezitasunak ere. Horrelako xedea lukeen jokabidea egiazki beren euskalkiarentzat onartu nahiko dutea zuberotarrek?

1. Garai berriko bateragintzaz ari gara hemen soilik. Ez mendearen hastapenekoaz.
2. Hala ere, mintzaira hotza dela-eta, lege eta zuzenbide mintzaira oraino aski gibelatua dugula iduritzen zait niri.
3. Hizkuntza ereduie buruz, aitzitik, aski batasun handia da iparraldeko euskalkien artean. Bate-tik bestera iragaitea idazketa, eta, partez, hiztegi kontua da, soil-soilik.
4. *Sū Azia* zuberotar batasunak arazo horren inguruan bilkura batzuen antolatzeke xedea agertu berria du, zuberotar idazleak, irakasleak eta zenbait euskalari ere deiturik. Agian, horri esker oraingo batasun ezari bururapena emanen zaio sobera luzatu gabe.
5. Adibide bat baizik ez emateko, nekez, zuberotar jendeari, hiru mendetako tradizioa bat-batean hautsirik, /ehi/ esaten dena «eri» idatzaraziko zaio *zubereraz* eta /ütziak/ ahoskatzen dena «itsüak».

ZUZENKETA

Jakin-en 74. zenbakian, Beñat Oyharçabalek *Oihenart eta euskal letrak* izenburupean egin idazlanean, testuaren ulermenaren trabatzen zuten zenbait errakuntza gertatuziren, hemen zuzentzen direnak:

- 12. orrialdean, 16. lerroan: *hetsi* irakur bedi, *etsi*-ren orde;
- 18. orrialdean, 23. lerroan: *arau bertsuen arabera* irakur bedi (esan nahi baitu *guti gora-behera ber arauen araber*) eta ez *arau-bertsoen arabera*;
- 30. orrialdean, 16. lerroan: *jada hetsia zela* irakur bedi, eta ez *jada etsia zela*.

G AIAK

XABIER MENDIGUREN
GURE LITERATURA GARAIKIDEA

EUGENIO PEÑAS
GIPUZKOAKO POPULAZIOAREN PROIEKZIOA

GURE LITERATURA GARAIKIDEA

XABIER MENDIGUREN

L iteraturam historiek duten eginkizunik zailenetakoa «periodizazio» delakoa da, hau da, garai baten eta beste baten arteko etena noiz sortzen den. Denok dakigu gizarte eta kultur aldaketetan ez dela inoiz izaten egun batetik besterako data jakin, zehatz eta finkorik; hartara, itsasoaan mugarriak jartzea bezalatsuko zeregina dugu aldiak bereizten aritzea. Hala ere, gaurko estatuek itsasoa ezezik airea ere hesitu eta banatu dutenez gero, zilegi bekigu guri ere azken aldiko literatura zedarritzea, ez idazleak halako eta halako esparruetan banatzeko, baina idazlanak beren testuinguruan kokaturik hobeki ulertzeko.

LITERATURA MODERNOA

Euskal literaturaren historiaz idatzi ohi dutenek literatura modernoaren sorrera 60ko hamarkadan ipini ohi dute. Joxe Azumendik 1956raino eramaten du, orduan jaio baitzen *Jakin* aldizkaria. Ibon Sarasolak, berriz, 1964. urtea hautatzen du, *Arestiren Harri eta herri* sinbolotzat harturik. Berdintsu zaigu zein data aukeratu, berrikuntza guztiek izaten baitituzte aurrekariak, gero pixkanaka bilduz doazenak, eta baita une goren-gorenak ere. Urte bat edo beste aukeratu, denok bat etor gintezke aldaketa horren eragileetako batzuk izendatzean:

- ETaren sorrera eta indartzea.
- Euskararen batasunaren beharra.
- Ikastolen mugimendua.
- Apaizgaitegien betekada aurrena eta hustuketa hurrena.
- Industrializazio eta ekonomi gorakada.
- Gazteriaren politizazio eta ideologizazioa.
- Kultur ageripide berriak: euskal kantariak, adibidez.

Faktore hauen eta beste askoren eraginez sortutako idazle andanari gerra ondoko belaunaldia deitu ohi zaio, eta haiek egindako lanari literatura modernoa. Zertan datza hau? Egile bakoitzak bere kera duenez, ez da erraz guztiz gehienak bilduko dituzten ezaugarriak xehetzen, baina zantzu batzuei behinik antzematen diegu:

- Formaren aldetik, berritu nahi bat, xede zehatzegirik ez duena baina Europako joerekiko ia mende osoko isolamendua hautsi nahi duena.
- Edukietan berriz, laiko, gaurko eta hiritar izan nahi da.
- Generotan saiakerak indar handia du, olerkiak ere dextekoa, kontagintzak eta antzerkiak gutxiago.
- Ideiek pisu handia dute, bai idazlanen ideologikotasunagatik, bai haien instrumentalismoagatik, hau da: liburu erabilgarriak egin nahi dira, herriaren kontzientzi hartzean lagungarri eta herrigintzako zereginetan probetxugarri.

Modernotasunerako jauzia azaldu eta bertan planto egiten dute literaturaren historialariek (salbuespen bakanen artean,

Josu Landa: *Gerraosteko poesiaren historia* eta Jon Kortazarren hainbat hitzaldi eta artikulu). Eta hona nire galdera: aro berean bizi al gara? Bistan da gaurko idazleak ordukoen seme-alaba eta ondorengo zuzen garena, baina giro berean bizi al gara eta, garrantzikoago dena, era beretsuko literatura egiten al dugu? Jakina ezetz. Beraz, periodizazioaren legeei jarraituz, aldi berri bat markatu behar dugu, giltzarri izango diren datak ezarri, eragileak bereizi eta ezaugarriak hauteman. Nondik hasi?

1975: PANPINA USTELA

Joan Mari Torrealdairen *Euskal idazleak, gaur* saiakera mardula —«Liburu urdina» ezizenaz ere ezaguna— 75ean edo gelditzen da, halabeharrez edo jakinaren gainean. Gero ere aipatu beharko dugu azterketa hau, literaturaren soziologia gustatzen zaigunok derrigorrez «torrealdai-txiki» izatera bai-kaude behartuak edo zigortuak. Francoren heriotzako urtea da hura denontzat, baina honen ondorio dudaezinak geroago hasiko ziren nabaritzen. Literaturaren beraren barnean beste gertakari bat izan zen 75ean, diktadorea hil aurretik, eta inor gutxi ohartu bazen ere, astrologoek bi argizagi handiren juntadizoari ematen dioten garrantziaren parekoa du honek ere: izan ere, Bernardo Atxaga eta Koldo Izagirre elkartu baitziren, artean inortxok ezagutzen ez zituen bi idazle gazte, gerora euskal literaturaren bilakaeran berebiziko eragina izan dutenak.

Bi gazte haiek bildu eta *Panpina ustela* izeneko aldizkari antzekoa egin zuten. Ordura artekoekin erabat apurtzen zuena, berria. Poetikaz ez zuen zerikusirik Aresti edo arestitarrekin, ez sinbolistekin, ez formalistekin; surrealismo eta espresionismoaren arteko zerbaitetan zebiltzan. Estetikaz ere, ez euskal bukolismoaren, ez euskal eskolako eskultoreen, ez errealismo sozialaren antzik: hurbilago dira *underground*-etik, sortzeke edo sortzekotan zegoen punketik. Hitz bitan: abangoardia eta *transgresioa* zituzten ezaugarri, eta batez ere literaturaren autonomiaren ordura arteko aldarrikapen erradikalena, gehi literatur sariketen lehenengo salaketa ozena.

Ez zituzten herri-epaitegietan salatu, aldizkariak ez zizkieten plazan pilatu eta jendaurrean erre. Besterik gabe, inor

gutxi enteratu zela esan behar. Arraroegi ziren, ezberdinegi, gazteegi, ausartegi. Artean jo gabe zegoen haien ordua, euskal letren lurra prestatu gabe. Baina erein egin zuten: Ramon Sainzarbitoriarekin batean beste bi ale atera zituzten (*Zorion ustela* eta *Mermelada ustela*); gero Atxaga Bilbora joan zen eta lagunarte berria osatu, *Pott* ospetsua. Ramon eta Koldok, aldiz, *Oh! Euzkadi* taldea eta aldizkaria, Donostia aldeko gazte batzuekin batera. Abian zen sentsibilitate berrirako motorea.

GIRO BERRIA

Aitzindari haien atzetik etorri ziren noizbait euskal idazleak, baina ez ordura artekoak, orduantxe sortzen ari ziren berriak baizik. Ireki dezagun berriz Torrealdairen liburu urdina. Utzi alde batera letrak eta begira xantuei, gure Parnasotxo honetako santutegiari. Aurpegi ezagunak ditugu gehienak, baina zenbat dira, gaur ere, idazten segitzen dutenak? Oso gutxi. Kulturgintza eta herrigintza egiteko tresna bakarreneetakoa luma zenean idatzi zuten; geroztik zeregin horietarako mila baliabide sortu dira, hala nola ikus-entzunezko komunikabideak, politika eta administrazioa, edota irakaskuntza. Literatura egiten literatura zinez maite zutenak geratu dira, eta gainerakoan belaunaldi berri batek ordezkatu du aurrekoa.

Ordezkatze hau ere ez da harritzekoa, gizartean joan den hamarkadan gertatu diren aldaketa guztiak kontuan izanik. Lehenagoko faktore-taula haren parez pare zerrenda berri hau jartzea besterik ez duzu:

- Alderdi politikoak legeztatzea Hego Euskal Herrian. Hauteskundeak.
- Erakundetze berri bat eta autonomia: EAE eta Nafarroa, zein bere bidetik.
- Euskararen ofizialkidetasuna: sarbide handia irakaskuntzan eta komunikabideetan.
- Ekonomi krisia.
- Gazteriaren desideologizazioa.

- Kultur panoramaren erabateko aldaketa: ohizko kantari asko isildu egiten da, adibidez, eta euskal rocka sortu, edo euskal zinema.

Beste eragile asko eta asko ere aipa genitzake, guztiak baitu eragina, baina beude aipatutako horiek erakusgarritzat. Lehengo berrikuntzaren protagonista kolektiboa gerra ondoko belaunaldia baldin bazen, oraingoari frankismo ondoko belaunaldia dei egin geniezaioke, edo autonomiarena, edo erreformarena, demokraziarena deitu nahiko dio agian baten batek.

Izen guztiak ere aldaketa historiko baten deiturak dira, eta denek dute akats bera: ez dute kontuan hartzen Iparraldea, Ipar Euskal Herriko literaturan ere gertatu baita berrikuntza Maiatz batasunaren eskutik; eta gizartean ere badira halako adierazleak: IKren presentzia, ETako aterbetuak ezkutatu beharra, Enbatako abertzale historikoen aurrean gazteagoak agertu izana (EMA, Patxa...), beste maila batean euskal irratien agerpena...

LITERATURA MODERNOAREN ONDOREN ZER?

Gerra ondoko belaunaldiak literatura modernoa egin baldin bazuen, nola deitu frankismo ondokoak egiten duenari? Post-modernoa deitzeko tentaldia etor dakioko baten bati; hobe bazterrera uztea izen hori halere. Zergatik? Etiketa horrenpean gauza asko sartu ohi delako, egilearen arabera ezberdinak oso, eta batez ere izen nahasgarria delako 80tik aurrera edo egin diren literatura-mota diferenteak biltzeko. Beharbada, historiografia klasikoa baliatuz, historia modernoa ostekoari garaikidea esan ohi zaion bezala, guk ere literatura garaikidea bataia dezakegu geurea. Etorriko dira berriak, eta egunen batean ziklo hau itxi eta ez gaituzte joko garaikidetzat. Orduan alda diezagutela izena eta dei diezagutela nahi duten bezala, gazteek ohi duten (dugun?) ankerkeriarako joera eta are eskubideaz ere.

Izena da gutxienez ordea. Zerk bereizten du garaikide deitu dugun literatura? Lehenik eta behin, literatura dela beste ezeren gainetik, inorekiko menpekotasunik gabe. Hizkuntza

bera ere langaia da, batasunaren auzia gutxi gorabehera bideratuta dagoenez. Adibidez, Euzkadiren z-ekin jolasten has-ten denak badaki *h*-aren borroka irabazita dagoela.

- Formari dagokionez —lehenengo sailkapenari jarraitzearen—, abangoardismo handiko bolada baten ondoren, estilo tradizionalagoetara itzuli dira idazleak, narratzaileak batipat. Etapak azkar erreta, euskaldunon zor historikoak kitatuta eta konplexuak uxatuta, idazleak nahi duen kontraera hauta lezake, bihurrietik lauenera. Alde honetatik aipatzekoa da Atxagak *Ziutateaz* egin eta gero haur-literaturari ekin eta ondoren Obabako ipuinekin hasi zela.

- Edukietan beste horrenbeste. Aurreko belaunaldian base-rritik kanpo euskaldun ere izan zitekeela erakutsi *beharra* zegoen. Azken belaunaldi honetan, euskaldun baserritarrak ere badirela azaltzeko lotsarik ez. Saizarbitoria eta Txillardegiri esker izan zaigu posible mendiko literatura berri bat, *Obabakoak* (1988) argitaratu ondoren goia jo eta maldan behera datorrena.

- Generoetan, saiakera desagertu egin da ia-ia, eta egiten dena oso ezberdina da, neurri handi batean. Eduardo Gil Bera edo Patziku Perurenaren azterbideek, esaterako, ez dute zerikusi apurrik marxismoari buruzko eztabaidekin. Antzerkia hondoratu egin da, talde amateurren gainbeherarekin batera. Poesiak eutsi egin dio, eta goiti egin duena narratiba da eta honen barruan ipuingintzak egin du nabarmen gora. Okertzeko beldur handirik gabe esan daiteke joan den hamarkadako literaturaren baitan ipuingintzak izan duela berritze eta handitze ikusgarriena, eta haren eskutik etorri zaizkigula emaitza biribilenak. Kontakizun laburraren gorakada honetan, generoaren berezko edertasunaz gain izan da kanpoko eragilerik ere: idazle hasi berriek entrenamenduetarako alor egokia dute; literatur aldizkariak neurri hori eskatzen dute, eta perretxi-koen moduan ugaldutako ipuin-sariketek ere hori bera bul-tzatzen dute.

Bestalde, garai honetan sortu eta finkatu da haur-literatura genero gisa, baina gai honek merezi du aparteko azterketa.

- Ideiei dagokionez, berriz, esan dugu, batetik, ez dela literatur testua beste helburu baterako bitartekotzat hartzen, eta, bestetik, desideologizazio garaia izan dela azken hamarkada.

Honek ez du esan nahi, inondik inora, idazlanek edo idazleek ideologiarik ez dutenik, txorakeria litzateke hori. Idazleetan, nork bere pentsaera du baina oro har ez da sinesten literaturak mundua aldarazteko ahalmenik duenik; beraz, konpromezu politikoez ez dute zertan errainua izan testuetan, eta hala egitekotan ere ez da pentsatzen berealdiko eraginik izango duenik.

Azken aldi honetako literaturan zein ideia dabilizan nagusi, askoz aztergai konplexuagoa da, zinez interesgarria, eta gu baino kritikari jantziagoren batek osatu edo zuzenduko duelakoan, ausar nadin aurreko aldiarekiko ezberdintasun nagusiak erakusten: ortodoxiaren lekuan heterodoxia dabil indarrean eta edozein monolitismo apurturik erabateko zatikatzea; era berean, lehengo itxaropenaren ordeztasuna, eszeptizismoa; geroarekiko fedea galduta malenkoniak indar hartu du, eta progresismoa apalduz tarteka sumatzen da kontserbadurismo-kutsua.

IZEN NAGUSIENAK

Ezaugarri orokorrak ikusi ditugu, baina ez da alferrrikakoa izango izenak aipatzea: egileenak eta liburuenak, hauek gorpuztu baitituzte bereizgarri horiek.

Literatura garaikide honetan izen-abizenek inor nabarmentzekotan Bernardo Atxaga eta orpoz orpo Joseba Sarrionandia aipatu beharko genituzke. Ez lehenari Espainiako sariak eta bigarrenari hangoxe kartzelek eman dieten ospeagatik, ezpada beraien obrak itxuratu duelako garai honetako literaturgintzaren tajuera nagusia, bai poesian, bai kontakuntzian. Izen bion hautaketan ez dago inongo kontrajartzerik, biak adiskide zaharrak izateaz gainera ez zaielako kidetasunik falta. Bestalde, batak zein besteak literaturaz gogoeta egin eta plazaratzeko ohitura ederra izan dute, Atxagak hainbat artikulua eta hitzalditan, Sarrionandiak batez ere *Ni ez naiz hemengoa* (1985) liburuan.

80ko olerkigintzan eragin sakonena izan duen liburua hautatzean, denak bat etor litezke *Etiopia* (1979) izendatuta lehenik eta *Izuen gordelekuetan barrena* (1981) ondoren. Atxagaren

Etiopia-k samurtasuna eta ironia uztartzen dituela esan izan da. *Izuen gordelekuetan barrena* perfekzio formalaren eta kosmopolitismorako joeraren adierazgarri da. Alde horretatik, bi liburu hauek makropoetika bat sortu dutela esan liteke, harrez geroztikoak haien arrastoan mugitu direla gehiago edo gutxiago, nahita ala nahi gabe.

Ez da oso zuzena batzuk aipatu eta besteak ahaztea, baina bidegabe izanik eta agian oker egonik ere, hauexek dira nire ustez hamarkada luze honetan plazaratutako poeten artean originalenak edo, neure gusto betiere mugatuaren arabera, lan interesgarriena egin dutenak: Xabier Montoia, Itxaro Borda, Felipe Juaristi, Edorta Jimenez (Omar Nabarro), Patziku Perurena, Iñigo Aranbarri, Mari Jose Kerejeta eta Luis Berrizbeitia. Garai zaharragoetatik idazten zutenetako batzuek ere eman dizkigute beren zenbait ale eder ere, haien obra aro honetara mugatzea desegokia bada ere; hauetakoak dira Bitoriano Gandiaga, J.A. Artze, Juan Mari Lekuona eta berriki Xabier Lete.

Era berean, gerora *Obabakoak* liburura bildutako ipuinak agertzen hasi zirenetik —«Francisco Javier», «Post tenebras spero lucem», «Camilo Lizardi...» eta abar— mirespena berehalakoa izan zen eta eragina ere, pixkanaka bada ere, berealdikoa. Haiiek abiarazi zuten mendiko kosmos bat, giza grina eta gizarte-gorabeheren alegoria eta agertoki gisa. Lertxundiren eta Arestirulanek lagundu zuten eredu hau finkatzen. Beste alde batetik, Sarrionandiaren lehenengo ipuinen —«Maddi, indazu kamamila», «Enperadore eroa»— eta *Narrazioak* (1983) bildumaren eragina berebizikoa izan zen gerokoengan, bai lexiko hautaketan, bai exotismorako joeran, liburu argitaratuetan bezala edo are gehiago ipuin lehiaketetara aurkezten diren lanetan ikusten denez.

Bolada honetan argitaratu diren ipuin-bilduma onak ugari izan dira. Batzuk azpimarratzekotan Mikel Hernandez Abaitua, Mikel Antza, Inazio Mujika Iraola, Martin Ugalde, Koldo Izagurre eta Xabier Montoiarenak hartuko nituzke, baina zerrenda nahi adina luza daiteke, askoz gehiago baitira ipuin on eta biribilak egin dituztenak, hala nola Juan Luis Zabala, Anjel Lertxundi, Andoni Egaña, Aingeru Epalza, Felipe Juaristi, Juan Garzia Garmendia, Gotzon Garate, Arantxa Iturbe... Ez da kasualitatea olerki eta ipuingintzan izen batzuk errepikatzea,

bide hori —eta norabide horrexetan— egin baitute gure idazle askok.

Ipuingintza errege eta joera horiek nagusi izateak errealis-
moa bazter samarrera utzi du, baita haren espresabide ohiz-
koena izan den eleberria ere. Horregatik ez dute behar adi-
nako oihartzunik izan Joxe Agustin Arrieta edo Joan Mari Iri-
goien bezalako narratzaile oso on batzuen ekinaldiek. *Polie-
dmoren hostoak* edo *Manu militari* eleberri integralaren adi-
bide eta unibertso oso baten adierazgarri dira, baina, estima-
tuak izan badira ere, ez dute jarraitzaile askorik izan idazleen
artean.

ALDAKETAREN ZANTZUAK

Gaur ere —1993ko hasieran— lehen esandako aro berrian,
a ro berean gaudela uste dut, aldaketak etengabeak badira ere
ez giroak, ez idazketa-estiloak, ez dutela aparteko jauzirik jo.
Aldaketatxo horietako batzuek, gainera, etena iragarri beharrean
gaur artekoaren luzapena eta iraupena dakarkigute, hala nola
azken sasoiaren idazle berririk ez agertzeak, edo hauek sortzeko
plataforma ziren aldizkariak desagertu edota ohikerian jausteak.
Giroan berrikuntza handirik sumatzen ez bada ere, egin di-
tzakegu bizpahiru hipotesi, eta aipa ditzakegu zeresana eta
berritu gosea dakartzaten egileak.

Hipotesietako bat, hizkuntzaren exigentzia zorrotzu egingo
dela. Alegia, ez da erabateko gezurra zabar samarrak izan
garela joan den hamarkadan: erdarakada ugari konnotazioa-
ren izenean, errazkeria franko euskararen egituraren bizkar,
mediokritatea oro har pedagogismoa dela eta. Garbitasun hai-
zeak jotzen du azken aldian berriz, eta honen ondorioa ez da
mailegu gutxiago edo hizberri gehiago erabiltzea —ez soilik
behintzat—, baizik eta hizkuntza bera hobeki ezagutu eta bere
ahalmenak literarioki baliatzea. Honez gain, irakurleari ohar-
kabeen pasa ohi zaio baina hiztegi gintzak sekulako eragina
izan ohi du idazlanetan, zuzenean nahiz komunikabideen era-
ginez, eta azken urte hauetan sekulako aurrerakada izan da arlo
horretan. Itzulpengintzaren maila hobetzea ere mesedegarri

izan liteke, kaleko euskararen etengabeko higatze larria ahaztu ezin badugu ere.

Beste hipotesi bat: ahal zela ideietatik aski urrundutako literatura egin dugu; «Tesia» izatea baino bekatu larriagorik ez. Ez da gure herriaren bereizgarria izan: mundu osoan ibili da indarrean «pentsamendu ahula», postmodernia, *light zen* guztia. Pentsa liteke aurrerantzean ideiez eta pentsamenduz ziprztindu eta are blaitutako literatura gehixeago landuko dela, eta hori ez dela akats eta hobentzat hartuko, oraintsu arte bezala. Bilakaera hau poliki eta aspaldi samarretik dator: *Ni ez naiz hemengoa* aipatuaren matzetik *Marginalia* «bustiagoa» kale-ratu zuen Sarrionandiak 1988an. Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* (1991) ere, askoz ideologikoagoa da garaiko edozein eta bere aurreko lanak baino. Joxe Azurmendiren *Espainolak eta euskaldunak* (1992) saiakerak izan duen arrakastak ere, azken urteotako hainbat liburuk bezala, nondik norakoaren aldaketa adierazten digu. Hala ere, ez da pentsatu behar atzerako itzulia denik 70eko pentsakera hartara, inola ere: ortodoxiak eta monolitismoak, esaterako, jai dute geroan ere.

Hipotesi honi lotuta beste bat: errealismoa eta honekin batera eleberria, lehen baztertu samarrak ikusi ditugunak, ari dira kopeta jasotzen azken aldian eta bide horretatik jarraituko dutela esango nuke.

Egileei buruz, berriz, bi dira, nire ustez, gauza berriak egiteko dohaina eta ausardia elkartzen dituztenak: Koldo Izagirre eta Anjel Lertxundi.

Poesian, Koldo Izagirreraren *Balizko erroten eresuma* (1989) azpimarratuko nuke. Lehen ere esan dugu literatura garaikidearen hastapenetan garrantzi berezia izan zuela. Poeta gazte askorengan antzeman liteke haren lehen liburuen aztarna, baina Izagirrek berak agortutzat eman zuen halako batez bere poemagile-bidea. Ia hamar urteko isilaldiaren ondoren heldu zion berriz ere zeregin horri, eta bitartean ez zitzaion luma herdoildu, ez mihia korapilatu. Ezagun du ordea, indarra eta gogoia bildu dituena. Eta jakituria. Bere lehengo olerki-lan haiekiko erreferentzian oin hartuta, hamarkada osoko poesi liburu trinkoena, originalena, berriena egin zuen, behingoz *Etiopia* eta abarrekin zerikusirik ez zuen zerbait.

Narratiban ere beti arriskatu du Izagirrek, eta hor dugu, lekuko, *Euzkadi merezi zuten* (1984), garai hartarako zailegi nonbait eta ia ahazturik gelditu zena, baina Anjel Lertxundiri zor zaio bide-berritze interesgarriena.

Lertxundiren meritu ugari bezain handietan bat besterik ez da literatura modernoaren garaitik narratiba sortzen segitzen duen bakarrenetakoa izatea (Arantxa Urretabizkaiarekin batera), eta haren liburu guztiek mereziko lukete aipamen luzeagoa, baina hemen zedarritutako garaiko batzuk besterik ez ditugu jorratuko, bere bilakaeraren erakusgarri: *Hamasei garrñean aidanez* h a rekin garaiko prosa eta kontatze-eredua eratu zuen berberak, *Tobacco days*-en ondoren ofizioko idazletzat jo zuen bere burua, aurkikuntzarik ez dakartenetakoa. Gero, berriz —*Obabakoak* ondoren, berak dioenez—, sorkuntzaren harra sortu zitzaion berriro eta saio erdi hutsegin baten ostean, esperimentazio exigenteenaren fruitu umoa eman digu *Kapitain Frakasa* eleberriarekin.

Geroa nondik joan daitekeen, ordea, ez dago jakiterik. Aipatu ditudan bi liburuek bi bide eskaintzen dituzte, elkarengandik ezberdinak bestalde, baina beste bide asko ere izan litezke. Oso litekeena da gainera, jarraitzailerik gabe geratzea ahalegin bide-urratzaile horiek. Zergatik? Hain zuzen ere, bi sortzaile handiren lan zail eta biribilak direlako, eta gure letren panoraman, tamalez, ez dira soberan horrelako artista handiak.

Nolanahi ere, etorkizuneko literaturaren norabide-kontuetan, beste edozein gorabeheratan bezala, gurea ez da herri bakartua —hizkuntzaren egoera bereziak ondorio partikularrak baditu ere— eta hortaz zerikusi handia dute eta izanen dute mundu zabaleko eta batipat gure ingurumariko moda eta joe-
rek.

GIPUZKOAKO POPULAZIOAREN PROIEKZIOA

EUGENIO PEÑAS

Gaur egun gehien erabiltzen diren populazio-proiektzioak EUSTATena eta Prospektiker erakundearena dira. 1991eko erroldaren datuak ezaguturik proiektzio horiek egokitzea beharrezkoa egiten zaigu, ezusteko datuak agertu direlako.

Jakina, populazio-proiektzioak ez dira etorkizuna «igartzeko» egiten, baizik eta etorkizuneko bilakaera neurri batean aurrirusteko, balizko hipotesiak erabiliz. Horretarako ahal den hipotesi egokienak aukeratu behar dira, gaia eta azken datuak ondo aztertu ondoren.

Populazio-proiektzioak ezinbestekoak dira erakundeen planifikaziorako. Berez ez dute politika jakin bat zehazten, ostera,

baliagarriak dira politika bat edo beste aukeratzeko. Beren benetako betebeharrak biztanleengan zahartze-prozesuak izan dezakeen eragina ezagutzeko da eta ahal den neurrian balizko eszenatoki bat aurkeztea, gaurko joerak eta demografi apurketak kontuan harturik.

1991. URTEKO ERROLDAREN EMAITZAK

Aipatutako proiektzioen hipotesi ezezkorrenak gainditu dituzte erroldako datuek. Adibidez, 1991n ugalkortasuna 1,04 seme-alaba/emakumekoa da, aurrikusitako gutxienezko ugalkortasuna 1,1ekoa zenean.

Bere aldetik emigrazioa neurri ezezagunetara heldu da, hipotesi guztiak gaindituz. Jakina, emigrazioaren arloa zailagoa da aurrikusitako, eragile ekonomiko eta politikoen menpe baitago.

1986an EUSTATEk emigrazioari dagokionez, migrazio-saldo orekatua aurrikusitako zuen eta Prospektiker erakundeak %-1,8koa kasu txarrean. Benetako datuek aurrikusitako hauek gainditu dituzte erabat, gure migrazio-saldoa %-2,4koa da eta.

Gipuzkoako biztanleria orokorrean hartuta, EUSTATEk 3.500 pertsonen jaitsiera aurrikusitako zuen 1991rako. Erroldaren datuek esaten digute aipatutako jaitsiera hori 11.000 pertsonetakoa izan dela, ustez baino handiagoa beraz. Horregatik egokitze-lan bat egitea beharrezkoa ikusten da, emaitza fidagarriak nahi baditugu.

Zaharrentzako dagokionez, EUSTATEk 1991rako 88.000 pertsona edadetuak aurrikusitako zituen Gipuzkoan, biztanleriaren %12,8 suposatzen zuena. Arlo honetan egokitze handiagoa egon da, oraingo errealitateak esaten baitigu Gipuzkoan 86.000 zahar daudela, biztanleriaren %12,7 suposatuz.

Ondorio gisa esan dezakegu aipatutako populazio-proiektzioek ez dutela kontuan hartu emigrazioaren gertakaria bere neurrian eta ugalkortasuna apalagoa azaldu zaigula azken bost urte hauetan. Honek aurrikusitako datu absolutuak aldatu ditu eta emaitza ezberdinetara eramaten ditu.

Oro har, populazioaren barne adin-banaketaren arloan proiektzioak egokiak izan dira orain arte, baina datu absolutuak desagokiak badira hamar urte barru adin-banaketa desagokia izateko arriskua handia da.

HIPOTESI BERRIAK

Proiektzio berriak egiteko, zeuden hipotesiak aldatu behar dira, azken eroldaren bilakaera ikusita. Hipotesiak ez dira dagoen joeraren luzapena besterik gabe. Aldiz, joeraren aldaketak aurrakusten dira.

Laburki, esan dezakegu jaiotzean esperotako bizitza bere honetan mantentzen dela, ez delako aldaketarik egon. Ugalkortasuna gutxitu egin da baina goranzko joera aurrikusiz bigarren bost urterako. Migrazio-saldo negatiboa handitu egin da baina beheranzko joera batekin.

HIPOTESIAK	H1	H2	H3	H4
1996				
Ugalkortasuna	1	1,1	1,1	1,2
Jaiotzean esperotako bizitza	77,4	77,4	77,4	77,4
Migrazio saldoa	% -0,5	% -0,4	% -0,3	% -0,2
2001				
Ugalkortasuna	1,1	1,2	1,2	1,3
Jaiotzean esperotako bizitza	78	78	78	78
Migrazio-saldoa	% -0,4	% -0,3	% -0,2	% -0,1

• Ugalkortasuna seme-alaba/erakumeka neurtuta dago • Jaiotzean esperotako bizitza urteetan neurtuta dago • Migrazio-saldoa biztanleriaren ehunekoetan neurtuta dago

PROIEKZIO BERRIEN EMAITZAK

BIZTANLERIA

1996an Gipuzkoako biztanleria 661-665.000 bitartean egon daiteke hipotesi ezberdinen arabera. 2001erako Gipuzkoako biztanleria 649-657.000 bitartean egon daiteke.


Gaur egungo biztanleria 677.000tako delako kontuan harturik, jaitsiera nabarmena aurrakusten da, lehen bost urteetan

12-16.000tako eta 2001. urtearekin alderatuz gero 20-28.000 bitarteko jaitsiera aurrakusten da hipotesi ezberdinen arabera.

EUSTATen proiektzioa, «Plan Gerontológico Vasco» delakoan erabiltzen dena alegia, zeharo ezberdina da, biztanleriaren gehikuntza aurrakusten baitu. Zehazki, bere emaitzak honako hauek dira:

1991..... 684.000 biztanle
 1996..... 688.000 biztanle
 2001..... 702.000 biztanle

GIPUZKOAKO BIZTANLERIA (Proiektzioak)



Datu hauek desegokiak dirudite, Gipuzkoak azken hamar-kadan 12.000 biztanle galdu dituela jakin ondoren.

65 URTE BAINO GEHIAGOKO POPULAZIOA

Gaur egun Gipuzkoan 86.000 zahar ditugu, erroldaren datuen arabera. Proiektzio berrian 1996rako 100.000 zahar


egon daitezela aurrikusten da, oraingo datuarekiko %16ko hazkundera suposatzen duena.

2001erako 113.000 zahar egongo direla aurrikusten da. Beraz, hazkunde garrantzitsua, bigarren bost urteetan apur bat apalagoa bada ere. Hamarkada orokorki hartuz %31 tako hazkundera ikus dezakegu.

Ehunekoetan neurtuta gaur egun biztanleriaren %12,7 zaharrak dira (65 urte baino gehiagokoak). 1996rako %15 zaharra izango da eta 2001erako %17,1.

Gaur egun Gipuzkoako tasa estatu espaniarrekoa baino baxuagoa da, baina 2001ean Gipuzkoako tasa handiagoa izango da.


ZAHARRERIA (Proiekzioak)



EUSTATen proiektioan datu hauek agertzen dira, zaharre-riari dagokionez:

1991	88.000	(%12,8)
1996	107.000	(%15,5)
2001	129.000	(%18,3)

ZAHARRERIA (Proiekzioak)



Beraz desbideraketa nabaria da. Ulegarria da desbideraketa hau, EUSTATen biztanleria osoari dagokion aurrikuspena harrotuta dagoelako. Dena dela, ehunekoetan neurtuta desbideraketak ez dira hain nabariak, 2001. urtea heldu arte. Desberdintasun hauek oso garrantzitsuak dira zahar-egoitzak, egun-zentruak, etab. planifikatzeko.

BARNE-AZTERKETA

«LAUGARREN ADINA»

«Zaharkitzearen zaharkitzea» gaia aztertzeke 85eko urte-muga erabili dugu. Adin honetatik gora zaharren eskakizunak oso azkar hazten dira. Horregatik beharrezkoa da zehaztea 85eko urte-muga zenbat zaharrek gaindituko duen.

P roiekzio berriaren arabera 1996an 9.500-10.000 pertsona izan daitezke 85 urte baino zaharragoak. 2001ean 12.500-13.000. Gaur egun 5.200 daude. Horregatik igoera azkarra ikus dezakegu datozen urteetan, dena dela EUSTATEk aurrikusi duena baino gutxiago.

ZAHARREN BESTEEKIKO ERLAZIO EKONOMIKOA

Zaharren bestearekiko erlazio ekonomikoa aldagai demografiko bat da, zeinak harremanetan jartzen duen 65 urte baino gehiagoko populazioa eta teorikoki «langiletzat» kontsideratuta dagoen jende-multzoa.

Gaur egun 18.11ko indizea dugu, estatu espaniarrarena baino baxuagoa. 2001ean, proiektio honen arabera, 24koa izan daiteke, hau da, hamar urtetan %33ko hazkundera izango du aipatutako indizeak. Aldiz joan den hamarkadan hazkundera %4arena izan zen. Beraz zaharren besteekiko erlazio ekonomikoa nabarmenki larritu egingo da hamarkada honetan.

ONDORIOAK

Populazio proiektzioak ez dira «kristalezko piramideak» etorkizuna igartzeko baina, gauzak horrela izan arren, argi dago zahartze-prozesua etengabea izango dela eta zahartze hori populazio-piramideko adin «altuetan eta baxuetan» gertatzen da, ugalkortasuna oso urria baita.

Zenbaki absolutuetan adineko pertsonen kopurua %33 haz daiteke. Gainera zaharreneen taldea are gehiago hazten da. Gipuzkoako biztanleria jaitsi egingo da, aurrirakusten den zaharkitze-prozesua nabariagoa eginez.

Azken erroldaren datuek argi uzten duenez EUSTATen proiektzioaren egokipena derrigorrezkoa da zeren bere datuak eta benetan lortutakoak oso ezberdinak baitira.

Besteekiko erlazio ekonomikoa txartu egingo da eta ez dirudi enpleguaren ezaugarriak aldatuko direnik hamarkada honetan. Dena den, kontuan hartu behar dugu oraindik lan-esku ugari erabili gabe dugula: langabetuak, beraien lan-eskaria egin ez duten emakumeak, etab.

Zahartzea azkarra dela esan dezakegu baina arazo larria izango da krisi ekonomikoa bat dagoen heinean. Krisiak enplegua eta jaiotze-tasa oztopatzen ditu.

Gai honetaz dagoen iritzi ezkor orokorra ideia okerretan datza, hala nola, diru publikoak, zergak eta lan-eskuak harreman estua dutenarena eta hori egia da gaur, baina ez du egia

izan beharrik etorkizunean. Edo pertsona edadetuek beste pertsoneri eskaitzen dieten laguntza ez estimatzearena.

Zaharrek erakundeei zuzendutako eskarien kopurua geuk emango diegun bizitzak baldintzatzen du. Beraien bizitzan zehar bizi-maila jaisten duten neurriak hartzen badira, gero zahartzaroan eskariak handituko dira. Horregatik etorkizuna gaurko erabakiekin mugatzen ari gara.

GUNEN GURPILEAN

HASIER ETXEBERRIA

ARTISTAREN MISERIA
NORTASUN AGIRIRIK GABE
KARNET-PILOA BOLTSIKOAN
ALEA JACTA EST
JAINKOAREKIN BAZKALDU NUENEKOA

ALFONTSO MARTINEZ LIZARDUIKOA

GIZAKI AURREHISTORIKOEN KLONAZIOAZ
UNIBERTSO FINITO ALA INFINITOA?
IGELEN ISILTASUNA

JENARO GARATE

MAASTRICHT, DANIMARKA ETA MERKATU LIBREAREN IRUZURRA
IBM INFORMATIKAN LIDERRAREN KRISIA: INFORMAZIORIK EZA
SINDIKATUEN ETORKIZUNA

BEGOÑA DEL TESO

KATTAGORRIA CANNESEN
PELIKULETAKO IKERLARIA CANNESEN
TXOTXONGILOAK TRUFARI BERGARAN
AZTI ETA SORGINAK TOLOSAN
TEATREROAK... BASAURIN FIJO
...POLITIKARIAK TELEAN

ARTEA
ZIENTZIA
EKONOMIA
IKUSKIZUNAK

ARTEA

HASIER ETXEBERRIA

ARTISTAREN MISERIA

Artearen euskal merkatua, hutsaren hurrengoa ere ez da. Oraindik ere misterio bat da niretzat artistek nola ateratzen duten bizimodua, nola hazten dituzten seme-alabak, nola ordaintzen duten argia.

Jakinekua da arte-galeriek, saltzen duten artelan bakoitzaren salmenta-kopurutik, %40, 50 edo 60 jasotzen dutela normalean. Baita hortik gora joaten direla ere. Garraioak, aseguruak, aretoa, publizitatea, harremanak... horietxek izaten dira galeristen lanak. Ordaina, ostera, esandakoa, salmentaren erdia, gutxi gorabehera.

Politika komertzial hau, leku guztietako artista gehienekin ematen da, hala ezagunekin nola artista berrieekin ere. Tapiesek edo Txillidak, halaxe jokutzen dute beraien galerista eta

ordezkari ospetsuekin. Lehenengo aldiz erakusten duen artistak ere, halatsu. Irabazi urria dirudi honek artistarentzat. Obra sortu eta burutu ondoren, salmentaren erdia soilik.

Baina hala ere, saldu ezinean dabilta gure artista gehienak. Arte-merkatuak izandako beherakada nabarmenak, are gehiago astindu ditu artetegileak. Euskal Herrian, gainera, ez omen da ia artelanik erosten. Instituzio apur batzuk, heriotzaren atarian dauden artista kontsagratuen lanak bakarrik erosten dituzte. Saldu nahi bada, kanpora joan behar, beraz.

Gure eskultore ospetsuenetako batek, halaxe egin du azken urte hauetan eta Espainiako galeria handietan jo izan ditu atekak, kax, kax. Nola edo hala, pare bat erakusketa antolatu dituzte bere azken lanekin.

Tira hemendik eta tira handik, izen handiko galeriatan bi pieza saldu zituen azkenean, bata Madrilen eta besteaartzelona. Hau poza! Hau zoriona! Beste pixkatean aurrera egiteko moduan geratu da gure eskultorea.

Baina eguna joan eta eguna etorri, sosik ez du ikusi oraindik gure artistak. Denbora aurrera doa, bi urte ere iragan dira orduandik hona, baina dirurik ez. Eta okerragoa dena, kobratzeko esperantzarik ere ez.

Hemendik eta handik aztarna bila hasi da gure eskultorea. Erosleak nortzuk diren jakin nahi du berak. Galeriarik ordaindu ote dioten jakin behar du. Eta bai, baietz, aspaldi ordaindu zutela beraiek.

Baina tristurak ez dira hor bukatzen. Erosleak nongoak diren ere jakin du eskultoreak. Euskal Herrikoak ziren. Kanpoan bakarrik erosten duten horietakoak. Ederra atarramen-
dua!

Euskal Herrian sortu eta egin, Euskal Herrian erosi, baina irabazi guztia kanpoan. Mixeria latza horratik hemengo arte merkatuarena. □

NORTASUN-AGIRIRIK GABE

Arte-kontutan, beste arlo askotan bezalaxe, ditxosozko N.A.N.a galduta gabiltzala iradoki zion Sebastian Holmesek Patxi Watson bere lagunari, azken *Jakin*-en argitaratutako eskutitz batean. Ez zitzaion arrazoirik falta. *Zerk bihurtzen du*

artelan bat Euskal? horixe zen milioi bat dolarretako galdera, eta erantzuna aidean dago oraindik, nahi duenarentzat.

Bat baino gehiago haserretu egin da Holmesen gutun ikonoklasta harekin, baina, oinarrian, erantzunik ez dago. Ezerk ez du euskaltasunik gehitzen benetako artelan batean: ez sentipenak, ez iraganaren ezagutzak, ez hizkuntzaren erabilerak, ez jaioterriak, ez bizilekuak, ez desio politiko, etiko edo estetikoak. Euskaltasunaren kontua Artegintzan, etiketa komertziala edo ez-komertziala baizik ez da. Merkatuaren araberako estrategia baten ondorioa. Ez besterik.

Baina ez gara gu kinkan gabiltzan bakarrak. Espainiak ere bi ordezkari bidali ditu aurtengo Veneziako Biurterokora. Ustez Espainia osoko artegintzaren ordezkari gertatu behar dutenak. Bata kataluniarra da erroetaraino, artegintza informalarren ekialdeko eredu zoragarria: Antoni Tapies. Bigarrena, Madrilgo kosmopolitismoan aberria aurkitu duen euskal hiritarra da. Artista dotorea bera: Cristina Iglesias eskulturgilea.

Biek gusto handiz jaso dute ordezkari-tza horretarako izendapena. Tapiesek uzta batzeko garaia du. Cristinak, ordea, oraindik ere hazia ereitekoa. Bi-biek dute arrakasta ziurra Espainiako komunikabide eta inguru artistikoetan. Zer dira, ordea, beraien lanak? Katalanak? Vascoak? Espainolak? Zernolako ñabardura edo arnasatan ikus liteke halako aztamarik?

Literatura, antzerkia, zinema eta *hizkuntza bera tresna duten disziplina artistikoetan* ez da zalantzarik: euskaraz egindakoa Euskal da eta erdaraz eginikoa ez da Euskal. Baina zer gertatzen da Arte Plastikoetan? Zer gertatzen da *hizkuntza propioa duten artebideak* hautatzen direnean? Non-zertan geratzen da jatorria? Paisaien errepresentazioan? Argiaren hautaketan? Erabilitako materialeetan? Ala, artistaren barnesentipenean?

Benetako artegintzak ez du behar inolako N.A.N.aren bermerik. □

KARNET-PILOA BOLTSIKOAN

Artegile ez baina artezale diren batzuek, oster, boltsikoa karnet ugariz beteta dute. Lotsarik gabe agertzen dituztenak gainera. Cosme Maria de Barañano da horietako bat.

Txartelagiri ugari ditu gizon honek: artezale eskisitoarena, Txillidaren miresle apartenarena, Guggenheim aholku bat zor-dearena, katalogogile bikainarena, erakusketa-antolatzailearena, Reina Sofian bigarren izandakoarena (Euskal Arteko fondoan Oteizaren lan bat bera egotea debekatu zuenarena), kosmopolitarena, Juaristi eta Duranarekin batera liburugintzan eta kokteletan ibiltzeko balio duena, eta abar, eta abar.

Beste txartel bat irabazi du, gainera, oraintsu. Zalantzak ditut, ordea, zerena ote den ziurtagiria. Ez dakit seguru, kezkatuarena ote den txartel berria ala ezjakitunarena ala minduarena. Bere herritar «aldeanoez» gogaiturik, eredu New Yorken eta Munichen bilatzen duenarena edo, norena.

Gauza zera da, *Argia* astekarian esandakoaren arabera, Guggenheim dela eta kexa egin dugunok, (laurehundik gora), bertako organigraman sartu gabekoak garelako egin omen dugu zarata. Tontoa ala harroa, ez dakit, baina ausarta behintzat bai. Alajainkoa! □

ALEA JACTA EST

Eta Guggenheim aipatu dugunez, gogora dezagun aurtengo urrian hasiko direla Frank Gehryren etxea eraikitzeko lanak. Bilboren irudia aldaraziko omen du edifizio honek 1997ko udan amaitzen denean. Hasi baino lehen, eta 1992ko otsailaren 27an esandakoaren arabera, urtebete atzeratu da proiektuaren bukaera.

Guggenheim Museoa Bilborentzat edukiko duen garrantziak ez dauka ezberrik. Haatik gertatzen da harrigarri Bilboko Udaletxea Guggenheim Kontsortzio Nagusitik kanpo geratzea eta Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Diputazioaren esku lagatzea hiriarentzat arnasa berri izango den proiektu hau. Agian finantzabiderik ez duelako gertatuko zen Udaletxeak solairua baidzik ez jartzea, eta ondorioz, erabakigune gorenetik kanpo geratzea.

Gogora ditzagun oinarrizko zenbaki eta kopuruak:

- Udaletxeak 40.000 metro karratuko solairua jarriko du, Campa de los Ingleses deritzan toki horretan.
- Diputazioak eta Jaurlaritzak eraikuntza guztia ordaindu beharko dute (20 mila milioi) eta gainera bi mila milioi eman

beharko dizkiote Guggenheim fundazioari bere izena erabili, artebilduma erakutsi eta asesoretza emateagatik. (Mila milioi eman zaizkie jada).

- Eta azkenez, ustiaketa-gastuak ere (500 milioi inguru) iturri beretik ordainduko dira, hau da, diru publikotik.

Hala ere, norbaitek segimendua egiteko gogorik badauka, hara hemen datozen urteetan egiteko moduko ikerketa bi: konkurtsoen publikotasuna lupaz begiratu eta enpresa kontratatuak (aholkaritzza, arkitektura, eraikuntza, segurtasuna, ustiaketa, publizitatea...) noren eskutan geratzen diren jakin.

Ez nuke gaiztoa gertatu nahi, baina apustu egingo nioke edozeini, alderdi ren batek eta bere inguruko zenbait enpresa sate litek, etekin dezentea aterako dutela guzti honetatik.

Museoan inguruko kontuak gardentasunik gabe eraman izana egotzi izan zaio behin baino gehiagotan Arregi jaunari. Zerbakiak poliki-poliki ari dira agertzen baina Museoaren benetako eduki artistikoa zein izango den ez da oraindik erabat azaldu. Heren bat, erakusketa mugikor batek osatuko omen du, Guggenheim fundazio beraren fondoetatik hartuta. Bigarren heren batean, mende-hasierako eta Mundu Gerren osteko pinturak eta eskulturgintzak osatuko omen dute. Azkenengo herena, erabaki gabeko zortzi artista espainiarrek beteko omen.

Argibide gehiago ematen ez den bitartean, zaila da erakusketen kalitateari buruz hitz egitea. Hala ere, Txillida bertan izango dela badakigu. Bidezkoa da hori. Abangoardiek ere ordezkari bikainak edukiko dituzte: Picasso, Brancusi, Mondrian, Malevitx, Giacometti... Proposamen berri eta ausartagoak ere ikusi ahal izango ditugu: Warhol, Nauman, Serra... Baina aidean dagoen kontua beste bat da: Euskal Herrian egiten den artea munduratzan lagunduko al du Museo honek? Nola? Zein bidetatik?

Ikusi egin behar. □

JAINKOAREKIN BAZKALDU NUENEOA

Existe Dios al Noroeste liburua irakurri duen edozein euskal agnostikok eta ateok ere badaki, bi Jainko behintzat badi-rela gure paraje hauetan. Bata betikoa da, zerutiarra, legenda

judu-kristauaren arabera mundu hau sei egunetan sortu ondoren zarpigarrenean atsedean hartu zuena. Bestea, ordea, aipatu poema-liburu berorren egilea da, legendako Jainkoari aurrez aurre hitz egiten diona eta hura bezain bakarrik dagoena. Atsedeen hartu gabe, berean segitzen duena.

Lehenengo batean mano a mano bazkaldu nuen berarekin. Aspalditik nengibilen segika non eta noiz geratu ezinik. (Jakinekkoa da Jainko guztiak oso lanpetuta bizi direla sorkuntzako akatsak errepasatzen eta konpontzen). Aitzaki bikaina nuen ordea: biolentziarako egiten zuen dei prentsan agertutako bere azken gutunean. Ekintza armatuak eskatzen zituen baldin eta Guggenheim afera konpondu nahi bazen. Bere ustetan astakeria, kultur agresioa eta Baskdisney den proiekttoa, Lemoiz kasuaren parean jarri zuen, bere milagarren isilaldia supitoan hautsiz.

Ez nezakeen halako proposamen jainkotiarrik onar. Lehendik ere ederki asetuta gaude odol gorriaren bainuaz. Ezin nuen onartu. Ezta intelektualki ere. Beraz, galdera bat neukan berarentzat: Arregi eta Guggenheim fundazioko Zuzendari Nagusia ti robatez erahilak ikusteak poztuko ote zuenentz galdetu nahi nion gordinki. Herriari zernolako aurrerapena ekarriko liokeen horrek. Zein dinamikatan sartuko ote ginen berak argitaratutako hitzei kasu eginez gero.

Bai galdetu eta baita erantzun ere. Arraioa! □

ZIENTZIA

ALFONTSO MARTINEZ LIZARDUIKOA

GIZAKI AURREHISTORIKOEN KLONAZIOAZ

Gizakumearen aurrehistoria aztertzen duten paleoantropologo, genetista, eta beste zientzilari askok ez dute erraz ahaztuko 1991ko iraila. Data horretan Ti roleko mendietan barrena zebilen bikote alemaniar batek, Similaun deritzon muga italoaustriararen, gizakume aurrehistoriko bat gutziz jeltaturik eta

ezin hobeto gorde aurkitu zuen. Gizaki fosilizatu horri «jelazko gizaki» izena eman zioten. Innsbruck Unibertsitateko Aurrehistoriako katedradun den Konrad Spindler-ek dioenez, Tutankamon aurkitu zenetik gertatu den gauzarik garrantzitsuena da aurkikuntza hori.

Carbono-14 lehenengo probak eginez gero badakigu gizaki hura orain dela 5.000 urte inguru bizi izan zela, Egiptiar Inperioa sortu baino lehen eta neolitikoen azkeneko partean, alegia.

Aurkikuntza honen garrantzia ez datza bakarrik gizakiak duen adinean, baizik eta dituen kontserbazio eta momifikazioan, gutxi perfektuak baitira. Horra zergatik ehun espezialistatik gora agertu diren prest autopsia egiteko, historian inoiz egin den autopsiarik jendetsuena.

Gorpuari, jadanik, tomografia axial konputerizatuak egin zaizkio eta bere pelbisean minbiziaren estadio bat izan zitekeen nodulo bat aurkitu zaio. Gizakume jelatu honen biriketetan orain dela 5.000 urteko aire fosilizaturik aurkitu zaio. Aurkikuntza hori berebizikoa da zeren eta aire honekin garai hartako atmosferaren konposizioa jakiterik izango dugun eta, aldi berean ere, noraino aldatu den denboraren poderioz. Baina egiten ari diren miaketa guzti horien artean, ikerketa genetikoak dira zientzilariak gehien erakartzen dituztenak.

Paleoantropologia eta genetikaren historian lehenengo aldiz izaki aurrehistoriko baten leukozito eta globulu gorriak badi-tugu eskutartean. Horien azterketaren bidez gure sistema immunologikoen eboluzioaz datu asko atera daitezke eta baita gaixotasun eta infekzioei buruzkoak ere. Baina zientzilari askoren buruetan, inoiz esplizitatzen ez badira ere, badaude ideia iraultzaile ikaragarriak, gizakumearen geroa markatu zezaketenak.

Gure gorputzetako zeluletan badaude atal berezi batzuk: nukleoak. Nukleoetan kode genetikoak daukagu eta kode horretan behar dugun informazio guztia bildurik dago, bai jaio-tzean, bai gaztaroan nahiz zahartzaroan zer izan behar dugun jakiteko. Eta Kode genetiko horren oinarria DNA deritzon molekula dugu.

Genetikaren eta bioteknologiaren arrakasta medio, orain dela gutxi arte pentsatu ere ezin zitekeen, bizidunen manipu-

lazio genetikoan emandako urrats garrantzitsu bat klonazioa da.

Zer da klonazioa? Demagun obulu bat ernaldua badugula. Obulu horren nukleoa atera egiten da eta duen DNA hustu egiten da, garatu nahi dugun beste izaki baten DNArekin ordezkatzuz. Gero horrela manipulaturako obulua emearen barnean uzten da bere garapenaren estadio guztiak pasa ditzan.

Suposa dezagun «Jelazko gizaki»aren leukozito baten DNA ateratzen dugula eta ernalduriko eme baten hustutako obuluan sartzen dugula. Denborarekin (9 bederatziz hilabete pasa ondoren seguraski) eme horrek kume aurrehistoriko bat erdituko du.

Egia esan klonazioaren esperimentuak igelekin egin badira ere, ugaztunekin egiterakoan arazo asko sortzen dira. Baina, demagun, 50 urte barru horrelako esperimentuak egiteko gai izango garela. Hori gertatuko denean gure emakumeen bitartez neolitiko garaian bizi izandako gizakumeak birsortzeko gauza izango gara. Eta ez izaki bat bakarrik, populazioak baidizik. Orduan populazio horien jokabide pertsonal eta kolektiboak ikasteko aukera izango genuke, egun txinpantzeen eta gorilen azterketak zoologikoetan egiten diren moduan.

Klonazioak zabaltzen dituen bideak ikaragarri bezain ernegarriak dira. Noraino egin daitezke horrelako esperimentu genetikoak gizakumearen eta eboluzioaren esentzia hondatu gabe? Gai izango ote da gure gizartea bioetika egokia sortzeko balizko esperimentu guzti hauek mugatzeko?

Oraindik buruan daukat zientzilari batek gai honi buruz esandakoa kezka horiek plazaratu zizkiotenean: «genetika-mailan, egun, teknologikoki posible dena egin egiten da, eta egiten ez dena gaitasunik ez dugulako da». Hori da eta ez beste ezer, egun, zientziak aukeratu duen bide «etikoa». Jelazko gizakumearen aurkikuntzak abisu bat da erne egon gaitezen etorriko den munduaz eta guk mundu horren barnean izango dugun erantzukizunaz. □

UNIBERTSO FINITO ALA INFINITOA?

Gure mendeko aurkikuntzarik handienetako bat, handiena ez bada, kosmoaren tamainarena dugu, horrek dituen inplikazio guztiekin. Gaur dakigunez, gure galaxiaren barnean 200.000

milioi izar inguru aurki daitezke, horien artean eguzki-sistemak, planetak, eta bizitza-forma desberdinak oso probableak direlarik. Baina ikaragarriena astrofisikak eta kosmologiak ematen dizkiguten datuak aztertzea da. Gure teleskopio eta irrati-teleskopioek azter dezaketen unibertsoaren partean 200.000 milioi galaxia aurkitu izan dira. Datu horiek kontuan izanda, harrigarriena ez da jadanik pentsatzea gu bezalako bizitza nonnahi barreiatu egin daitekeela, baizik eta neurritz kanpoko kosmo horrek zeinolako helburua duen, edota gizakumearen existentzia egitura horren barnean zein paper joka dezakeen.

Kosmoaren mugagabetasuna ez da bakarrik espaziala, gainera. 1961ean zientziaren historiako aurkikuntzarik itzelena burutu zen. Data horretan hain zuzen, Bell multinazionalerako lan egiten ari ziren Penzias eta Wilson injineruek, lehenengo aldiz, irrati-teleskopio bat eraiki, eta beraren bitartez unibertsoaren sorreran gertatutako leherketa kosmikoaren zarata fosila detektatzea lortu zuten. Gizakumeak inoiz amets zezakeen lorpena burutu zen data hartan, unibertsoaren kreazioaren oihartzuna entzutea, hain zuzen.

Hortik aurrera, guretzat hain entzuna den, Big Bang-eko teoria guztiz onartua izan da mundu zientifikoan. Teoria horren arabera, denbora ikaragarri atzera kokaturik dagoen unean —15.000 milioi urte inguru atzera— unibertsoa sortu zen, dentsitate neurtezina zuen puntu batetik. Puntu horretan unibertso osoko materia kontzentratu zegoen. Arrazoi oraindik ez dakigula, puntu hori hasi zen zabaltzen eta hedatzen indar eta abiadura kosmikoen bitartez, eta prozesu horrek 15.000 milioi urte iraun du, gaur egunerarte. Prozesu horretan galaxiak, izarrak, planetak eta izaki pentsakorrak sortu dira, gu horren lekuko nabarmenena garela.

Baina, nora zuzentzen da hedatzen ari den unibertso hori? Aurretik programatutako helburu batera zuzentzen ote gara? Norbait gure zain ote dago, helbidea bukatuko denean?

Hedatzen ari den unibertso honetan kontrajarriak diren bi indar mota ditugu. Alde batetik, leherketa kosmikoaren ondorioa den zabaltze-indarra, eta bestea grabitatea. Grabitazioaren indarra uzkuratze-indarra da, eta bere eragina unibertso osoan dagoen materiaren funtzioa da. Beraz, zenbat eta mate-

ria gehiago izan unibertsoan, hedatzearen gutxipena hainbat eta handiagoa agertuko zaigu. Oso erraza da kalkulatzeko zentzat materia egon behar den unibertsoan hedatzearen indarra orenkatua izateko. Balio horri masa kritiko deritza. Unibertsoaren materia balio berezi horretara helduko balitz Big Bang-en hedatze-indarra geldituko zen, denbora dextente pasa ondoren, eta gero uzurtze-prozesu bat martxan jarriko litzateke. Kasu horretan unibertsoa, bere neurri handienean, finitua izango litzateke. Masa kritiko horretara helduko ez balitz, orduan, hedatze-indarrak grabitazioarena gaudituko luke unibertsoa betirako hedatuz eta infinitu bihurtuz.

Teleskopio eta irratiteleskopioak hasi dira kosmoa arakatzen, jadanik, zenbat materia dagoen jakiteko, batez ere galaxia-forman. Eta lortutako balioak masa kritikoaren oso urruti kokatzen dira. Gauzak horrela, unibertsoa betirako hedatzen ibiliko da, nahiz eta hedatze-indarra gero eta leunagoa izan.

Baina, pentsamenduko abentura honen urratsak ez dira oraindik amaitu. Azkeneko urteetan, orain dela gutxi pentsaezina zen beste mirari bat biribildu da: Big Bang-en gertakarian zegoen giro ikaragarria gure laborategietan simulatzea. Kosmoaren baldintzak errepikatzen dituzten laborategi berezi horiek energia handieneko zatiki-azeleragailuak ditugu. Bada benetako lehia gogorra Estatu Batuen eta Europaren artean, gero eta dirutza handiagoak ipiniz, laborategi berezi horiek eraikitze eta azken finean unibertsoko sekretuak agitzeko.

Egindako ikerketetan ondorio garrantzitsu batera heldu da, guztien iritziak bateratuz. Teoria modernoek profetia bat egiten dute: unibertsoan dagoen masa orokorrak, zehatz-mehatz, masa kritikoarekin bat egin behar du. Nola konpatibilizatu auresan hori astrofisikariak egiten ari diren behaketekin?

Azkeneko urte hauetan saiatzen ari da, galaxietatik aparte, ikusgarria ez den materia-mota desberdinak detektatzen: zulo beltzak, neutrinoak, soka kosmikoak, edota oraindik ezagutzen ez diren WIMP —Weakly Interacting Massive Particles— delako zatikiak. Alferrik. Masa kritikora ez da ailegutzen. Baina, orain dela hiru bat urte itxaropen handia sortu zen Hubble teleskopio espaziala orbitan jarri zenean. Guk, lurretik ikusterik ez

duguna —atmosfera-erruaz— teleskopioak arazorik gabe detektatuko du espazioan, pentsatu zuten astronomoek.

Baina espektatiba horiek ez dira bete. Orain dela hilabete batzuk baino, oso kezagarria izan daitekeen berri bat zabaldu da: Hubble teleskopioak ez du inondik ere detektatzen astronomoek espero zuten materia kosmikoa. Unibertsoan dagoen masa ez da masa kritiko famatura ailegatzen, beraz.

Datu horiek baieztatuz gero gure unibertsoaren hedatze-prozesua eternala izango da, eta hori da gehiago zientzilariek onar dezaketena baino. Gauzak horrela izanda, Big Bang-en jatorriaz ditugun teoriak errotik aldatu beharko genituzke. Horrek ez du, printzipioz, arazorik suposatzen zientzilarientzat, zeren eta praktika zientifikoan batere arraroa ez baita teoria batek balioa galtzen duenean beste baten ordezkaria izatea. Nondik dator, bada, zientzilarien erresistentzia unibertsoaren masaren falta ez onartzeko?

Nire iritziz, zientziaren azpian subyazentea den arazo filosofiko sakona ere badago, eta arazo hori mendebaleko kulturaren sorrerarekin loturik agertzen da. Dakigunez, zientzia modernoa XVII. mendean sortu zen Europan, eta zientzia hori sortarazi zuena garai hartako merkatarien klasea izan zen. Klase horrek marka ezabagaitzak imprimatu zizkion zientziari: edozein fenomeno neurtzeko beharra, kausalitate mekanizista, logika ez-kontradiktorioaren hizkuntza (matematika), kualitatearen bazterketa eta, azken finean, Natura eragiteko grina teknologiaren bitartez.

Unibertso infinitoa ez da zientzilarien gustokoa, kantitatea kualitatearen menpe gelditzen baita. Unibertso infinito batean mendebaleko zientziak ez dauka ezer egiterik, kontrolatzerik ez baitu, eta kontrolatzen ez duena ezin baitu ulertu. Zentzu honetan ekialdeko pentsamenduak (gogora Tao txinatarra edo Veda indiarra) logika boteretsuagoak ditu unibertso infinito osotasun bezala ulertzeko, logika horien bitartez teknologia sortzeko gai ez bada ere. Lagun batek zioen bezala, mendebalean unibertsoa ikasteko eta menperatzeko oso tresna baliagarriak ditugu, baina unibertso hori kualitatiboki ulertezin agertzen zaigu.

Nonbait astrofisikak gure teoria kosmologikoen ahuleziak azalduko ditu laburrean. Eta unibertso finitua ez bada? Hori gertatuko denean, gertatzen baldin bada, mendebaleko gizakumeak beste erremediorik ez du izango begiak ekialdera zuzentzea baizik, ala irrazionaltasunean erori. □

IGELEN ISILTASUNA

Zientzilarien arabera, anfibioak ikatz-meategi bateko kanari topikoaren baliokide unibertsalak dira. Oso organismo ahulak dira, nahiz eta hau paradoxa bat den, Lurrean duela 200 milioi urte agertu zirenetik (lehen anfibioak duela 350 milioi urte agertu ziren), dinosaurusak, mamut iletsuak eta gainerako animalia erraldoiak hil zituen superbizitzeko gauza izan baitira. Ikusi dute glaziareak aurrera eta atzera egiten. Leku guztietan ageri dira Himalaiatik Sonorako basamortura. Igelen espezie desberdinek historikoki erakutsi duten erresistentzia da, hain zuzen ere, gaurko zientzilarien alarma eta harriduraren zergatia. Agian, diote, ingurugiroak jasandako aldaketak uste baino sakonagoak dira.

Suitzako «World Conservation Union»ek bultzaturiko hiru urtetako proiektu batek 40 estatutako 1.000 ikertzaitetik gora bildu ditu anfibioen gainbeheraren norainokoa eta ustezko zergatiak arakatzeko. Itxuraz, munduko igelen populazioak behera egin du, ustekabean. Arazoa zera da: desagerpen misterioitsu hau ekosistemaren egoeraz abisua ote den jakitea. Eraiki ez den eta habitat-a deuseztatu ez den lekuetan igelak hil egiten omen dira beren sistema immunologikoaren kolapsoak eragindako infekzioagatik. Zientzilari batzuek diotenez, igelak ingurugiroaren osasun-egoeraren berri ematen diguten mezulariak baino ez dira. Izan ere, kezkarriena zera baita, alegia, igelen desagerpena lurraren lekurik urrutien eta garbienetan gertatzen ari izatea. Herpetologen arabera, igelak dira ingurugiroaren osasuna nolakoa den jakiteko izakirik aproposenak.

Erradiazio ultramorearen gorakada —eragin handiena jaso duten anfibioak leku garaietakoak eta ozono-geruzatik hurbil dauden hegoaldeko latitudeetakoak izan dira (nahiz eta espe-

zie hauek kaltegarria den erradiazioari ohituta dauden eta, aldi berean, hain beharrezkoa zaien beroa bereganatzeko gauza diren —arraultze beltzak erruten dituzte, peritonea beltza dute)— da arazo nagusia batzuen ustez; beste batzuen iritziz, ordea, azidifikazioa da koska, euri azidoa; beste zenbaitentzat, aldiz, faktore zenbaiten nahasketak —erradiazio ultramorea, elur azidoa...— sortarazten du estres subletala sistema immunologikoarengan hala moduko haustura jarraia gertatzeko.

«National Science Foundation» delakoaren beka baten laguntzaz ari da Cynthia Carey apoen sistema immunologikoa aztertzen. Oinarrizko informazio hau jaso bezain pronto, bere hurrengo urratsa zera izango da: apoei ur azidoa, pestizidak, argi ultramorea eta tenperaturaren bat-bateko aldaketak jasanaraztea, baldintza hauen pean beren immunologi sistemak porrot egiten duen ala ez jakiteko.

Orain arte, ezagutzen diren igela eta apoen 3.800 espezie desberdinetatik asko eta asko desagertu dira jadanik. Baina zergatik? Eta, are inportanteago, zer gertatuko da igelak desagertzen badira erabat? Intsektuen gorakada izango da ondorioetako bat, anfibioak intsektuen populazioak kontrolpean mantentzeko intsektizidak baino askoz ere metodo hobekak baitira. Bangladeshen, adibidez, non frantsesek igelen izterrak jateko duten zaletasunaren ondorioz igelak desagertu diren, eltxoek eta malariak gora egin dute nabarmen. Igelak, bestalde, txori, arrain, narrasti eta ugaztun zenbaiten elikadura-iturri nagusia dira.

Lurrean gertatu diren desagerpen desberdinei buruz hitz egiterakoan, Niles Elredge paleontologoak «desagerpenek eboluzioaren ordularia berrezartzen dutela» dio. Orain arte, 6 desagerpen masibok berrezarri dute eboluzioaren ordularia, adibidez, Kretazikoaren bukaeran gertatu zena, dinosauruen desagerpenarekin. Zientzilari batzuen arabera, beste kataklismo baten erdian gaude —gizakiak eragindako lehena. Bizia, hala ere, ez da inoiz gelditu erabat. Zenbait espeziek heriotz-bailara zeharkatzea lortu dute, eboluzio-prozesu berri bati ekin; igelak adibidez. Horrexegatik, Wake-ren ustez eta teoria katastrofistei kontra eginez, igelak izango dira «gu hemen egongo ez garenean bizirik iraungo duen espezieetako bat».□

EKONOMIA

JENARO GARATE

MAASTRICHT, DANIMARKA ETA MERKATU LIBREAREN IRUZURRA

Danimarkan egin berri den erreferendumean baietza nagusitu da. Bigarren ekitaldi honetan, Danimarkak baietza eman dio Maastricht-i, bai, baina Maastricht-ek Danimarkari ezezko hauek onartzearen truke: defentsa bateratuari ez, polizia elkartuari ez, diru-merkatu batuari ez, eta gizakien zirkulazio libreari ez. Laugarren ezezkoak esanahi sakona dauka, aztertzea eta jakinaren gainean ipintzea merezi duena. Horixe egingo dugu, hasteko merkatu internazionala gehienbat babesten duen kostu konparatiboen teoria azalduz. Ez da ulergaitza, eta gaurko kulturaren gehientzat ezaguna izan beharko luke.

Kostu konparatiboen teoriaren aurkezpena: Jon eta Iñaki mendira ateratzeko dira, goizean goiz, bakoitzak bere lagun arteko afaria prestatu behar duela eta. Biak dira oilagorretan eta perraxikutan trebeak, baina ez berdinak. Ekitaldi osoan, Jon gauza da 18 dozena perretxiku batzeko, edota 6 oilagor hiltzeko. Goiza erdibituz gero, 9 dozena perretxiku eta 3 oilagor. Iñakirengaitasuna, ordea, goizaldi osoan 8 dozena perretxiku edota 6 oilagor eskuratzera mugatzen da.

Zer komeni zaie? Elkar ahaztu eta bakoitzak berera jo, ala trukeren bat egin? Kostu konparatiboek daukate erantzuna.

Lagunak	Bakoitzak gauza bat		Lan biak eginaz		Truke baten ondorio	
	Perr.	Oilag.	Perr.	Oilag.	Perr.	Oilag.
JON	18	edo 6	9	3	12(+3)	3
IÑAKI	8	edo 6	4	3	6(+2)	3
<i>Guztira</i>			13	6	18(+5)	6

Argi dago, bakoitzak gauza bakar bati ekinez gero —espezializatuz— eta trukean eginez, irabazten atera daitezkeela biak. Gure adibidean, batak hiru dozena perretxiku gehiago eta besteak bi, bakarka ari izanda baino. Iñaki motelagoa bada ere, berekiko 3 oilagor 4 dozena perretxikuko maila erakutsita dauka; Jonek, berriz, 3 oilagor 9 dozenako, proportzioan oila-

gor gutxiago. Horregatik, Iñakik oilagorretan egin behar du ekitaldi betean, abantaila konparatiboa dauka eta; bestea perretxikutan.

Bi herritarren ordez, Nazio edo Herri bi direla egiten badugu, hor daukagu merkataritza internazionalaren babes teoriko nagusia den kostu konparatiboen azalpena. Herri bat jardunaldi bietan beste herri bat baino bizkorragoa izanik ere —gure adibide didaktikoan ez da horrela—, beren abantaila konparatiboak desberdinak baldin badira, espezializatu eta elkarrekin trukean egitea komeni zaie bai eta lan-sail bietan bizkorragoari ere.

Eta goazen gure gaurko arazora.

Edozeini bururatuko zaizkio espezializazio horren ondorioak. Herri bat basoan ibiltzeko makilak eta abarkak egiten trebetuko dela, beste herria, berriz, eskopetagintzan, industria metalikoan, makinagintzan, balistika ikasketa eta institutuetan, eta abar. Eta denbora gutxi barru, herri bat bestearen ehiza-kotoen morroi-zaintzaile huts bihurtuko dela.

Baina akats horiek, behin eta berriz aipatuak, ez dira okerrenak.

Teoria horren ezik garrantzitsuena, gizakia zeharo kanpoan uzten duela da. Eta gauzak gizakiaren aldetik begiraturaz, zera dakusagu berehala: herri orotan, gizakiek mila eratako tasetan eta bokazioak dauzkatela. Bai perretxiku-biltzaile izateko, bai ehiztari, bai ikertzaile. Herri bakoitzean bertako herritarrek aukera guztiak behar dituzte bakoitza bere bidetik joan eta osatu ahal izateko. Edozein lan-motaren banaketa herriko gizaki askoren osabide, gogo eta zuzenbideen kontra doa. Zarrast egitea da. Hori da kostu konparatiboen iruzurra: logikaz jardun, baina gizakia merkantzien azpian zokoratu. Berekoko dilema, berriz, hau da: mundu zabalean gizakiak beren gauzekin libre ibili eta jardun, ala herri bakoitzeko gizakiek euren gogara eratu bertako azokak.

Bestalde, barregarria da guk egin nahi duguna. Azaltzen da mugan edozein atzerritar, eta zera esaten diogu:

«Zure erlojua, betaurrekoak, oinetakoak eta galtzazpi edo ipurzapiak, ongi etorriak gure herriko merkatu libreran. Baina zuk zeuk bertan geratu behar duzu, narrutsik izango bada ere, zeren gure herri libre honen gauza-merkatu librean, gizakiak ezin baitute ez lan bila jardun, ezta libre bertan ibili ere.»

Hori da gaur predikatzen zaigun/dugun merkatu-liberalismoa.

Azalpen hau, normalean, azalpen teorikoa da. Baina gaur, ordea, gertatukoaren berri da. Danimarkak zehatz-mehatz oihukatu du: gauza-merkatuaren liberalismoa bai (neurri batean, jakina), baina giza liberalismorik ez. Europakideekin ere ez.

Danimarkarrek garbi erakutsi dizkigute bi ikasgai:

a. Politikoak herriaren esanera jartzerik badagoela. Politikoek herria euren asmoetara erakarri ordez, danimarkarrek erakarri dituzte politikoak herriaren gogara.

b. Europar Komunitateko merkatu librean gizakia azpian baztertuta dagoela.

Eta hau akats itzela da, konpondu ezik ondorio oso txarre z betea. Ez bakarrik gizadi osoa ehiztari eta basamutil-taldetan banatzea dakarrelako; batez ere, gizakien, gizataldeen eta herrien galtzearen ardurarik ezagatik. Afrika eta Latinamerikako hamaika herri lekuko.□

IBM INFORMATIKAN LIDERRAREN KRISIA: INFORMAZIOARIK EZA

«1951ean, IBM konputadoreen sailean sartu zenean, garenaren gogor inbertitzeko aukera eman zion bere handitasunak. Inbertsio-ahalmen honek, gehi konpainiaren marketing-jakituria praktikoa (marketing expertise) eta bere ekipoak eskaini eta konpontzeko konpromezuak, leku gorenean jarri zuten Ameriketako konputadore-merkatuan.» (Encyclopaedia Britannica)

Gaur, ostera, krisi sakonean murgilduta dago. Goi-mailako informatikan oraindik munduan aurreratuena den enpresak, ez du informatika-informazioari eduki merkatuaren nondik norakoak iragartzeko, eta bezeroak eta irabazpideak ihes egin diote esku artetik. Esana da, zenbat eta enpresa handiago, hainbat eta urrutiago kokatzen da bezeroengandik.

Nortzuegana joan dira bezeroak eta irabazpideak? Batez ere IBMek berak bere magalean sortutako bi enpresatara: Intel eta Microsoft. IBM ez zen konturatu konputadore txikiak, PCak, gero eta ahaltsuago egiten ari zirela, eta bezeroek onetsiak izango zirela askotan, konputadore handiak baztertuz.

Konputadorebat erostean —PC bat adibidez—, hauek biak ere erosiko dituzu: mikroprozesadoreak —‘pentsa’ arazteko— eta programak —‘zertaz pentsa’— agintzeko.

Intelektxip-ak eta mikroprozesadoreak egiten ditu, Microsoftek oinarritzko programak. IBMek enpresa bi hauei bere altzotik alde egiten utzi zien. Gaur ondo baino hobeto irabazten ari dira biak, eta bakoitzak IBMek baino gehiago balio du New Yorkeko burtsan.

Ondorioak beltzak izan dira IBMrentzat.

Iaz, lehen aldiz, Apple Computer enpresak IBMek baino PC gehiago saldu zituen. IBMek bostgarrengo berrantolaketa dirau zazpi urteren barruan, eta 1985a geroztik, 100.000 lanpostu kendu ditu. 1992an \$4.970.000.000 galdu zituen. Inbestigazio-planak ere murriztu egin behar izan ditu, kostuak jaitsiarazteko.

Beraz, IBM handiak informatikan eduki izan zuen ezaguerak ez zion eman merkatuen datuak informatizatu eta etorkizuna iragartzea, «marketing expertise» hura mantentzea. Argi dago zaila dela gure enpresentzat eta baita IBM argiarentzat ere, merkatuaren etorkizuna usnatzea. □

SINDIKATUEN ETORKIZUNA

Langilearen aldeko lanari badarraiote gaur ere, sindikatuen helburu zehatzak asko aldatu dira. Lehenago hauek ziren oinarritzkoak: lansariak, lanorduak, lanbaldintzak. Gaur egun lanpostu gehienetan lana nahiko eroso da. Logaltze eta gorputz nekaldi egunak dira askorentzat asteburukoak; lanegunak, osterak, zuzpertz egunak. Urte guztiko lanorduak asko gutxitu dira, eta oporrak edo oportxoak sarri eta luzeak izaten dira. Lansariak eta lanpostuak geratzen dira oinarritzko jomuga.

Bestalde, sozialismoaren bihotz erdian pentsakera kolektibista zetzan; eta sindikatuen pentsakeran Estatu-enpresa planifikatzailea.

Planifikazioa eta kolektibismoa lur jota geratu dira sozialismoaren porrotarekin batera, eta gauden Europako Komunitatean zeharo baztertuta. Sindikatuak, beraz, garai berri honetara gaurkotu behar dute. Zer eskatu eta nori eskatu aldatu direlako.

Planifikaziorik gabeko sistema, merkatu-ekonomia, enpresa baso bat da, zuhaitz pentsalari, mugikor eta aldakorrez betea. Basoak iraun dezan, zuhaitz askok igartu, erre eto aizeak lurjo egin behar du, eta beste zuhaitz berri askok sortu. Lanpostuak zuhaitzen adarrak baldin badira eta basoak iraungo badu, adar askok egur bihurtu beharko du. Ezinezkoa da egunean eguneko adar guztiak iraunaraztea, sustarririk gabeko zuhaitzetan adarrak eze mantentzea. Batzuek jausi, beste batzuek hazi egin behar dute.

Irtenbidea?

Lehenbizi gogoratu, gehienbat sindikatuei esker lortutako langabezi laguntzak, jubilazioak, eta abarrek, hiru mesede handi egin digutela denoi: bat, lanean diharduten langileen baldintzetan; bi, langabezian edo gaixo edo zaharkituta geratu diren pertsonen bizimodu erosotxo lortuz; eta hiru, ekonomi sistemari egonkortasuna emanez, gorabeherak baretuz.

Entzun izan dut sindikatuak hiltzori luzean daudela. Eta hori, koakziorik gabe ezin dutelako grebek eraginik lortu, eta grebarik gabe sindikatuen porrota letorkelako. Koakziorik ez, sindikaturik ez.

Baita ere pentsa liteke sindikatuak etorkizun eraginkorra daukatela, baina jokabideak zerbait aldatuz/zabalduz.

Ohituta gaude pertsonen txartela ezarri, eta txartel-borrorak sortarazten. Langilea enpresariaren etsai, baserritarra industri langilearen aurkari, eta abar. Baina gaurko ekonomi egoeran, gizakiak, bai pertsona langileak, bai pertsona enpresariak, dogma baten jirabiran gaude: pertsonen gainetik ezarri nahi den azoka librearen jirabiran. Eta dogma hori, lehenbizi, pertsona langileen aurka doa eta, batera, pertsona enpresalari eta pertsona guztien kontra. Herri osoaren kontra.

Sindikatuak beti izango dute enpresen jokaera batzuen aurka egin beharra. Oraingo arazo puntuala lanik eza da eta pertsona den langileari pertsona lez laguntzea. Oso zaila da lanik ezaren minak bestelako laguntzaz —diruz eta— osatzea. Baina askoz zeregin eraginkorragoa dute, enpresa eta herri guztiarekin batera, azokak gizakien menpe jartzen. Horrela jokatzeko giro internazionalaren aurka doa, Ekonomia Internazionalaren ikurrinak zera dioelako: «zutik iraun ezin duenak, hor konpon».

Konponbide orokorra pertsonak kontuan hartzea da, langile diren pertsonengandik hasita. Hortik etorri behar du lana giza zentzunez antolatzeak eta langileek lanpostu egokiak izatea. □

IKUSKIZUNAK

BEGOÑA DEL TESO

KATTAGORRIA CANNESEN

Urtean behin, Kostalde Urdineko palmondoak zeluloidez eta zeluloidean loratzen dira. Urtean behin, itsasoa eme-eme ki ukitzen duten Alpes mendien hurbilean urrezkoak izaten dira palmorriak. Aurten kattagorri polit, bihurri, saltseroa ikusi da estreinako aldiz Cannesen, pantailaz pantaila jostari.

Julio Medemen «La ardilla roja» txaloz eta kideetasun alaiaz jaso zuten «La Quinzaine es réalisateurs» sail desberdin eta tentagarrira ailegatu ziren denek. *Liberation* eta *Le Monde* egunkariak aldeko kritikak plazaratu zituzten. Beste zinemaldietako ordezkariak berarien zinema-bileretan filmea aurkezteko gonbitea luzatu zioten eta, eta, eta... Frantziako zazpi gazte zinemazale amorratuz osaturiko epaimahaiak frantziarra ez zen filmerik hoberena izendatu zuten. Konpainia ederrean dago, ez pentsa, donostiarra, Spike Leek berak eta «Bailar con un extraño» edo «Totó l'héros» lan mamitsuek irabazi baitute inoiz ikur hori.

Meretzia Cannesen izandako arrakasta gozoa. Madrileko kritikariak ofizioz sendagilea den zuzendari kuraios honen bigarren lana zapuztu zuten arras.

Jota, zisko eginda, penaturik geratu zen «Behiak»en egilea. Apurka-apurka, Barcelonan, Euskal Herrian bestelako aburuak kaleratu ziren. Ikusleak, arian-arian aretoetara hurbilduz joan ziren eta elkarri eginiko gomendioen bitartez eta haiei esker, aise, seguru, irabazle-modura ibili da kattagorria takila-kontuetan. Nolakoa da ba Cannesek maite izan zuen zeluloide puska hori?

Hamaika isileko gorderik duen filme erakargarria da Julio Medemek burutu duena. Agerian jartzea edota ezkutuan uztea ikusleak hartu beharreko erabakia da.

Gezurra nagusi, jokua errege, amodioa jaun, emakumea jabe. Erotismoa hor, misterioa han. Kamara arriskutsua. Gidoia, e roa. Irudiak, perfektotasun antzu batetik ihesean. Ez da biritu baina bada apustu leial eta zangarra.

Musikaz blai, beldurra uxatua, «La ardilla roja» erreferentzi puntu izango da gure zinemarentzat. □

PELIKULETAKO IKERLARIA CANNESEN

Betiko, ohizko lelo aspergarria, «Hau ez da jada zinemaldia bestelako mamua baizik» idatzi izan zuen, eskua amorruek dardaraz, Diego Galanek. Eta hurrengo egunean, *El Diario Vasco* ere, Donostiako zinema-festan aholkulari dabilen hori honelaxe mintzo zen: «negozio eta marketingen esklabu bihurtu da». Cannes zen hizbide, hitzetorri.

Xenda beretik, alde zurretik gaia jarrita eta onarturik, ibili dira han eta hemengo berriemaileak. Lasai asko Kosta Urdineko bilerak ezer berririk eskaini ez duela, dolarraren esanetara dagoela eta foruma baino azoka dela baieztatu dute.

Zilegi da oso. Norberak du bere baitako Cannes buruan eta bihotzean. Egia zeluloide-tratalari askoren bilkura dela. Egia biribila Sail nagusian irabazleak —Jane Campionen «The piano» eta Chen Kaigeren «Adieu, ma concubine», hots— hasiera-hasieratik jakinda eta asmaturik zeudela. Biak ziren, izan ere, filme ederrak baina ez preziso errebolitariak edota mundu berriak urratuko dituzten horietakoak.

Epaimahaia ere, zuhur eta barea. Ia filme guztiei behar-saria eskaini zien. Orain arte idatzitakoa idatzita ere, zinemazale benetakoak derrigorrezkoa du Cannesera hurbiltzea. Baina ez desde luego tapeta, alfonbra gorria zapaldu eta lasai, gozo, dotore eta esmokinez filmeak ikusteko asmoz ala helburuz.

Horrela ezer gutxi lortuko du. Baionan estreinatu baino hiru egun lehenago ala Donostian baino astebete aurretik izenburu pare bat dastatzea. Besterik ez. Horrek badu, nola ez ba, harrokeri puntu bat. Bada entzute ona, estima handia bereganatzeko erabil daitekeen «pin» antzeko zerbait ere. Baina ez

da nahikoa. Ez behintzat orain zinema 100 urte betetzear dagoelarik...

Ez. Ezinbestekoa, zinemajale petoa denarentzat zingira ezezagunetan murgiltzea. Inork ikusi ez dituen leizetara salto egin beharra dago.

Horrela eginda, berak antzeman, berak igarri, berak kausituko duena nolana hiko ikusle lasai eta patxarosoak ez du sikiera sumatuko.

Zer zen ageriko ala gordeko Canneseko mamuaren erraetan? Ba...

Jatorria mexikarra duten hainbat eta hainbat zinemagile estatubatuarren konpromezu eta irudi finak.

Oraindik ere hamaika arraza biltzen dituen Europako zinemak bizirik dirau hiriburu handietako auzoetan harantz hurbildutako egile beltz eta txinatarrek lanean dihardute eta. Adibide gisa, Urrezko Kamara eskuratu zuen «L'odeur de la papaye verte».

Autore afro-amerikarrak jo eta fuego dabilta Estatu Batuetan. Los Angeleseko sugarretan irudiak kiskaldu izan dituzten Hughes anaiekin konparatzen badugu, Spike Lee burgoi txikia besterik ez da eta bere «Malcolm X», koloretako ipuina. Erre-suma Batuko zinemak berriro begiratzen du atzera eta aurrera amorrus eta begi krudelez. Bi adibide nahi? Ken Loachen «Raining Stones» garratz hura eta Mike Leighen desesperoz egindako «Naked».

Ekialdeko dragoia, sugetzerra esnatzen ari da. Bere orroak munduko lau izkinetan dauden zinemaldiak estaliko ditu aurki.

Krisialdiak pantailan ere badu eragina, islada. 45 milioiko pelikularik —milioi dolar, alegia— kostata erosten zen merkatuan eta 20 milioi baino gehixeago balio zutenak eskuraezinak ziren banatzaile askorentzat.

ekoiztetxe handi, erraldoien arteko gerra amaiera gabekoa da. Aurten, Mediterraneoan itsasertzean Universal eta Columbiaren borroka-oihuak entzuten ziren.

Arnold Schwarzeneggeren «El último super héroe» eta Steven Spielbergen «Parque Jurásico» lehia ankerrean zebiltzan ikusleak erakartzeko norgehiagoka bizian. Guzti horretaz jabetu zitekeen bazterrak nahastera joandako zeluloide-ikerlaria. Zinema mokadu fin ala pipertsuak ordain eta sari nagusi gisa,

Joel Schumacherren «Un día de furia» edota amets amerikarraren porrot eta leherketaren testigantza abila.

Ez dirudi, alazankoa, emaitza petrala baina, jakina, den-dena dastatzeko, kaleak eta aretoak, hotelak eta terrazak korritu behar eta ez ilunpean, 12 egunez gaizki esaka eta umore txarrez bizi.□

TXOTXONGILOAK TRUFARI BERGARAN

Bigarren aldiz, Taun Taun taldeak antolatua, Bergaran izan zen Helduentzako Txotxongilo Mostra. Nazioartekoa. Bai horixe. Kaminoetan barrena, Argentina, Peru eta Bosniako titiriteroak etorri ziren. Baita Andaluziakoak ere. Valentziakoak ere bai. Eta Segoviako ipuin-kontalari trebeak. Euskal Herrikoak ere ezin falta...

Bergara goitik behera, kalean gora, kalean behera; plazatik eskuinera eta ezkerrera, Gaztetzeko txoko guztiak, tabernetako mostradoreak eta areto txiki baten taulak, «okupak» bailiren harrapatu zituzten. Eta herria kontent. Eta herritarrak konplize, laguntzaile eta begira.

Bertakoek bigilatzen zituzten komeriante hauen lau gurpileko giltzarik gabeko «gurdi» kaskarrak. Bergarako jendeak kuzinatzen zuen beraiantzat. Eta bete izan zituen ikuskizun guztiak.

Abangoardia eta antzinako teknikak. Hariak eta goma-espumazko panpinak. Burdin-hariak eta Japongo maisuei maitasunez lapurtutako hainbat isileko. Giza gorputzean gordeko diren zenbait «muñeko» agerian jarri zituzten, ekitaldi sorgindu batean, Hugo eta Inesek. Valentziatik heldua zen Eduk titiriteroizateari egin zion kanta ederra, teknikaz eta amodioz gainditu ezina.

Espektakulo «pornoa» izan zen UNEDen aretoan. Markeliñek, ordea, su eman zion Real Seminarioko plazari «Armagedon» deabruari dei egin zionean.

Txotxongiloak bazterrak nahastu zituen Bergaran. Arte-motabat dela bagenekien. Hainbatek bizitzeko ezinbestekoa duela erakutsi ziguten Gabriel Castillak, Segoviako «La Libélula»k, «La gotera de la azotea»k eta beste hainbat ero zoragarrik.

Bergara zeharo kutsaturik geratu zen. Hirugarren Mostra nola, noiz, norekin zain, grinaz, galdezka esnatu zen astelehen buruzuri batez.□

AZTI ETA SORGINAK TOLOSAN

Bergarak panpinez eman zion ongi etorria maiatzari. Tolosa hiri prestuak magiaz egin zion diosala.

Azken asteburuan, laugarren magialdian, Europa osoko azziek sorgindu zuten kulturari gero eta lotuago dagoen herri hau. Alemaniatik ziren etorriak batzuk. Ero britaniar batek begiak estalita, kotxe bat gidatu zuen abilezi galbidetsu osoz. Iparra aretotik atera zen eta hamaika bira egin ondoren, sanu eta salbu Triangulora bueltatu.

Hurbileko magia ekitaldiak. Mimo eta sorginkeri bihurriak. Sokak, txanponak, musuzapiak... dena zen gure begi aurrean, denak alde egiten zigun begi-bistatik. Ikusi, zer ikusi? Baietz ikusi nahiz eta... ezer ez ikusi...

Lurretik altxatzen ziren magoak eta airean ibili eroso asko. Buruan zenituen zenbaki eta isilpeko guztiak plazaratzen zituzten erruki gabe... Eta gero... Afaltzera joan ginen. Benetakoak jangauzak? Batek daki: arrain-pastela Houdini erara, «Tamariz» izeneko piper beteak, «croquetas» magikoak...

Aztiak inguruan zeuden. Mahaiz mahai paseoan, sesioan: «Seguru afaldu duzula? Zergaitik ba postrea oraindino platerean?» Non ikusi duzu ordea, platera? Arranopola! Tolosa osoa asmakizun handia ez ote zen/den susmoan dabilta bertakoak. Espejismo baten barruan bizi ote dira?□

TEATREROAK... BASAURIN FIJO

Basaurik badu antzoki zahar berritua. Hamar urtez egon da itxita. 380 milioi pezeta kosta izan da martxan jartzea. «Sozial antzokia» du izena eta «kultur ekintzen sortzaile eta igorle» izatea, ametsa.

Hilaren 29an, euskal aktoreen batasunak ikuskari baikor eta maltzurraz ekin zion bide eta bizitza berriari.

832 lagunentzako lekua du Sozial maitiak. Bizi bedi sasoiko eta borrokari.□

...POLITIKARIAK TELEAN

Duela 30 urte, Kennedyk Nixon gainditu zuen telebista mimatu zuelako eta telebistak, bueltan, maitekiro tratatu zuelako. Estatu honetako 11 milioi lagunek bitan izan genuen, Aznar eta Gonzalezekin, aparailu madarikatu eta tentagarri horren indarraren froga.

Oraindino telebistarekiko harremana zertan eta zertarako ez dakite gure politikariek ez baitute Maquiavelo irakurri. Ika-siko dute. Kolpeka, porrotaz eta gu, lekuko, jasale, martir, konplize eta «voyeur» izango gaituzte.□

IBURUAK

IDAZKARITZA
JASO DITUGU

JASO DITUGU

- ALBISU, Anastasio: **Anastasio Albisu**. Antzerti. 1992. 28 □ 15,5 cm, 102 or.
- APAOLAZA, Antero: **Patziko txerren**. LERTXUNDI, Anjel (prestateta). OLARIAGA, Antton. Erein. Donostia. 1993. 19 □ 12,5 cm, 121 or.
- ARANBURU, Pello Joxe; BIDEGAIN, Marian; IDIAKEZ, Antton; REZOLA, Iñaki: **III. Gerriko ikerlan-sariketa Juan Ignazio Iztueta Etxeberria (1767-1845)**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 24 □ 17 cm, 164 or.
- ARREGI DIAZ DE HEREDIA, Rikardo: **Hari hauskorrak**. Erein. Donostia. 1993. 20,5 □ 13 cm, 104 or.
- ARRIETA MALAXETXEBARRIA, Yolanda: **Badago ala ez dago...?**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 21 □ 15 cm, 74 or.
- ARRUABARRENA GOIKOETXEA, Arkaitz: **III. Gerriko ikerlan-sariketa Goierriko Biztanleria (1860-1986)**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 88 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Alukiss**. OLARIAGA, Antton. Erein. Donostia. 1992. 26 □ 19,5 cm, 200 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Autismoa eta hezkuntz premia bereziak / Autismo y necesidades educativas especiales**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 29,5 □ 21 cm, 144 or.

- ASKOREN ARTEAN: **Bermeo. Udalerri eta itsasoko gaiei buruzko aldizkaria-8 1990-91.** Bermeoko Udala. Bermeo. 1993. 24 □ 16,5 cm, 294 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Bermeo. Udalerri eta itsasoko gaiei buruzko aldizkaria-9 1992-93.** Bermeoko Udala. Bermeo. 1993. 24 □ 16,5 cm, 286 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Biztanleriaren Berezko Mugimendua 1991 Movimiento Natural de la Población.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1992. 25,5 □ 21 cm, 244 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak 1991. Biztanleriaren Egitura / Censos de Población y Viviendas 1991. Estructura de la Población.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1992. 25,5 □ 21 cm, 294 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Biztanleriaren Inkesta Ihardueraren Arabera IV-1992 / Encuesta de Población en Relación con la Actividad IV-1992.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1992. 25,5 □ 21 cm, 192 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Biztanleriaren Inkesta Ihardueraren Arabera-III 1992 / Encuesta de Población en Relación con la Actividad-III 1992.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1992. 25,5 □ 21 cm, 192 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Debate social ante las drogodependencias, Euskadi 1992.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 21 □ 21 cm, 270 or.
- ASKOREN ARTEAN: **El ahorro Macroeconomico en el País Vasco.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 24 □ 17 cm, 118 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Emakumeak Euskal Autonomi Elkartean / Las mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi.** Emakunde. Gasteiz. 1992. 29,5 □ 23,5 cm, 320 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Eragozpen motorikoak eta hezkuntz premia bereziak / Deficiencia motriz y necesidades educativas especiales.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 29,5 □ 21 cm, 120 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Errepidezko Merkantzien Garraio Publikoari Inkesta 1989-1990 / Encuesta al Transporte Público de Mercancías por Carretera 1989-1990.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1992. 25,5 □ 21 cm, 96 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Estadistika Buletina 12-1992 / Boletín de Estadística 12/1992.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1992. 25,5 □ 21 cm, 100 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Estatistika boletina-8.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1990. 25,5 □ 21 cm, 128 or.

- ASKOREN ARTEAN: **Estatistika boletina-9**. Euskal Estatistika-Erakundea . Gasteiz. 1990. 25,5 \square 21 cm, 92 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Estatistika Buletina I-1993 Boletín de Estadística**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5 \square 21 cm, 104 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Estatistika Buletina-10 1992 / Boletín de Estadística-11 1992**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1992. 25,5 \square 21 cm, 100 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Estatistika Buletina-11 1992 / Boletín de Estadística-11 1992**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1992. 25,5 \square 21 cm, 124 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Euskal Herriko Herri Erakundeen Barne Errotulazioa**. Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundea. Gasteiz. 1992. 21,5 \square 15,5 cm, 176 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Euskal Urtekari Estatistikoa 1992 / Anuario Estadístico Vasco 1992**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5 \square 20,5 cm, 654 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Ezintasun mental latz eta sakonak eta hezkuntz premia bereziak / Retraso mental severo y profundo y necesidades educativas especiales**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 29,5 \square 21 cm, 120 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Guia de Recursos de Euskadi. Drogodependencias**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 21 \square 21 cm, 352 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Hizkuntz ordezkapenaren nondik-norakoak Goierrin**. Gerriko. Lazkao. 1992. 21 \square 15 cm, 120 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko Iharduerei Buruzko Estatistika (I+G) 1990 / Estadística sobre Actividades en Investigación Científica y Desarrollo Tecnológico (I+D) 1990**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1992. 25,5 \square 21 cm, 124 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Ikusmen zailtasunak eta hezkuntz premia bereziak / Deficiencia visual y necesidades educativas especiales**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 29,5 \square 21 cm, 84 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Industri kontuak**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1992. 25,5 \square 21 cm, 190 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Industri prezioen indizea**. Euskal Estatistika-Erakundea . Gasteiz. 1992. 25,5 \square 21 cm, 44 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Industri Produkzioaren Indizea 1991 / Índice de Producción Industrial 1991**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1992. 25,5 \square 21 cm, 124 or.

- ASKOREN ARTEAN: **Irakaskuntzaren Estatistika 91/92 / Estadística de la Enseñanza 91/92**. Euskal Estatistika-Erakunde. Gasteiz. 1993. 25,5 × 21 cm, 300 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Jardunaldiak Soziolinguistikaz. Bilbao 92**. Bilboko Udala. Bilbo. 1993. 24 × 17 cm, 344 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Laneko Lesioen Estatistikak 1991 / Estadística de las Lesiones Profesionales 1991**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 29,5 × 21 cm, 172 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Migrazio mugimenduen estatistika**. Euskal Estatistika-Erakunde. Gasteiz. 1992. 25,5 × 21 cm, 210 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Proceedings of the eapr meeting virology section**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 27 × 20 cm, 122 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Projects and results 1988-1992. Applied Metrology and Chemical Analysis**. BCR. Luxenburgo. 1992. 21 × 14,5 cm, 312 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Universidad de Deusto. Anuario 92-93 / Deustuko Unibertsitatea. 92-93 urtekaria**. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo. 1992. 29,5 × 21 cm, 200 or.
- AZKUNE, Iñaki: **Charles Darwin eboluzioaren profeta**. Gaiak. Donostia. 1992. 21,5 × 17 cm, 198 or.
- AZURMENDI, Joxe Mari; ZUBIZARRETA, Patxi; ZABALA, Juan Luis; MIGELTORENA, Agustin; AIZPURUA, Mikel; BASTARRIKA, Aitor; ANDONEGI, Jakes: **Tene lehiaketa 1993**. BERSALUZE, Willy (azala). Elkar; Debako Udala. Donostia; Deba. 1993. 19 × 12 cm, 112 or.
- BALLINGER, Bill S.: **Kez egindako erretratua**. ITURRALDE, Joxemari. Igela. Iruñea. 1992. 17 × 10,5 cm, 348 or.
- BANDRES, Luis Maria: **Zientziaren Historiografia (I) (Aurrehistoriatik Erdi Arorarte)**. Gaiak. Donostia. 1992. 21,5 × 17 cm, 236 or.
- BANDRES, Luis Maria: **Zientziaren Historiografia (II) (Errenazimendutik XIX. mendera arte)**. Gaiak. Donostia. 1992. 21,5 × 17 cm, 204 or.
- BASTERRETXE, Begoña; KAMINO, Marikarmen; OLABARRIA, Iñigo; USABIAGA, Mikel; ZALBIDE, Mikel: **EIMA. Ikasmaterial idatzien bilduma 1992**. GLZ. KATARAIN, Angel (Azala). E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 27 × 20 cm, 480 or.
- BENNI, Stefano: **Bitxilandiako animalia miresgarriak**. BIGURI, Koldo. CUNIBERTI, Pirro. Erein. Donostia. 1992. 19 × 12,5 cm, 112 or.
- BLYTON, Enid: **Bostak itsasertzean**. ALTUNA, Margarita. CORREAS, J.. Elkar. Donostia. 1993. 19 × 13 cm, 184 or.

- BOSCH URDANIBIA, M.D.; ESTEVEZ OVEHAS, I; RECARTE LARRALDE, I.M.: **Premio Gonzalo Nardiz de etologia-1991.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 24 □ 17 cm, 120 or.
- BUESA BLANCO, Fernando: **Eskola-Hitzarmena. Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordearen Aurreko Agerpena 1992ko ekainak 25 / El Pacto Escolar. Comparecencia ante la Comisión de Educación del Parlamento Vasco 25 de Junio de 1992.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 21 □ 15 cm, 52 or.
- CAMPION, Arturo: **Arturo Kanpionen bost euskal-narrazio.** ETXAIDE-ITHARTE, Yon. OLARIAGA, Antton. Erein. Donostia. 1993. 20,5 □ 13 cm, 208 or.
- CELINE, Louis-Ferdinand: **Gauaren muturrerainoko bidaia.** MUGICA, Matias. Igela. Iruñea. 1992. 20 □ 12 cm, 518 or.
- CHOMSKY, Noam: **Intelektuala Historiaren Aurrean (Chomsky-ren pentsaera politikoa eta filosofikoa).** X.X.. Gaiak. Donostia. 1992. 21,5 □ 17 cm, 236 or.
- COTO FERNANDEZ, Juan Carlos; IDOATE CARVAJAL, Mikel; URIARTE ASTARLOA, Pedro Pablo: **Salud laboral: protocolos sanitarios específicos de vigilancia médica de los trabajadores (III). Exposición a Ruido. Exposición a Vibraciones.** EGI-LEOR GURTUBAI, Iñaki (Zuzend.); Koord.: COTO FERNANDEZ, Juan Carlos; URBANEJA ARRUE, Félix; AURREKOETXEA AGIRRE, Juan Jose. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 21 □ 15 cm, 96 or.
- DEFOE, Daniel: **Singleton kapitaina.** MENDIGUREN, Iñaki. JØRGENSEN, Oskar; IGARTUA, J.F. (azala). Elkar. Donostia. 1993. 18 □ 11 cm, 78 or.
- DÜRRENMATT, Friedrich: **Matxura.** MENDIGUREN, Xabier. Erein. Donostia. 1992. 18 □ 11 cm, 91 or.
- E.J. EKONOMIA, PLANGINTZA ETA INGURUGIRO SAILA: **Caracterización hidrobiológica de la red fluvial de Alava y Gipuzkoa.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 25,5 □ 18 cm, or.
- E.J. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila: **Lanbide Heziketa Erreformaren bidean / Formación Profesional la Reforma en marcha.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 21 □ 21 cm, 124 or.
- E.J. NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA: **Análisis y diagnóstico de los sistemas forestales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 24 □ 17 cm, 372 or.

- E.J. Nekazaritza eta Arrantza Saila: **Memorias-91. Investigación agropesquera.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 24 □ 17 cm, 216 or.
- E.J. Nekazaritza eta Arrantza Saila: **Nekazal Elikagai Sektorearen Estatistika Urtekaria E.A.E. 1991 / Anuario Estadístico del Sector Agroalimentario C.A.P.V. 1991.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 29,5 □ 21 cm, 160 or.
- E.J. OGASUN ETA FINANTZA SAILA: **Comunidad Autónoma de Euskadi Presupuestos 1993. Una visión global.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 208 or.
- EGILE EDITORE: **Antzinako Egipton barrena.** Gaiak. Donostia. 1992. 23 □ 15,5 cm, 78 or.
- EGILE EDITORE: **Arazismoa beti bizirik.** Gaiak. Donostia. 1992. 23 □ 15,5 cm, 78 or.
- EGILE EDITORE: **Gazteak eta sexualitatea.** Gaiak. Donostia. 1992. 23 □ 15,5 cm, 78 or.
- EGILE EDITORE: **Gurutzadak eta tenplariak.** Gaiak. Donostia. 1992. 23 □ 15,5 cm, 78 or.
- EGILE EDITORE: **Lurraren ezkutuko historia. 5.000 milioi urte-tako eboluzioa.** Gaiak. Donostia. 1992. 23 □ 15,5 cm, 78 or.
- EGILE EDITORE: **Roboten mundu kezagarria.** Gaiak. Donostia. 1992. 23 □ 15,5 cm, 76 or.
- EGILE EDITORE: **Sorginak eta Euskal Herria.** Gaiak. Donostia. 1992. 23 □ 15,5 cm, 78 or.
- EMAKUNDE: **Laneko sexu-erasoaren aurkako Jokabide-Arautegia / Código de Conducta contra el acoso sexual en el trabajo.** E.J. Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Gasteiz. 1993. 21 □ 15 cm, 44 or.
- ESCUADERO, Juan Carlos: **Las pensiones más allá del año 2000.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 24 □ 17 cm, 208 or.
- EUSKADIKO K.A.ko ADMINISTRAZIOA. EKONOMIA, PLANGINTZA ETA INGURUGIRO SAILA: **II Jornadas de Educación Ambiental. Documentos.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 29,5 □ 21 cm, 164 or.
- EUSKADIKO K.A.ko ADMINISTRAZIOA. NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA: **Euskal arrantza-flotaren aurkibidea 1991 / Directorio de la flota pesquera vasca 1991.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 27 □ 20 cm, 60 or.
- Euskal Estatistika-Erakundea: **Ospitale Estatistika 1991 Estadística Hospitalaria.** Euskadiko K.A.ko Administrazioa. Gasteiz. 1993. 25,5 □ 21 cm, 164 or.

- Euskal Estatistika-Erakundeak: **Ospitaleez Kanpoko Estatistika Publikoa 1991 Estadística Extrahospitalaria Pública**. Euskadiko K.A.ko Administrazioa. Gasteiz. 1993. 25,5 × 21 cm, 68 or.
- EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA: **El sector público empresarial de la Comunidad Autónoma de Euskadi 1991**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 × 17 cm, 480 or.
- GARMENDIA LASA, M. Karmen: **Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusiaren Agerraldia, berak eskatuta, Eusko Legebiltzarreko Iraskunde eta Herrizaingo Batzordearen aurrean 1992ko azaroak 13 / Comparecencia, a petición propia, de la Secretaria General de Política Lingüística del Gobierno Vasco an la Comisión de Instituciones e Interior del Parlamento Vasco 13 noviembre de 1992**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 24 × 17 cm, 64 or.
- HERGE: **Izar misterioitsua**. AZURMENDI, Joxemari. Elkar. Donostia. 1993. 29,5 × 22 cm, 62 or.
- HERNANDEZ ABAITUA, Mikel: **Ispiluak**. Elkar. Donostia. 1993. 19 × 12 cm, 148 or.
- HERRIOT, James: **Hitz egingo balute**. MENDIGUREN, Iñaki. ILLUM, Per; IGARTUA, J.F.(azala). Elkar. Donostia. 1993. 18 × 11 cm, 102 or.
- IDIAZABAL, Itziar; BRONCKART, J.P.; DOLZ, Joaquim; LARRINGAN, Luis M^a; KAIFER, Antton; VALLE, Isortze del; ARANO, Rosa M^a: **Testuaren Pedagogia. Pedagogía de Texto**. Labayru Ikastegia. Bilbo. 1992. 21 × 14,5 cm, 180 or.
- IGERABIDE, Juan Kruz: **Begi-niniaren poemak**. EMALDI, Luis. Erein. Donostia. 1992. 19 × 12,5 cm, 83 or.
- IRIZAR, Jose: **Orreaga**. MUJIKIRAOLA, Inazio. MENDIZABAL, Juan Ignacio. Erein. Donostia. 1992. 24 × 17 cm, 56 or.
- IRIZAR, Jose: **Urte ilun haietan**. ARZALLUS, Joan M.. MENDIZABAL, Juan Ignacio. Erein. Donostia. 1992. 24 × 17 cm, 60 or.
- ITURBE, Arantxa: **Maite, maite, maitea (1-15)**. HABE. Donostia. 1992. 21 × 15 cm, 248 or.
- ITURRALDE, Joxemari: **Bederatzi gutun t'erdi**. OLARIAGA, Antton. Erein. Donostia. 1992. 19 × 12,5 cm, 141 or.
- LABURU, Miguel: **Escuela de pesca de San Sebastian**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 24 × 17 cm, 169 or.
- Léon Léon: **Bortz komedia eta lau alegia**. PIÑERO, Alberto. Antzerti. 1992. 29 × 15,5 cm, 88 or.
- LERTXUNDI, Anjel: **Peru eta Marixe, mila eta bat komerixe**. ASKOREN ARTEAN. Erein. Donostia. 1993. 19 × 12,5 cm, 152 or.

- LETAMENDIA BELZUNCE, Francisco Ortz: **Nazionalismoa eta beste ideologia garaikide**. Gaiak. Gasteiz. 1992. 21,5 □ 17 cm, 222 or.
- LETE, Xabier: **Biziaren ikurrak**. Erein. Donostia. 1992. 20,5 □ 13 cm, 144 or.
- MAUPASSANT, Guy de: **Roke txikia**. MENDIZABAL, Jesus Mari. Erein. Donostia. 1992. 18 □ 11 cm, 77 or.
- MONTOIA, Xabier: **Emakume biboteduna**. Susa. Lasarte-Oria. 1992. 20 □ 12,5 cm, 224 or.
- MOULIER, Jules Oxobi: **Alegiak eta poemak**. Egok.: BEOLA, Ainhoa. Susa. Lasarte. 1992. 19,5 □ 13 cm, 348 or.
- MUJIKA, Xabier: **Berritsu**. BELMONTE, Jose. Erein. Donostia. 1992. 19 □ 12,5 cm, 59 or.
- NOGRARO, Carmen Charo; ZARATE, Angel; MENDIA, Rafael; UBIETA, Eduardo; CARLOS, Angel de: **Lehen Hezkuntzako Lehenengo Zikloa eta Hezkuntz Premia Bereziak / Primer Ciclo de Educación Primaria y Necesidades Educativas Especiales**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 29,5 □ 21 cm, 336 or.
- OLABARRIA, Iñigo; USABIAGA, Mikel; ZALBIDE, Mikel: **EIMA. Ikus-entzunezko ikasmaterialeen bilduma**. GLZ. KATARAIN, Angel (Azala). E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 27 □ 20 cm, 496 or.
- POLIDORI, John W.: **Vanpiroa**. ANSELMI, Luigi. Erein. Donostia. 1993. 18 □ 11 cm, 72 or.
- SANZO GUTIERREZ, Luis; MUÑOZ DERMIT, Jose Manuel; SAEZ URIBARRI, Iñigo; SAIZARBITORIA ZABALETA, Ramon; DIAZ APRAIZ, Julio: **Informe de evaluación del Plan Integral de Lucha contra la Pobreza en Euskadi (1988-1992)**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 24 □ 17 cm, 232 or.
- SIMENON, Georges: **Enigmak**. MENDIGUREN, Iñaki. JØRGENSEN, Ib; IGARTUA, J.F. (azala). Elkar. Donostia. 1993. 18 □ 11 cm, 72 or.
- SWIFT, Jonathan: **Gulliver liliputen**. MENDIGUREN, Iñaki. ASTRAIN, Luis. Elkar. Donostia. 1993. 18,5 □ 13 cm, 114 or.
- URIARTE, Andres; MOTOS, Lorenzo: **Informe técnico de la pesquería de la anchoa en el año 1992**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 27 □ 20 cm, 32 or.
- URIBE, Angel; ERKOREKA, Anton: **Bermeoko Frantziskotarren Konbentuko Areilza eskuskribua (1761. urtea) / El Manuscrito Areilza del Convento Franciscano de Bermeo (Año 1761)**. Bermeoko Udala. Bermeo. 1992. 24 □ 17 cm, 288 or.

- URIZAR IRAZABAL, Joseba: **Girovago**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 21 □ 15 cm, 70 or.
- VASILIEVITX GOGOL, Nikolai: **Longaina**. MENDIGUREN BERE-ZIARTUA, Xabier. Erein. Donostia. 1993. 18 □ 11 cm, 78 or.
- VIAN, Boris: **Ttu eginen dut zuen hilobietan**. ZIGANDA, Juantxo. Igela. Iruñea. 1992. 17 □ 10,5 cm, 200 or.
- WRIGHT, Andrew: **Hizkuntzak ikasteko irudiak**. IÑURRIETA, Iñaki. WRIGHT, Andrew. HABE. Donostia. 1992. 21,5 □ 14,5 cm, 252 or.

TOLOSA HIRIBIDEA, 103-1.C
TEL.(943) 21 80 92
FAX (943) 21 82 07
20009 DONOSTIA

